

URTXINTXA 4 URTE

IRAKASLEAREN GIDALIBURUA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

3. hiruhilabetea

3. ZEHAZTAPEN MAILA

8. LORETXIN, LORETXO

Gaia: Udaberria

Iraupena: Aste Santuaren ondoren, 4 aste

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: txokolatezko etxea

3 urteko gelan baratza landu genuen udaberriko gaiaren barnean; oraingoan, ez dugu lurrarekin esperimentaziorik proposatzen, baina aukera baduzue, oso proposamen interesgarria izan liteke ereitea, landatzea eta lan horrek guztiak eskatzen dituen ardura guztiak banatzea.



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Udaberriko olerkien eta asmakizunen bilduma
2. Txokolatezko etxea nola egin

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.

Ipuinaren hasierak eta bukaerak

Hasiera:

“Munduan asko bezala...” edo “Gauza guztiek hizketan zekiten denboran gertatu omen zen...”

Bukaera:

“Haiek ondo bizi izan baziren gu ondo bizi izan gaitezten.” Edo “Aditzeko belarririk duenak aditu eta ikas dezala.”



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia: udaberria

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dugu. Jolas horren bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortu nahi dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusitu.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu hurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

OHARRA: Elkarrizketa egitean hainbat haurrek erantzuteko zailtasunak izan ditzakete beren hizkuntzaren mugagatik edo hizkuntza-garapen mailagatik. Arazo horri aurre egiteko, estrategia egokia izan daiteke galdera bati bi erantzun posible ematea aukeran:

–*Zuhaitz handiaren adarrean dagoen mutilak zergatik mugitzen ditu besoak?*

a) *dantzan ari delako.*

b) *erleak aztoratu dituelako.*

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Tradiziozko kanta: *Udaberrian abiatu nintzen*

Helburu didaktikoak: I.13, II.9, III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 6. CDa, 3. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ohituraren arabera, *Lalalaralala* kantatzen dugunean, gorputz osoa edo besoak bakarrik mugituz, gora eta behera ibiliko gara. Oraindik, bi talde txandaka mugimenduak egiten jartzea zail samarra izango da, baina froga egin dezakezue.

UDABERRIAN ABIATU NINTZEN

Udaberrian abiatu nintzen
dama gazte baten bila,
atea kax-kax jo nuen baina
ez zidaten erantzuten.

Lalalarala...

Dama gaztea leihora atera eta
Galaia zer nahi zenduke,
gu bion borondatea balitz
zurekin egon nahi nuke.

Lalalarala...

3. Ikasnorabidea: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: guztiak
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: TH
Materiala: 1. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kaixo, lagunak!

Bai, lagun maiteak, udaberria iritsi da; dagoeneko izadia esnatzen hasia da, eta niri ere odola berotzen hasi zaidanez, hemendik aurrera ere oso ondo pasako dugula iruditzen zait. Ba al dakizue zer ikasi eta ikusiko dugun datozen egun hauetan?

- 1. Hasteko, basoan galdu diren haur batzuen ipuina entzungo dugu; eta, beti bezala, horren inguruan abestiak, olerkiak, igarkizunak, etab. ikasiko ditugu.*
- 2. Udaberriaz hitz egingo dugu, sortzen diren loreez, egiten duen eguraldiaz, topatzen ditugun txoriez, zuhaitzei udaberriari gertatzen zaienaz... Horrekin guztiarekin udaberriko olerkien eta asmakizunen bilduma osatzen saiatuko gara.*
- 3. Udaberriari gaudela ospatzeko, ipuineko sorginaren etxea egiten saiatuko gara, TXOKOLATEZKO ETXEA!!! Ongi, ezta?*
- 4. Ondoren, ikasi dugun guztia eta egindako txokolatzeko etxea erakutsi egingo diegu beste haurrei eta gurasoei, eta horretarako eguna eta ordua pentsatuko dugu.*
- 5. Eta bukatzeko, beti bezala, beste zerbait ikasi, ikusi edo egin nahi baduzue, irakasleari esan besterik ez duzue!*

Ondo pasa, mahaspasa!

Txirritx

4. Antzezpen kolektiboa: *Hansel eta Gretel*

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-3(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezpen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, eta kontakizunean izango duten ibilbideari buruzko hipotesiak formulatu galderen bitartez. Bestetik,

antzezen kolektiboan dauden arauak gogoratuko ditugu. (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi jarduera konstanteak: antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

HANSEL ETA GRETTEL

	Behin batean, Hansel eta Gretel izeneko bi neba-arreba aitarekin eta amaordearekin bizi ziren. Oso behartsuak ziren.
Hansel eta Gretel	Aita, gosez gaude!
Aita	Ba etxe honetan ez dago zer janik. Pobreak gara.
	Amaordea gaiztoa zen eta bi haurrak etxetik bota nahi zituen. Egun batean, zera esan zion aitari :
Amaordea	Begira Hanseli eta Greteli, oso argalak daude! Etxe honetan jarraitzen badute gosez hilko dira.
Aita	Bai, baina... Zer egin dezakegu?
	Bihar mendira eramango ditugu. Han norbaitek aurkitu eta zainduko ditu.
	Bai, baina... Beno, arrazoi duzu. Beharbada mendian norbaitek aurkituko ditu eta hobeto biziko dira.
	Hanselek eta Gretelek den-dena entzun zuten, eta Gretel negarrez hasi zen.
Gretel	Ai ene! Mendian bakarrik utziko gaituzte!
Hansel	Ez negarrik egin, plan bat bururatu zait eta. Harri koxkor zuriak bilduko ditugu bidea markatzeko.
	Hurrengo egunean, mendira eraman zituztenean, bidean harri koskorak botatzen joan ziren. Aitak eta amaordeak hoela esan zieten:
	Gu egur bila goaz. Zuek hemen jolasean gelditu. Gero etorriko gara zuen bila.
	Bai, hemen jolastuko dugu. Agur!
	Baina ilundu egin zuen, eta inor ez zen beraien

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	bila etorri. Hanselek esan zuen:
Hansel	Ez beldurrik izan, Gretel. Bota ditugun harri koskorrei jarraituz etxera iritsiko gara.
Gretel	Zuk uste duzu? Ez gara galduko?
	Ez, noski. Goazen! Gainera, ilargi betea dugu.
	Eta ibiliz eta ibiliz, goizalderako etxean zeuden berriro. Amaordeak ikusi zituenean, honela esan zion aitari:
Amaordea	Baina nola itzuli dira haur hauek etxera? Etxe honetan ez dago zer janik. Gosez hilko gara denok!
Aita	Eta zer egin dezakegu?
	Ogi pusketa bat eman, eta bihar berriro eramango ditugu mendira.
	Hurrengo goizean, mendira eraman zituzten berriro. Amaordeak honela esan zien:
	Aita eta biok egur bila goaz. Zuek hemen jolasean gelditu. Gero etorriko gara zuen bila.
	Bai, hemen jolastuko dugu. Agur!
	Baina ilundu egin zuen, eta inor ez zen beraien bila etorri. Eta etxerako bidea hartu zuten.
Hansel	Eta ogi apurrak? Non daude ogi apurrak? Txoriek jan dituzte!
Gretel	Orain ezingo gara etxera itzuli! Zer egingo dugu hemen mendian bakarrik?
	Ez larritu, Gretel! Han urruti argi bat ikusten dut. Etxe bat da. Bertara joango gara.
	Goazen bada!
	Baina etxe hartara hurbildu zirenean zur eta lur gelditu ziren.
Gretel	Hansel, etxe hau txokolatezkoa da! Eta leihoak karameluzkoak! Bai gozoa! Mau-mau-mau!

Hansel	Mau-mau-mau... Bai gozoa!
	Bat-batean, atea ireki zen, eta atso itsusi bat atera zen.
Sorgina	Hara, hara! Goseak amorratzen zaudete, ezta? Sartu, sartu barrura eta afari goxo-goxoa emango dizuet.
Haurrak	Eskerrik asko, andrea.
	Ez eskerrik eman. Danba! itxi zuen atea. Eta orain ikusiko duzue! Kar-kar-kar! Jan egingo zaituztet!
	Ai, ama! Andre itsusi hau sorgina da!
	Bai, sorgina naiz! Zinkili-zankala, mutiko hau da hezur eta azala, bere arreba honek gizendu dezala! Emaiozu jaten zure anaia horri.
Gretel	Ai ene! Sorgin honek Hansel jango du!
	Zinkuran-zinkarin, ez al duzu entzun, kaskarin? Hasi afaria egiten. Zure anaia gizendu behar duzu!
	Bai, andrea.
	Gretelek janari asko prestatzen zuen, baina dena Hansel gizontzeko izaten zen. Goizero, sorgina Hanselengana joan eta eskuko hatz lodia begiratzen zion zenbat gizendu zen ikusteko. Baina sorginak ez zuen oso ondo ikusten, eta behatzaren orde, Hanselek oilasko-hezurra erakusten zion.
Sorgina	Zinkuri-zinkira, erakutsi hatz lodia.
	Begira, begira! Gizendu al da?
	Zinkili-zinkulu, jan eta jan egiten duzu, baina oraindik ez zara batere gizendu! Ia bihar gizenago dagoen.
	Zinkuri-zinkira, erakutsi hatz lodia.
	Ez da loditzen! Tira... Ez du inporta!. Zinkili-zinkalau, sardina, bakalau! Gaur bertan jan

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	egingo zaitut! Riau! Gretel! Zinkuran-zinkarin, piztu labea arin, neska kaskarin!
	Gretelek labea bero-bero piztu zuen; baina ideia bat zuen.
Gretel	Sorgin andrea! Labea piztu dut. Nahikoa beroa al dago?
Sorgina	Banoa ikustera. Labe bero-beroa behar dut .
	Bai, badakit. Gerturatu, gerturatu ikustera. Braust!! Kar-kar-kar! Labean erreko zara sorgin gai
	Atx-aaaatx! Gretelek sorgina bultzatu, eta labe barrura erori zen. Hantxe erre zen sorgina. Gero, anaia askatu zuen.
Gretel	Sorginaren dirua hartuko dugu eta etxera itzuliko gara.
Hansel	Oso ondo egin duzu, Gretel! Ideia ona izan duzu. Sorginaren diruarekin etxera itzuliko gara, eta ez dugu gose gehiagorik pasako.
	Eta hala egin zuten. Aita oso pozik jarri zen haurrak ikustean eta handik aurrera pozik eta zoriontsu bizi izan ziren etxean.
	<i>Eta hala bazan, ez bazan...</i>

IPUINA AITZAKIA

5. Ipuinaren abestia: *Hansel eta Gretel*

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENEA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 2. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

HANSEL ETA GRETEL

Hansel, Gretel, turroi eta txokolate,
Hansel, Gretel, non gorde zarete?
Hansel, Gretel, turroi eta txokolate,
Hansel, Gretel, non gorde zarete?

Goiz eder batean guztiak batera
mendira joan ziren txotx batzuk biltzera.
Gurasoak etxera eta haurrak goibel,
mendian galdu ziren Hansel eta Gretel.

Hansel, Gretel...

Galdurik zeukaten etxeko bidea,
hura zen gosea, hura zen nekea!
Larritzen hasten dira gaua iristean,
etxe goxo bat dute begien aurrean.

Hansel, Gretel...

Atso zahar maltzurra, hori duk sudurra!
Kaiolan gorde du mutiko xamurra.
Arrautzak, solomoak, intxaurrak, gaztainak,
Hansel gizendu nahi du mendiko sorginak.

Hansel, Gretel...

"Zinkili-zinkalau, sardina bakallau,
labean erreta jango dut mutil hau".
Gretelek bota zuen sorgina labera
ta kaiola barrutik anaia atera.

Hansel, Gretel...

6. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Atzamar-jolasean egiteko hiru elkarrizketa labur proposatzen ditugu, ipuin dramatizatuarekin lotura dutenak. Zuen aldetik beste batzuk sortzera gonbidatzen zaituztegu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

1

Haur guztiak irakaslearen laguntzarekin	Baina ilundu egin zuen eta inor ez zen beraien bila etorri. Eta etxerako bidea hartu zuten.
Hansel	Eta ogi papurrak? Non daude ogi papurrak? Txoriek jan dituzte!
Gretel	Eta orain ezin gara etxera itzuli! Zer egingo dugu hemen mendian bakarrik?
	Ez larritu, Gretel. Han urruti argi bat ikusten dut. Etxe bat da. Bertara joango gara.
	Goazen bada!

2

Haur guztiak irakaslearen laguntzarekin	Bat-batean, atea ireki, eta atso itsusi bat atera zen.
Sorgina	Hara, hara! Goseak amorratzen zaudete, ezta? Sartu, sartu barrura eta afari goxo-goxoa emango dizuet.
Hansel eta Gretel	Eskerrik asko, andrea.
	Ez eskerrik eman. Danba! itxi zuen atea. Orain ikusiko duzue! Kar-kar-kar! Jan egingo zaituztet!
	Ai, ama! Andre itsusi hau sorgina da!
	Bai, sorgina naiz! Zinkili-zankala, mutiko hau da hezur eta azala, bere arreba honek gizendu dezala! Emaiozu jaten zure anaia horri.
	Ai ene! Sorgin honek Hansel jango du!
	Zinkuran-zinkarin, ez al duzu entzun kaskarin? Hasi afaria egiten. Zure anaia gizendu behar duzu!
	Bai, andrea.

7. Elarrizketa-jolasa eguneroko bizitzarekin lotu

Helburu didaktikoak: I.5(H), II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko jardueran egoera bat antzestu dute, ipuinean jasotzen den egoera bat, hain zuzen. Orain, egoera hori bera haurren bizitzari hurbiltzea da jarduera honen helburua. Horretarako, antzeko egoerak bilatuko ditugu, baina gure errealitateko gatazkak sartuz eta gure izenak erabiliz.

Hona hemen adibide bat:

	Arratsaldeko 5ak dira eta etxeok ez dira gure bila etorri.
Gelako haur bat	Eta orain ezin gara etxera itzuli! Zer egingo dugu hemen ikastolan bakarrik?
Hezitzailea	Ez larritu, ume, hementxe egongo gara etxeok etorri arte.
Gelako haur bat	Ados ba!

8. Komikia

Helburu didaktikoak: I.11-12, III.8-9-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 2. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Talde handian gaudela, fitxaren aurkezpena egingo dugu. Fitxaren tamaina handi dezakegu, arbelean denen aurrean aurkezpena eta planifikazioa bideratzeko.

- Zer ikusten duzue hemen?
- Zer iruditzen zaizue egin beharko dugula?
- Zergatik agertzen dira globoak?
- Zer idatzi behar da globoak?...

- **Aurrezagutzak aktibatu.** Fitxan ageri den ipuineko pasarteak gogoratuko dugu.
- **Planifikazioa.** Bikoteka jarrita, denbora emango diegu pentsatzeko zer esaten duten Hanselek eta Gretelek, eta beraz, zer idatziko dugun fitxako globoetan. Bikotetan pentsatutakoa talde handira ekarriko dugu eta hezitzailearen laguntzarekin idazten joango gara. Ondoren, bi aukera ditugu: a) sortu diren aukerak arbelen utzi, aukera desberdinak egon daitezten; b) aukera guztien artean bat lehenetsi eta hori idazteko proposatu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- **Testualizazioa.** Argi gelditu ondoren zer idatziko duen bikote bakoitzak (arbelean erreferentzia manten daiteke laguntza bezala) haur bakoitzak bere fitxa osatzeko unea iritsi da.
- **Berrikusi.** Idazten bukatutakoan, biribilean elkartuko gara berriro, eta errebisioa egingo dugu: eredu batzuk ikusi eta idatzitako mezua gogoratu.

9. Elkarrizketa. Zehar-lerroa, pertsonen arteko harremanak

Helburu didaktikoak: I.5(H), II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- Zer iruditu zaizue ipuina? Gustatu al zaizue?*
- Norbaitek pasa al du beldur pixka bat? Bai? Nork? Zerk eman dizu beldur gehien?*
- Zer egingo zenukete basoan galduko bazinete?*
- Eta Hansel eta Gretel bezain txiroak bazinete? Guk denetik daukagu, ezta?*
- Eta sorgin batekin topo egingo bazenute?*
- Zer une gustatu zaizue gehien ipuin honetan? Zergatik?...*

10. Hansel eta gretel galdua daude

Helburu didaktikoak: I.2-5-11, II.33(MAT)-34(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 3. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA/ Adierpen plastikorako txokoa

PROZEDURA

- Zer uste duzue esaten ari zaigula Txirritx kilkerra? Eta Hansel eta Gretel?*

Haurren iritziak entzun ondoren, fitxan jartzen duena irakurriko dugu.

- Lagunduko al ditugu, bada, etxeraino iristen? Ea nork lortzen duen, galdu gabe!*

Galdetuko diegu zer estrategia erabiliko luketen galdu gabe edo, behintzat, aurrera eta atzera eta ezabatzen ibili gabe egiteko. Ideia horretatik abiatuz, *azkarregi ibiltzeari* buruz hitz egin daiteke: batzuetan, agindua osorik entzun gabe hasten gara lanean, edota planifikatu gabe, eta, horren ondorioz, zenbaitetan gauzak gaizki ateratzen zaizkigu; zenbaitetan akats horiek erraz konpon ditzakegu, baina beste batzuetan ezin izaten ditugu zuzendu...

Jarduera honekin batera, *Erbia eta dortoka* ipuina konta dezakegu.

Behin batean, baziren erbi bat eta dortoka bat. Erbia oso azkarra zen eta honela esan zion dortokari:

–Aizu! Zer iruditzen zaizu lasterketa bat egiten badugu?

Eta dortokak erantzun zion:

–Oso ondo. Nondik nora?

Eta erbiak esan zion:

–Hemendik horra.

Korrika hasi ziren biak, eta erbiak, berehala, abantaila handia hartu zion dortokari.

Beraz, atsedeen bat hartuko zuela pentsatu zuen erbiak. Pentsatu eta egin. Baina erbia lotan geratu zen. Eta dortokak, bitartean, astiro-astiro eta atsedeen hartu gabe, aurrera jarraitu zuen.

Erbia esnatu zenerako, dortoka dagoeneko aurrea hartu zion. Erbia korrika batean hasi zen hura aurreratu nahian, baina berandu zen; dortoka oso aurretik zihoan, eta alferrikakoak izan ziren erbiaren ahaleginak. Dortoka lehena heldu zen helmugara eta lasterketa irabazi zuen.

Ahaleginduko gara hurrek adieraz ditzaten ahoz ipuin horren antzeko egoerak edo gertakizunak. Esaldiren bat ere asma dezakegu arau edo aholku moduan, eta nonbait idatzita utzi, gogoan izateko beti. Esate baterako: "Lanean (gauzak egiten) hasi baino lehen, ondo pentsatu behar dugu zer egitera goazen." Edo, Pirritzek eta Porrotxek esaten duten bezala "**sentitu-pentsatu-egin!**".

11. Lokotx-bilketa jolasa

Helburu didaktikoak: I.8-9-10-12-13-14-15, II.5-9-23(MAT)-24(MAT)-25(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK,

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: HARRITXOAK EDO EGUR ZATIAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Denok ezaguna da, seguruenik, lokotx-bilketa jolasa. Guk hemen joko hori bera egitea planteatzen dugu, baina harriekin jolastuz, lokotxen ordez.

Lehenik, hurrekin batera erabakiko dugu zenbat harrixorekin jolastuko dugun. Ondoren, jolasteko prozedura gogoratzea komeniko litzateke, eta, bukatzeko, lurrean markatuko ditugu harriak kokatzeko tokiak.

–Orain egin behar dugun jolasa egiteko, guk ez dugu ogi apurrik botako lurrera, harritxoak baizik. Harriak ilaratan jarriko ditugu, eta banan-banan hartuko ditugu, bat joan-etorri bakoitzeko, eta saskian sartuz joango gara, ahalik eta azkarren. Guztiak biltzen lehena amaitzen duena izango da irabazlea!

Jolasaren bukaeran, harritxoak zenbatuko ditugu. Galdera irekia planteatu dezakegu hurrek nola zenbatuko ditugun esan dezaten: *zer egin dezakegu jakiteko zenbat harri bildu dituen talde bakoitzak?*

Zenbatu ondoren, aukera sortzen bada zenbakia idatzi egingo dugu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

12. Pertsonaien horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11, III.7(H)-8(H)-9(H)-11(H)-(12)-15(H)-17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetako pertsonaien horma-irudia proposatzen dugun proiektuarekin lotuko dugu. Material osagarrietan dauzkagun ipuineko pertsonaiak handituko ditugu, marraztu (nahi bada) eta txokolatzeko etxea apaintzeko erabiliko ditugu.

Beti bezala, toki bat presta dezakezue pertsonaien izena idazteko eta, nahi baduzue, *Txokolatzeko etxea* ere jartzeko nonbait.

13. Pertsonaiak: memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5-23(MAT), III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: binaka
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Beste unitateetako pertsonaien txartelak erabiliz, irudiak eta izen idatziak erlazionatuko dituzte.

Pertsonaien izenekin konparazioak egingo dituzte (zer letra duten komunean...) eta hainbat irizpideren arabera sailkatuko dituzte (izen luzeak, izen motzak, letra jakin batez hasten direnak...).

Bestalde, letra mugikorrek ahaleginduko dira ipuin honetako edo beste ipuinetako pertsonaien izenak eraikitzen, bai eta norberaren izena, lagunena... Horretarako, jardueran parte hartzera animatzen diren haurrak binaka jarriko ditugu, letra mugikorrek banatuko dizkiegu eta saiakerak egiteko denbora emango diegu. Egiten diren ekarpenak parte hartzen dutenekin konpartitzea eta, dagokionean, osatzea, interesgarria litzateke.

14. Sorginen hizkuntza imitatuz

Helburu didaktikoak: III.5(H)-7(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hansel eta Gretel ipuineko sorginak erabiltzen dituen sorgin-hitzetatik abiatuz, jolas bat proposatuko diegu hurrei: sorgin-hitz berriak asma ditzatela errimatzen duten esaldiak sortuz. Hona adibide batzuk:

–*Zinkili-zinkagu... oso jatorrak gara gu.*
–*Zankala-zinkilera... bagoaz gu kalera.*
–*Zinkili-zankala... handitzen ari gara.*

Hasiera batean, errazago egiteko, guk asmatutako esaldiei azken hitza jarri beharko diote. *Zinkili-zinkagu, oso jatorrak gara...?*

–*Ipuineko sorginak, "zinkili-zankala", "zinkuran-zinkarin", "zinkuri-zinkara" eta horrelako hitzak erabiliz esaldiak osatzen zituen. Probatuko al dugu guk ea zerbait asmatzen dugun?*

15. Hiztegiaren bitartez ipuina kontatu

Helburu didaktikoak: I.11, II.4, III.7(H)-8(H)-9(H)-11(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: IPUINEKO HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuineko hiztegia baliabide interesgarria eta erakargarria izango zaigu ipuina gogoratzeko. Ipuina kontatzeko bidea zabalduko dugu.

Ikusi jarduera konstanteak: hiztegiaren bitartez, ipuina gogoratu.

16. Pertsonaiekin jolasten. Memoria-jolasa. Bikote-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5, III.8(H)-9(H)-34(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: PERTSONAIEN HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Orain arte ditugun pertsonaia guztien txartelekin betiko memoria-jolasa egin dezakegu, baina zenbait aldaera sar ditzakegu.

- Pertsonaien txartelak karten moduan erabil ditzakegu. Nahastu, jokalarien artean banatu, eta familien kartekin erabiltzen dugun sistema erabiliz, bikoteak osatzera jolastuko dugu.
- Bikote baten txartela gordeko dugu, eta "amona zaharraren" jolasean egiten den bezala, ea nor gelditzen den gordetako txartelaren bikotearekin.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Beti bezala, pertsonaien irudiak eta beren izen idatziak erlazionatuko ditugu eta, bide batez, horiei buruz hitz egin dezakegu: zein gustatzen zaigun gehiena, zergatik...



Gure txokolatezko etxea

Proiektua egiteko bi sekuentzia didaktiko proposatzen ditugu: batetik, olerki- eta asmakizun-bilduma bat osatzea, eta, bestetik, txokolatezko etxea bera egiteko erabakiak hartzea eta prozedura bat jarraitzea.



Udaberriko olerkien bilduma

HASIERA

Udaberria zer den eta hari buruz hurrek zer dakiten jasotzeko, ideien zaparrada bat egitea proposatzen dugu. Horrela, batetik, jakingo dugu hurrek zerekin lotzen duten 'udaberria' hitza, eta bestetik, olerkietan agertuko diren hainbat hitzekin loturak egingo ditugu. Sortuko dugun udaberriko olerkien bilduma, txokolatezko etxea apaintzeko erabili ditzakegu edo liburuxka batean bildu etxeko atean zintzilik jartzeko.

17. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Udaberriari buruz hitz egin nahi dugula esango diegu hurrei. Udaberria zer den edo udaberrian zer gertatzen den jakin nahi dugulako.

Denbora tarte bat emango diegu pentsatzeko; tarte horretan bikoteka jartzea izan daiteke interesgarria, horrela ideia gehiago sor baitaitezke. Denbora hori igarota, ideien bilduma egingo du hezitzaileak. Arbelean edo paper zuri handi batean idatziko

ditu haurrek aipatzen dituzten ideiak, hitzak, aditzak, bai eta kantak ere edo loreen izenak...

Esandako horiek guztiak baliatuko ditugu ondoren, olerkien lanketa egiterakoan.

Ez bazaie udaberriari buruzko gauza askorik bururatzen, hona galdera posible batzuk gaien zentratzen hasteko:

–Denok dakizue dagoeneko udaberriari gaudela. Zerbait berezirik sumatzen al duzue? Zer?

–Zertan nabari da udaberria heldu dela? Berdina al da eguraldia neguan eta udaberriari? Hozbero (tenperatura) berdina egiten al du?

–Erreparatu al duzue zuhaitzetan? Zer ari zaie gertatzen? Hosto berriak ateratzen ari al zaizkie?

–Eta ikusi al dituzue txoriak? Iritsi al dira enarak? Norbaitek ikusi al ditu habia egiten etxeko teilatu azpian? Nolako habiak egiten dituzte enarek? Zergatik etortzen dira txoriak udaberriari?

– Ikusi al dituzue beste txorien habiak?

– Eta loreak? Hasi al dira loratzen? Zer lore ezagutzen dituzue?

–Ideia bat daukat! Zer iruditzen zaizue txorien eta loreen izen berriak ikasten baditugu? Bai? Primeran!

18. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-7(H)-8(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

NegUaren
onDoren
dAitor
Bere
Eguzkia
epelaRekin
loRez
jantzIta
kAntari

Joxan Ormazabal

Olerkitxo hau arbelean idatziko dugu, eta UDABERRIA hitza osatzen duten letrak lodiagoak edo beste kolore batez egingo ditugu. Haurrei adieraz diezaikegu (honezkero barneratuta baitaukat) guk gehienetan "horizontalean" idazten dugula, baina era honetako hitz-joko eta jolasetan "bertikalean" ere idatz dezakegula. Kanean

3. ZEHAZTAPEN MAILA

ere, zenbait iragarki eta karteletan bertikalki idatzitako izenburuak eta errotuluak aurki ditzakegu; horrelakorik ikusi ote duten galdetuko diegu.

19. Urtaroak egutegian

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-7(H)-8(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ikasturte guztian zehar egutegiarekin batera eguraldiaren erregistroa eraman dute haurrek, eta taldean, egunero, hilabetearen izena eta egunaren zenbakia esaten nahikoa ohituta egongo dira. Urtaroen kontzeptua barneratzea oraindik zail samarra bada ere, aipamen bat egingo diegu.

Egutegi bat hartu, eta urtaro bakoitza noiz hasten eta noiz bukatzen den ikusiko dugu, zenbat hilabete dituen bakoitzak...

Estereotipoak badira ere, urtaro bakoitza fenomeno atmosferiko edo eguraldi mota batekin erlaziona dezakegu, baita ekintza desberdinekin ere (hostoak erori, itsasoan bainatu, elurretan ibili, loreak jaio...).

–Aaaai, udaberria! Denok pozten gara udaberria heltzean! Baina gogoratzen al duzue zein diren beste urtaroak? Bai? Zeinek ezagutzen ditu?

–Zuek asko dakizue, e? Baina egutegia hartuko dugu eta ezagutzen ez duzuen gauza bat ikusiko dugu: noiz hasten eta noiz bukatzen den urtaro bakoitza.

Olerki labur hau ere irakur dezakezue, haurrek ikas dezaten eta aurreko jarduerakoekin elkartu. Nahi izanez gero, talde batek olerkiari dagokion marrazkia egin dezake.

Udaberrian zelaia lorez
jantzi ohi dira urtero.
Uda garaian egunak luze
eta eguzkia bero.

Udazkenean urre kolorez
zuhaitz, hodei eta soro.
Negu txuria dator azkena,
urteak ditu lau aro.

Joxan Ormazabal

20. Ezkutuan dauden gauzak aurkitu

Helburu didaktikoak: I.7-11, II.12-33(MAT), III.13(H)-17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 4. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan, udaberriarekin lotura zuzena duten marrazkiak aurkitu behar dituzte, izendatu, eta margotu. Beste irudiak, ezagutzen dituzten neurrian, izendatzeko ere eskatuko diegu, eta ez dakizkiten irudi erregularrak guk adieraziko dizkiegu: kuboak, zilindroak, izarra, zirkulua...

GARAPENA:

21. Udaberriari buruzko olerki-bilduma

Helburu didaktikoak: I.11-15, III.1(H)-5(H)-8(H)-9(H)-15(H)-17(PLAS)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Udaberriaren gaiari buruzko olerki asko aurkituko dituzue olerki-liburuetan. Guk hemen batzuk proposatzen dizkizuegu; bi egunetik behin haurrei bat irakurri, kartulina batean kopiatu eta horman itsatsi dezakezue. Olerki bakoitzaren inguruko marrazkiak ere egin ditzakezue; horrela, materiala bilduz joango gara gure bilduma txukun-txukun osatzeko.

Olerkiez gain, beste hainbat elementu sar litezke bilduman, urtaroez hitz egitean eta gaian zehar sortu eta aipatu direnak.

OLERKIAK

Udaberri,
zaharra zena berri;
neska lirain lorez jantzia,
irri eta irri.

J.M. Irigoien

Neguan lo egiten du izadiak,
ametsetan egoten dira
sugandila eta inurriak,
zuhaitzak hostorik gabe
eta mutu txoriak.
Baina elurrak urtzen direnean,
eguzkiarekin kilimak eginez

3. ZEHAZTAPEN MAILA

izadia esnatzen du udaberriak.
Orduan jaiotzen dira
zuhaitzetan hostoak,
orduan egiten du bere habia
“txip-txop” txantxangorriak.

Joxan Ormazabal

Eguzkiari begira
arrosak loretan;
txori zalapartariak
zuhaitzetan festan;
isil-isilik behetik
suge bat herrestan.

J.M. Irigoien

Udaberria da (e)ta
Manuela bero,
harekek emoten dik
eskatuz gero.

J.M. Etxebarria

Kukua
udaberrian,
haur begian,
kukuaren kantua
aurpegian.

Pello Añorga

Lili lore, lili lore,
lili lore, liraina,
lili lore, lili lore
Leirentzat eramana.

Loreak udaberriro
loratzen dira
Leireren soroetan;
Leire alaiak
udaberriro biltzen ditu
loraturiko loreak.

Lili lore, lili lore,
lili lore, liraina,
lili lore, lili lore
Leirentzat eramana.

Anjel Lertxundi

Krabelin usaina zerutik
krabelin usaina lurretik
krabelin zeruko
krabelin lurreko.
krabelin
krabelin

(...)

Biligarroak zizareak jatean
astindu egiten ditu gogotik.
Horregatik darama beti
paparra zipriztinez beterik

J.K. Igerabide

Tarin honen
uso horren
zozo haren
hegoak,
tarinaren,
usoaren,
zozoaren besoak.

Tarin honen
uso horren
zozo haren kantuak,
tarinaren,
usoaren,
zozoaren ohiturak

22. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: II.9(I), III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 11. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Entzun behar dugun musika, Georg Friedrich Haendelena da. Ba al dakizue nor zen Haendel?

Haendel, Georg Friedrich. Konpositore alemaniarra, Britainia Handian nazionalizatua (Halle, 1685 - Londres, 1759). Haren operetan oso nabarmena izan zen eragin italiarra. 1740tik aurrera batik bat oratorioak idazten hasi zen (*Mesias*, 1742; *Saul*; *Israel Egipton*; *Judas Makabeoa*, 1747). Oratorio horietako koruetan ageri da bere musikaren handitasuna eta sendotasuna. Haendelek bikain uztartu zituen estilo frantsesa, ingelesa, alemaniarra eta italiarra bere obran.

–Orain badakizue nor zen entzun behar dugun musikaren konpositorea.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Udaberria iritsi da eta basoa kolorez eta soinuz bete da. Musika entzutean, imajina ezazue txoriz betetako baso batetik paseatzen ari garela. Entzuten al dituzue txoriak? Ikusten al dituzue landareak eta zuhaitzak loratzen?

Entzunaldia bi aldiz jarri ondoren, musika entzun bitartean ikusi eta sentitu dutena marraztuko dute. Nahi dutenek kontatu ere egingo digute (edo idatzi) zer marraztu duten.

Beste aukera bat: musika entzuten ari diren bitartean erritmoaren arabeko trazoak, ondulazioak... margo ditzakete.

23. Udaberriari buruzko asmakizun-bilduma

Helburu didaktikoak: I.11-15, III.1(H)-5(H)-7(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Olerkiekin egin dugun bezala, udazkenari buruzko asmakizun asko aurki ditzakezue. Guk hemen batzuk proposatzen dizkizuegu.

Erabiliko dugun prozedura olerkien parekoa izango da. Bi egunetik behin, asmakizun bat irakurriko diegu hurrei. Bai olerkiak eta bai asmakizunak kartulina batean idatzi eta horman itsatsita jar ditzakegu.

Besoak luze,
sustraiak sendo,
txoriak bertan
ondo baino hobeto.
(zuhaitza)

Kolore askotako hegoak
lili artean galduak,
lozez lore udaberrian
aurkitzen dira zelaian.
(tximeleta)

Zer dago
aldapeko
sagarraren
adarraren
puntaren
puntan?
(txoria)

Lorez lore gabiltza hautsa xurgatzen,
poliki-poliki dugu abaraska osatzen
eta normalean zuei bizitza gozatzen.
(erlea)

Makilaren buruan ile latza,
orrazteko etxeko ezkaratza.
Hau bai erraza!
(erratza. Sorginarena?)

Hegoari eragin
eta hasten da hegan,
ehiztariengatik
beldurrak airean.
(txoria)

Pinpilin-panpalan.
hegan bere kasa,
hor pausa,
hemen pausa.
(pinpilinpauxa)

Zainak ipurdian
besoak gerrian
eta adarrak buru azpian.
(zuhaitza)

Malkoekin elkartzean argia
alaitzen du zeruaren aurpegia,
zazpi koloretako zubia
ondo eder eta bitxia.
(ostadarra)

Eguzkia eta euria batera
zazpi kolore kalera.
(ostadarra)

24. Loretan lore

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 5. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

CDko abestian egiten duten moduan, haurrek loreen izenak errepikatuko dituzte kantaren bidez.

LORETAN LORE

Arrosak,
liliak,
krabelinak,
txilinloreak.

Arrosak,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

liliak,
krabelinak,
txilinloreak.
Merke-merke saltzen ditut.
Loretan lore,
lilitan lili.
Lo leri lelo, lo dago lolo.
Zulo zulotan,
Gulu-gulu-gu,
Ttunkulun kuttun logale dugu.

25. Loreen bila

Helburu didaktikoak: II.12-16(MAT)-17(MAT)-18(MAT)-19(MAT)-23(MAT)-25(MAT)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ARGAZKI-KAMERA, ARKATZA, PAPERA

Jarduera egiteko espazioa: IKASTOLAKO LORATEGIA, PARKEA, ZELAIK...

Jarduera honen helburua loreen azterketa, sailkapena eta zenbaketa bideratzea izango da.

Udaberrian lorez betetzen dira inguruko zelaiak. Gehien bat bitxiloreak topa ditzakegu, baina pixka bat behatuz gero, lore mota asko deskubritzeko aukera izango dugu (matematikak lantzeko aukera ezin hobea).

Udaberriari buruz hitz egin dugunean, loreak aipatu ditugu eta horien izenak azaldu dira. Oraingoan, lore horiek bilatuko ditugu gure inguruan (parkeetan, zelaietan, loretokietan), aztertu, sailkatu eta zenbatuko ditugu.

PROZEDURA

Gure proposamena azaltzeko, Harrera-txokoan elkartuko gara haurrekin. Lehenik, nora joango garen erabakiko dugu. Ondoren, garbi utziko dugu zeren bila goazen, hau da, loreak bilatu behar ditugula. Oso garrantzitsua da jarrera lantzea: zer gertatzen den loreak moztu ditugunean, hil egiten direla... Aurkitzen ditugun loreak gelara ekartzeko, argazki-kamera erabiliko dugu.

Haurren zeregina beraz, behatzailearena izango da; loreak topatzean, zenbatzen saiatuko dira eta, ondoren, hezitzaileari esango diote argazkia ateratzeko.

Interesgarria da galderen bitartez haurren hipotesien bila joatea: *Nola jakin dezakegu zenbat lore dauden?*

Era askotako erantzunak jaso ditzakegu, behar bada atzamarrekin, makilatxoekin bitartez (IIII), harritxoekin...

Eta nola egingo dugu ez ahazteko kopuru horiek bueltako bidean? Hezitzaileak papera eta arkatza eramango du apunteak hartzeko.

Hurrengo fitxan, 5garrenean, agertzen zaizkigun bost lore mota bilatzen saia gaitzeko: daliak, tulipak, bitxiloreak, arrosak, bioletak, krabelinak.

Irtenaldi bat egiten dugun guztietan bezala, kontuan hartu hainbat gauza: zer bide egingo dugun, zer arrisku aurki dezakegun bidean, nola joan behar dugun, gurasoei bidaliko diegun oharra, itzulitzakoan egingo dugun balorazioa...

26. Loreontzietako loreak

Helburu didaktikoak: II.12-16(MAT)-18(MAT)-19(MAT)-23(MAT)-25(MAT), III.13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa egiten hasi aurretik, balkoian ikusten diren loreontziei behatuko diegu eta aztertu: zer lore mota dauden (daliak, tulipak, bitxiloreak, arrosak, bioletak eta krabelinak), ea egin dugun irteeran lore horiek ikusi ditugun, lore guztien artean ba ote duten zerbait komunean, guztiak kolore berekoak diren, zenbat lore dagoen loreontzi bakoitzean...

Fitxa honek zenbatzaileekin jolasteko aukera ere eskaintzen digu; hitz berak erabiliz, egia eta gezurra esatera jolas daiteke:

*Dalia **guztiak** loreak dira.*

*Lore **guztiak** daliak dira.*

*Krabelin eta tulipa **guztiak** loreak dira.*

*Lore **guztiak** krabelinak eta tulipak dira.*

Ea zer gertatzen den, **guztiak** erabili beharrean, **batzuk** erabiltzen badugu:

*Lore **batzuk** bitxiloreak dira.*

*Bitxilore **batzuk** loreak dira.*

Marraskiko guztien ezaugarri komuna ere eska diezaikegu: *loreak*. Eta loreontzi bakoitzarena ere bai: *daliak, tulipak...*

Ondoren, loreontzi bakoitzean dagoen lore kopurua azpialdean ageri diren zenbakiekin erlazionatu behar dituzte; kopuru horiek parkean ikusi dituzten kopuruekin ere konpara ditzakete, hurbilketak eginez

–Zenbat krabelin ikusi ditugu parkean?

–Fitxan daudenak baino gehiago ala gutxiago ziren?...

27. Esaera zaharrak

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Lorarik edarrenak be, ximeldu.

Lorea, zu zara neurea.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

28. Orkestazioa

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)-28(MUS)-29(MUS)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)-33(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH


Materiala: 6. CDa, 5. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA


PROZEDURA

Loretan lore abestia erabiliz, orkestrazio sinple bat egingo dugu musika-tresnen bidez.

Bi musika-tresna erabiliko ditugu: klabeak eta txintzarriak. Klabeek honako eskema erritmiko hau errepikatuko dute:



Txintzarrien taldekoek, berriz, kolpe bat besterik ez dute emango, esaldien bukaeran txintzarriak dardarizotan utziz:



Abestiaren hasieran, *Loretan lore* abesten hasten diren arte, bakar-bakarrik hurrek erantzuten dutenean joko dugu.

29. Artelana

Helburu didaktikoak: I.11- III.17(PLAS), III.18(PLAS), III.19(PLAS), III.22(PLAS), III.23(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. eta 7. FITXAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Pierre Bonnard, *Lorategia*, 1937.

Bonnard, Pierre. Pintore eta litografo frantsesa (Fontenay-aux-Roses, 1867 – Le Cannet, 1947). Hasieran impresionista izan zen, eta gero, paisaiak eta erretratuak margotzen jarraitu bazuen ere, etxe barneko eszena intimoetarako joera hartu zuen. Koloreen eta argilunaren erabileran trebea izan zen (*Clichy Plaza, Bainuan biluzik...*).

Erreproduktzioa 7. fitxa

Kolorez beteriko koadro honi behatuko diogu: formen estilizazioa, mantxak... Hurrei argizariak emango dizkiegu, eta lorategi bat margo dezatela eskatuko diegu, baina irudien profilak egin gabe. Horretarako, marrak, puntuak eta mantxak erabiltzera gonbidatuko ditugu. Nahi izanez gero, kotoia edo hatzak erabiliz, zati batzuetan difuminazioa ere lan dezakegu.

30. Txirritxen gutuna

Helburu didaktikoak: II.4, III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Idazten hasi aurretik, lana banatuko dugu. Ezer baino lehen, zertarako nahi dugun gutuna idatzi gogoratuko dugu. Horretarako dugu Txirritxen gutuna.

KAIXO LAGUNAK

ZER MODUZ? BELDURTU AL ZINETEN SORGINAREKIN HANSEL ETA GRETELEN IPUINENAN? NI BAI, PIXKA BAT! BAINA, TIRA! IPUINAK BUKAERA POLITA DAUKA, ETA GU ERE EDERKI BUKATUKO DUGU UDABERRIARI BURUZ EGITEN ARI GAREN LANA: "GURE UDABERRIKO OLERKIEN BILDUMA".

DAKIZUEN BEZALA, UDABERRIA IRITSI DELA OSPATZEKO, TXOKOLATEZKO ETXE BAT EGINGO DUGU, HANSEL ETA GRETELEN IPUINEKO SORGINARENA BEZALAKOA. BADA, TXOKOLATEZKO ETXEA APAITZEKO, BILDU DITUGUN OLERKIAK ERABILIKO DITUGU. PENTSATUKO DUGU NOLA.

GURE LANA ERAKUTSI EGINGO DIEGU LAGUNEI ETA SENIDEEI. ZER IRUDITZEN ZAIZUE?

ZUETAKO BAKOITZAK OLERKI BAT EDO ASMAKIZUN BAT AUKERATU BEHARKO DU, ETA, ONDOREN, IDATZI.

TIRA, LAGUNAK! SEGI LANEAN, EDERKI ARI ZARETE ETA! ORAINGOAN, ESKUAK BEROTU ETA... IDAZTERA!

GARUNAK ASTINDU BEHARKO DITUGU LAGUNAK!

TXIRRITX

3. ZEHAZTAPEN MAILA

31. Olerkiak eta asmakizunak idatzi

Helburu didaktikoak: I.11-15, III.11(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: binaka/banaka
Materiala: 8. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Testua Planifikatu

- Non idatziko dugu olerkia edo asmakizuna?*
- Non hasiko gara idazten?*
- Non jarri beharko dugu orrialdearen zenbakiak*

Testualizazioa

Gelan daude olerkien erreferentziak; ez dituzte olerki guztiak buruz jakingo, baina litekeena da egin dugun lanketaren arabera bat edo beste ikasia izatea. Hezitzailearen lana izango da aukeraketan laguntzea edo bideratzea, horren beharra ikusten baduzue. Idazteko mementoan, talde txikiekin lan egitea komeni da, horrek hezitzailearen lana erraztuko baitu.

Berrikusi

Haur guztiek lana bukatutakoan, talde handian elkartuko gara, eta liburuxka egin aurretik, orrialdeak zenbakituko ditugu eta bukaerako emaitza aztertuko dugu. Hezitzailearen esku egongo da erabakitzea nork egingo dituen transkripzioak.

32. Udaberria

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 6. CDa, 6. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

UDABERRIA

Maiatzean, kuku! Kuku!
Iluntzetan, kuku! Kuku!
Oihan beltza poztu zaigu.
Kuku! Bat eta bi. Kuku!

*Udaberri! Udaberri!
Kantari dago Aberri!*

Mendi maldan, bee! Bee!
Arkumeak, bee! Bee!
Zelaietan jan eta jan.

Dilin dindan, bee eta bee!

Udaberri! Udaberri!...

Teilapeko, pio! Pio!
Habiara, pio! Pio!
Hegan datoz bi enara
Txioka, pio-pioka.

Udaberri! Udaberri!...

Baratzetan, kirkir-kirkir!
Zelaietan, kirkir-kirkir!
Eguzkitan, izarpean,
kilkerrak izarpean.

Udaberri! Udaberri!...

33. Txorien bila

Helburu didaktikoak: : II.1-12-15-16(MAT)-19(MAT)-.21(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ARGAZKI KAMARA, ARKATZA, PAPERA

Jarduera egiteko espazioa: IKASTOLAKO LORATEGIA, PARKEA, ZELAIA....

PROZEDURA

Aurretik loreekin egin dugun bezala, oraingoan txorien azterketa proposatuko dugu. Nora joango garen erabakiko dugu. Ondoren, garbi utziko dugu txorien bila goazela oraingoan.

Gogoratu jarrera lantzeaz: txoriak eta habiak errespetatu behar ditugu. Txoriak gelara ekartzeko, argazki-kamara erabiliko dugu. Haurren zeregina, beraz, behatzailearena izango da; txoriak ikustean, argazkia ateratzeko esango dio hezitzaileari.

Gelara bueltatutakoan, zenbat txori mota desberdin jaso ditugun ikusiko dugu, eta, argazkiek aukera ematen badute, konparazioak egin ditzakegu txori kopuruen artean.

Irtenaldi bat egiten dugun guztietan bezala, kontuan hartu hainbat gauza: zer ibilbide egingo dugun, bidean egon daitezkeen arriskuak, nola joan behar dugun, zer ohar bidaliko diegun gurasoei, itzulitzakoan egingo dugun balorazioa...

34. Zer ari da gertatzen hemen?

Helburu didaktikoak: I.12(H), II.12-15, III.2(H)-12(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 9. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Hiru binetako egoera honetan erdiko irudia falta da. Istorioak honako hau kontatu nahi digu: bi hurrek txori batzuen habia ikusten dute zuhaitz batean, eta ondo ez dagoen ekintza bat egiten dute (harrika hasi, zuhaitzera igo eta habia hartu, edo, nahiago baduzue, habiara hurbiltzen dira gertutik ikusteko eta nahi gabe bota egiten dute...). Azken binetan, zaintzaile batek errieta egiten die, eta egurrezko habia bat jartzeko agintzen die.

Hitzez adierazi

- Ikusten dena deskribatuz, arazoa identifikatuz, norberaren sentipenak kanporatuz, hipotesiak formulatuz...
- Egoerari buruzko galderak egin. Erdiko binetan zer gertatu ote den galdetu, eta haurren hipotesiak kontutan hartu. Esandakoak aztertu, beste binetekin alderatuz esandakoak logikarik duen ala ez.
- Izenburua proposatu (ahal dela, ideia nagusira hurbildu).

Printzipioa formulatu

(Zer ikas dezakegu hemendik?)

- Animaliak ondo tratatu behar ditugula, guk ere habiak egin ditzakegula zuhaitzetan zintzilikatzekeo...

Idazketa

- Izenburua. Printzipioa ere bai, nahi bada.

Elkarrizketa sortu eta dramatizatu.

Taldean egin daitezkeen zenbait galdera:

- Zer ikusten dugu irudi hauetan?
- Osatuta al dago istorioa?
- Zer gertatzen da lehen irudian?
- Zer gertatzen da hirugarren irudian?
- Zer gertatu ote da tartean?...

35. Txorien kanta

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Poxpolin, poxpolin galeperrak.
Alaiak daude soro bazterrak.
Bibitsi-bibitsi buztanikarak.
Errekan zomorroak ikaraz.
Tsitsipe-tsitsipe kaskabeltzak.
Basoetan habia egin beza.
Txau-txau txolarreak, puit-puit txioak.

Kantari bikainena zozoa.
Kil-kil-kil okilak, kuku kukuak.
Kantaminez maiatzeko gauak.

36. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: III.9-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txori guzien ahotik ez da kantua berdin.
Txoriak kantatu, habia salatu.
Poliki-poliki txoriak, egiten du habia.
Ehun txori hegatsean baino, bat eskuan hobe.

37. Jolas-kanta

Helburu didaktikoak: I.1-7-8-10-12-13-14-15, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 6. CDa, 9. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jolas hau egiteko, zirkuitu bat antolatuko dugu gelan, patioan edota gimnasioan:
potroaren gainera igo, bertatik salto egin, koltxonetan txiribuelta egin, mahai azpitik
pasa...

Erritmikaren eragina markatzea komeni da.

Haur guztiak ilaran doaz, eta lehenengoa doan tokitik joan behar dute denek.

KUKUAREN ARRASTOAN

Kukuaren arrastoan nabil,
non gorde den nik ongi nahi nuke jakin.
Kuku! Kuku! Hortik.
Kuku! Kuku! Handik.
Txora-txoraturik nabil gaur basotik.
Eta kukuak kuku!
Eta kukuak kuku!
Lepondotik helduko nioke poz-pezik.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

38. Txotx egiteko

Helburu didaktikoak: I.13, II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrek, garai batean, jolas bat egin aurretik txotx egitean abesten zutena ikasiko dugu:

Dona, dona katona,
sutondoan amona,
lepotik bera kutuna,
kanpora neska/mutil tuntuna.

39. Txoria osatu

Helburu didaktikoak: I.11-15, II.12-26(MAT), III.1(H)-15(H)-17(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/ B
Materiala: 10. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txantxangorri bat dago adar batean pausatua. Haurrek falta zaion zatia osatu behar dute zenbakiei jarraituz.

TXIRULIN TXANTXANGORRIA,
NIK HAINBESTE MAITE NUEN
TXORITXO PAPARGORRIA.
JOAN DA NEGU ZURIA,
ETORRI DA UDABERRIA.
NON EGIN BEHAR DUZU AURTEN
HABIATXO BERRIA?

40. Tximeleta margotu

Helburu didaktikoak: I.11-16, III.18(PLAS)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 11. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Udaberriari, gehienetan, lore artean tximeletaren bat ikusteko aukera izaten dugu. Ikusi al duzue noizbait tximeletaren bat? Politak dira, ezta?

–Fitxan agertzen den tximeletak ezin du hegan egin. Osatuko al diozu falta zaion aldea? Baina koloretako beste erdia bezala egin beharko duzu. Berdin-berdina izan behar da!

41. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: II.4, III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA,
Taldekatzeta: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Udaberriari buruzko informazioa lortzeko, eta horrekin batera familiak inplikatzeko, gutun bat bidaliko diegu. Hona adibide bat:

KAIXO, FAMILIA!

HEMEN NAUZUE, BERRIRO ERE, ZUEN LAGUNTZA ESKE!

UDABERRIA IRITSI DA, ETA, EGUN HAUETAN, ERREPARATU EGINGO DIEGU LOREEI, TXORIEI ETA UDABERRIAN GERTATZEN DIREN ALDAKETEI.

HORREKIN LOTUTA, UDABERRIARI BURUZKO OLERKI ETA ASMAKIZUN BILDUMA BAT EGITEA PENTSATU DUGU. ZUEK EZAGUTUKO DUZUE, BEHAR BADA, UDABERRIAREKIN LOTURIKO OLERKI EDO ASMAKIZUNEN BAT. IDATZ EZAZUE ESKUTITZ BATEAN, ETA EMAN ZUEN SEME-ALABARI IKASTOLARA EKAR DEZAN. ZUEN LAGUNTZAREKIN, EDERKI OSATUKO DUGU GURE BILDUMA.

MILA ESKER!

TXIRRITX

Etiketrik ekartzen duten informazioa irakurri egingo diegu taldeari (edozein dela ere jatorrizko hizkuntza), eta txoko egoki bat antolatuko dugu, haurrek loreak ikus eta beha ditzaten. Gogoratu prestatutako material guztia bukaeran egingo dugun txokolatezko etxea apaintzeko erabiliko dugula!

BUKAERA

Bilduma osatzeko, denek elkarpenak (gurasoenak eta haurrek idatzitakoak) bilduko ditugu, eta harekin zer egin erabakiko dugu: liburuxka bat egin, txokolatezko etxea apaintzeko erabili...



Txokolatezko etxea

HASIERA

42. Ipuina gogoratu. Haurren ipuin-kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabiliko dira (ipuin dramatizatua hiru bider egin ondoren). Ondoren zehazten ditugun puntuen artean, isiltasuna lortzea dago. Estrategia bat baino gehiago erabili dezakegu isiltasuna lortzeko

PROZEDURA

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.
- Isiltasuna lortu. Horretarako, material osagarrietan dauden txartelez, edo hurrek beraiek egindakoez, balia gaitzke.
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuinaren pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren “arauak”.

Lehenengo lamina erakustean, tartetxo bat utzi, hurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *“Gogoratzen duzue ipuina?”*, *“Lagunduko al didazue ipuina kontatzen?”*.

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta hurrek parte hartzen badute, eurek egin lezakete narratzailearena.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu hurrei; gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Hurrek euren erara konta dezaten bultzatuko dugu. Esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez badira ere, onartuko ditugu, osatu eta ipuinean txertatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontaketa egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaketa hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzaile-lana egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzezpen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur bati zuzendu...

43. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: binaka/banaka
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

–Zer da gehien gustatu zaizuena? Eta gutxien?

Zerrendatu dezakegu, bi zutabetan, gehien eta gutxien gustatu zaizkien gauzak, eta, horien artean txokolatezko etxea ez bada agertu, horren erreferentzia egingo dugu zerrendan sartzeko. Izan ere, txokolatezko etxean jarri nahi dugu arreta.

- Bizi al daiteke txokolatezko etxe batean?*
- Gustatuko litzaizueke horrelako batean bizitzea?*
- Nola uste duzue egin daitekeela horrelako txokolatezko etxe bat?*
- Etxea txokolatezkoa izan beharrean, zerezkoa izatea gustatuko litzaizueke?*

Elkarrizketaren helburua honako hau da: denen artean erabakitzea txokolatezko edo gozokizko etxe bat sortuko dugula.

GARAPENA

44. Txokolatezko etxea

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: binaka/banaka
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetan proposatzen dugun proiektua txokolatezko etxe bat sortzea da. Jarduera honen bitartez, haren itxura nola irudikatzen duten azter dezakegu. Haur bakoitzak (edo talde txikietan) bere proposamena azalduko du, eta, ondoren, denen artean, proposamen komun batera iritsiko gara.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Txokolatzeko etxea buztinez eta/edo plastilinez egingo dugu. Buztinarekin gelan jardutea nahiko korapilatsua izan daitekeenez, jarduera hau egiteko plastikako gelara joatea izan liteke egokiena. Edozein kasutan, tarteka-marteka, besterik ez bada ere, anima zaitezte buztina erabiltzen, plastilinak eskaintzen ez dituen esperientzia asko bideratzen baititu.

Etxea eraikitzeko, *txorizoen sistema* erabil daiteke: buztinezko txorizoak egin eta, bata bestearen gainean jarritz, hormak eraiki. Plaka txikiak eginez ere munta daiteke etxea, beraz aukera hori eta eredu bat proposa diezaiekegu.

Hormak egin ondoren, teilatua jarriko dugu; elementu organikoak eta ez organikoak erabiliz, testura desberdinak lan daitezke. Teilatua apaintzeko, goxokien moduko bolatxoak egin ditzakegu.

Hala eta guztiz ere, etxea egiteko proposamen irekia egin behar dugu, produkzio guztiak ez daitezen berdinak izan.

45. Gure txokolatzeko etxea

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzeta: binaka/banaka
Materiala: KARTOIA, TENPERAK, PINTZEL LODIAK, MARGOAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Denon artean “txokolatzeko” etxe handi bat egingo dugu. Horretarako, kartoi zati handiak lortu behar ditugu.

Lana banatzeko orduan, taldeak sortzea da errazena. Lau taldetan banatzen badira, talde horietako bakoitzak pareta baten ardura har dezake.

Paretetan leihoak eta atea egingo ditugu; hezitzaileak marraz ditzake alde zurretik.

Etxea tenpera marroiaz margotu ondoren, bolumena duten elementuekin apainduko dugu:

- Etxea apaintzeko, goxokiak egingo ditugu. Bi eratakoak izan daitezke: batetik, egunkari orriekin pilotatxoak egin eta pinotxo paperean bilduko ditugu. Bestetik, sukaldeko edo komuneko paperaren kartoizko zilindroak erabil ditzakegu, koloretako paperez bilduz goxokien modura.
- Zetazko papera erabiliz, loreak egingo ditugu leihoetan jartzeko.
- ...

46. Txokolatezko leihoa(k) eta atea neurtzen

Helburu didaktikoak: I.1-2, II.23(MAT)-29(MAT)-30(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egiten ari garen txokolatezko etxeak ate bat eta leihoa beharko duenez, hurrei zalantza bat planteatuko diegu:

–Nola jakin dezakegu zer tamainatako atea egin behar dugun gure txokolatezko etxean sartzeko?

Galdera horretatik oso erantzun ezberdinak jaso ditzakegu; denak oso interesgarriak izan daitezke eta, agian, haurren interesa neurri eta tamainetatik aldentzen da, eta beste puntu batean zentratzen... Ez diogu horri garrantzirik emango, izan ere haurrak pentsatzen jartzea da interesatzen zaiguna. Beharrezkoa izango zaigu magnitudea bueltatzeko proposamena gogoratzea, baina prozesuan sortzen diren haurren hausnarketetarako denbora eman ez eta gorai patuz.

–Asko pentsatzen ari zarete, ez da erraza izaten egiten duzuen, oso ondo pentsatuta...

–Orduan, nola jakingo dugu atearen tamaina?

Haurren aldetik ez bada sortzen neurketa hori egiteko proposamenik, aukera batzuk eman diezazkiekegu.

–Zer erabili dezakegu neurtzeko?

–Eta gorputzaren atal batekin neurtuko bagenu?

–Zein atal? Sudurra? Belarria?

–Zer iruditzen zaizue eskuak erabiliko bagenitu gure neurria jakiteko? Jakingo al genuke horrela nolako atea egin behar dugun?

–Zer gertatuko litzateke nire (hezitzailearen) eskua erabiliko bagenu?...

Behin neurtzeko beharra sortuta, neurri horiek gogoratzeko mementoa iritsi zaigu.

–Zer egin beharko genuke neurri hori ez ahazteko?

Lehen bezala, hemen ere erantzun interesgarriak jaso ditzakegu: makilatxoak marraztu neurtutako esku kopurua gogoratzeko, gometak itsatsi, zenbakia idatzi...

47. Leihoa eta atea egin

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: binaka/binaka
Materiala: KARTOIA, TENPERAK, PINTZEL LODIAK, MARGOAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

Hartutako neurriez, etxearen leihoak eta atea markatuko ditugu, eta, ondoren, hutsuneak egingo ditugu *kuter* batekin.

Oso garrantzitsua izango da hurrek hartutako neurriei jarraitzea; horrela, hurrek emandako pausuei jarraituta bukatuko dugu prozesua.

48. Txokolatezko etxea apaintzen

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: binaka/banaka
Materiala: KARTOIA, TENPERAK, PINTZEL LODIAK, MARGOAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Apaintzeko mementoan erabakiko dugu benetako gozokiak erabiliko ditugun ala gezurrezkoak sortuko ditugun.

Haurrentzako oso erakargarria izango da benetako gozokiak jartzea, baina hezitzaileak erabakiko du zer komeni den.

Ez ahaztu udaberriko olerkien eta asmakizunen bilduma. Txokolatezko etxean itsatsi ditzakegu, apaingarri modura, edo, liburuxka batean jasota baditugu, etxeko atean zintzilika dezakegu denek ikus dezaten.

BUKAERA

Gurasoak gonbidatuko ditugu gure txokolatezko etxea ikustera eta probatzera.

49. Erakusketaren konbidapena

Helburu didaktikoak: III.6(H)-8(H)-9(H)-11(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 10. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Erakusketa prestatu ondoren, gurasoei gonbidapena bidaltzeko unea iritsi da. Haur bakoitzak bere gonbidapen-fitxa beteko du eta etxera eramango du.

Gonbidapen-fitxa betetzeko, eguna, ordua eta lekua zehaztu behar ditugu.

Beti bezala, gonbidapen testua aztertuko dugu komunikazio-egoeraren ezaugarriak zehaztuz: zertarako den, nori zuzenduta dagoen, zer jarri behar dugun... Eta guztia planifikatu ondoren, ekingo diogu idazteari.

50. Gurasoen iritzia

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-8, III.1(H)-6(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Materiala: KOADERNOA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Erakusketaren egunean, koaderno bat jarriko dugu mahai batean, gurasoek erakusketari buruzko beren iritzia idatz dezaten. Jarri aurretik, ideia azaldu beharko diegu haurrei: zertarako den, zer tokitan jartzen dituzten horrelako liburuak, zer iruditzen zaien, inon ikusi al duten, beraiek edo beren gurasoek inoiz horrelakoren batean idatzi ote duten...

Hurrengo egunean, gurasoek idatzitakoa irakurri egingo dugu gelan.

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Habia	Sorgina
Txepetxa	Harriak
Lorea	Egurra
Arrosa	Ogi-apurrak
Lilia	Dirua
Krabelina	Oilasko-hezurra
Bitxilorea	Behartsua
Txantxangorria	Argala
Txolarrea	Lodia
Kukua	Urruti
Kanarioa	Gertu
Lore sorta	
Erlea	
Liztorra	

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

- *Beldar gosetia*, Eric carle, Ikas
- *Gose handiko beldarra*, Eric carle, Kalandraka

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *La manzana y la mariposa. Lela eta enzo Mari.* Kalandraka
- *¿Todavía nada?*, Christian voltz, Kalandraka
- *Buruko hura nor egin zion jakin nahi zuen satortxoan*, Werner holtzwarth, Kalandraka

9. TXOTXAK TXOTX

Gaia: Auzoa eta erosketak

Iraupena: 4 aste

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: supermerkatua



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Gure auzoko/herriko dendak
2. Produktuen iragarkien aldizkaria

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.

Ipuinaren hasierak eta bukaerak

Hasiera:

“Munduan asko bezala...” edo “Gauza guztiek hizketan zekiten denboran gertatu omen zen...”

Bukaera:

“Haiek ondo bizi izan baziren gu ondo bizi izan gaitezten.” Edo “Aditzeko belarririk duenak aditu eta ikas dezala.”



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

HASIERAKOAK

1. Tradiziozko abestia: *Halako kalean*

Helburu didaktikoak: II.9, III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 13. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kantu hau herrien artean elkarri burla egiteko erabili izan da, *Halako* esan ordez, aldameneko herriaren izena erabiliz. Grabazioa mantsoa bada ere, haurrek abestia ikasten dutenean, lagunarte giroan bizi-bizi (burla moduan) kantatzekoa da.

HALAKO KALEAN

Halako kalean,
izkina batean,
hiru kaka mokordo
erreal batean,
erosi nahi duenak
eskaparatean.

2. Ikasnorabidea: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: GUZTIAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ARAKETA
Taldekatzea: TH
Materiala: 1. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

“Saltzen, saltzen, txakur txiki baten karameluak...”

Hara! Zer moduz zaudete, ene lagunak?

Erosketak egiteko prest al zaudete? Bai? Begira, begira zer dudan nire dendan zuei eskaintzeko:

- 1. Hasteko, ipuin bat. Zeri buruzkoa den ipuina? Aaaaaa! Nik pista txiki bat besterik ez dizuet emango. Ipuinaren izenburua hau da: “Sasi guztien gainetik”. Oso-oso polita da eta sorginak agertzen direla esago dizuet..., baina, sorgin txintxoak, e! Ipuina entzun ondoren, beti bezala, olerkiak, jolasak... egingo ditugu.*
- 2. Gero, denda mota desberdinak ikusiko ditugu, eta bakoitzean zer saltzen den jakiteko aukera izango dugu. Eta irtenaldi bat egingo dugu gure herrian/auzoan.*
- 3. Saltzeko eta erosteko zenbat diru behar den ikusiko dugu, eta iragarkiak aztertuko ditugu. Badakizue: “Eros ezazu halakoa,*

munduko onena da eta!", "Hau erosten baduzue aita eta ama bezain handiak egingo zarete!", "Bost eurotan munduko gauzarik politena eros dezakezue"... Horrelako iragarkiak landu eta aztertuko ditugu. Eta aldizkari bat egingo dugu!

4. *Horren ostean, supermerkatu bat antolatuk dugu gelan, kalean daudenak bezalakoak, eta erosketetan jolastuko dugu. Gainera, gure erosketak egiteko, hezitzaileak dirua banatuko digu, benetako txanponak eta billeteak bezalakoak!*
5. *Eta bukatzeko, beti bezala, zerbait gehiago ikasi edo ikusi nahi baduzue, irakasleari esan besterik ez duzue!*

*Ondo pasa, erosketa asko egin eta... kontuz ibili dirua galdu gabe!
Agur!*

Txirritx

3. Horma-irudia: Txotxak txotx

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10, II.11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dugu. Jolasa honen bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortu nahi dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusitua.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka KOGNITIBOAK

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritzia emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

4. Antzeppen kolektiboa: *Sasi guztien gainetik*

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzeppen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, eta kontakizunean izango duten ibilbideari buruzko hipotesiak formulatu galderen bitartez. Bestetik, antzeppen kolektiboan dauden arauak gogoratuko digugu. (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi jarduera konstanteak: antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

SASI GUZTIEN GAINETIK

	Behin batean, mendi arteko herrixka batean, Maren izeneko neskato bat bizi zen. Amonak sorginei buruzko ipuin asko kontatzen zizkion, eta Marenek esan zion:
Maren	Amona, nik ere sorginek bezala hegan egin nahi dut.
Amona	Horretarako, sorgina izan behar da, eta hori ez da hain erraza...
	Behin, erabaki bat hartu zuen Marenek: ipuinetan ikusten zituen sorginen tresnak erosiko zituen. Hala, bera ere sorgin egingo zen. Horretarako, ordea, dirua behar zuen. Amak galdetu zion:

Ama	Zertan ari zara, Maren?
Maren	Ikusten duzu, itsulapikoa puskatzen ari naiz. Sorgin-erratz erosi nahi dut.
	Maren, dirua poltsikoan sartu, eta supermerkatuara abiatu zen. Pasilloetan erratzen bila zebilela, saltzaile bat inguratu zitzaion:
Saltzailea	Zeren bila zabilta, neskato?
Maren	Erratz baten bila. Hegan egiteko da.
	Barkatu, baina guk ez dugu erratz hegalaririk saltzen!
	Ez kezkatu horregatik. Zuk emadazu daukazun erratzik ederrena!
	Maren poz-pezik itzuli zen etxera bere erratzarekin. Hartu zuen erratza hanken artean, eta terrazara atera zen. Salto txikiak ematen hasi zen, baina ezin zuen hegan egin. Amak galdetu zion:
Ama	Zertan ari zara, Maren?
Maren	Erratza erosi dut eta hegan egin nahi nuke. Baina ezin dut!
	Ondo pentsatu, Maren. Ez al zaizu beste zerbait falta?
	Zerbait falta? Erratza badut... A, bai!
	Amatxok arrazoi zuen: kapela falta zuen. Dirua poltsikoan sartu, eta dendara abiatu zen. Dendaria inguratu zitzaion eta esan zion:
Dendaria	Zeren bila zabilta, neskato?
Maren	Sorginen kapela nahi dut. Hegan egiteko da.
	Guk ez dugu sorginen kapelarik.
	Ez kezkatu. Emadazu punta zorrotza duen kapelarik ederrena, eta ni moldatuko naiz.
	Etxera itzuli zenean, erratza hanken artean hartu, kapela jantzi eta terrazara atera zen. Salto txikiak ematen hasi zen, baina ez zen hegan hasten. Amak esan zion:

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Ama	Zer gertatzen zaizu, Maren?
Maren	Erratza eta kapela baditut, baina ezin dut hegan egin!
	Ondo pentsatu, Maren. Sorgina izateko ez al zaizu beste zerbait falta?
	Beste zerbait? Erratza badut, kapela ere badut... A, bai!
	Amatxok arrazoi zuen, sorginen liburu magikoa falta zuen. Dirua poltsikoan sartu, eta liburu-dendara abiatu zen. Dendariak galdetu zion:
Dendaria	Zeren bila zabilta, neskato?
Maren	Liburu baten bila. Sorginen liburu magiko bat nahi dut.
	Badaude sorginei buruzko liburu batzuk, baina ez dut uste magikoak direnik.
	Ez du axola. Zuk emadazu horietako bat eta moldatuko naiz.
	Etxera itzuli zenean, erratza hanken artean hartu, kapela jantzi buruan, eta, liburua eskuetan zuela, terrazara joan zen. Salto txikiak ematen hasi zen, baina ezin hegan egin. Amatxok esan zion:
Ama	Zer gertatzen zaizu, Maren?
Maren	Ezin dut hegan egin! Zer falta zait, ama?
	Ondo pentsatu Maren.
	Ah, bai! Hegan egiteko, hitz magikoak behar ditut. <i>Erratz gainean, banoa hegan!... Kaka zaharra! Ezin dut!</i>
	Liburuan ez zuen hegan egiteko hitz magikorik aurkitu. Ganbarara igotzea pentsatu zuen. Leiho azpian zegoen kutxa zahar bat ireki zuen.
Maren	Ama, Ama! Aurkitu ditut! Aurkitu ditut! Hemen daude sorginen tramankulu guztiak.
Ama	Amona txikia zenekoak izango dira!
	Amonarenak? Sorgina al da ba?
	Marenek kutxako erratza, kapela, eta liburua hartu zituen. Liburuko hitz magikoak esan: <i>Sasi guztien</i>

	<i>gainetik, hodei ... eta hegan hasi zen Maren! Laino artean zihoala, beste sorgin hegalaria bat ikusi zuen.</i>
Amona	Baina Maren, zer egiten duzu hemen?
Maren	Kaixo, amona! Ni ere sorgina naiz! Hegan egin dezaket! Ganbarako kutxan aurkitu ditut zure txikitako arropak. Erakutsiko al didazu itzulipurdiak ematen?
	Nola ez ba, ilobatxo maitea. Elkarrekin hegan egingo dugu.
	<i>Eta hala bazan ez bazan....</i>

IPUINA AITZAKIA

5. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.1-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 12. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kanta lantzerakoan bi zati bereiz ditzakegu. Batetik, Marenen hitzak:

Sorgintxo, sorgintxo nahi dut izan,
 erratza gainean egin hegan.
 Nire amonak esan zidan:
 "Ezin duzu sorgintxo izan!"

Eta bestetik, amonaren erantzuna. Amonaren erantzuna kantatua baino, erreztatua denez, mimikaren bidez eskatuko diegu hurrei asma dezatela zer falta zaion Mareneri sorgina izateko.

SASI GUZTIEN GAINETIK

Sorgintxo, sorgintxo nahi dut izan,
 erratza gainean egin hegan.
 Nire amonak esan zidan:
 "Ezin duzu sorgintxo izan!"

3. ZEHAZTAPEN MAILA

“Oraindik ez,
zerbait falta zaizu
sorginen erratza izan behar duzu.”

Sorgintxo, sorgintxo nahi dut izan...

“Oraindik ez,
zerbait falta zaizu
sorginen kapela izan behar duzu.”

Sorgintxo, sorgintxo nahi dut izan...

“Oraindik ez,
zerbait falta zaizu
hitz magikoak esan behar dituzu.”

Sorgintxo, sorgintxo nahi dut izan
erratza gainean egin hegan.
Nire amonak esan dit alai:
“Sorgina, sorgina zara, AI AI AII!

6. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Atzamar-jolasean egiteko hiru elkarrizketa labur proposatzen ditugu. Zuen aldetik beste batzuk sortzera gonbidatzen zaituztegu.

1

	Amatxok arrazoi zuen, sorginen liburu magikoa falta zuen. Dirua poltsikoan sartu, eta liburu-dendara abiatu zen. Dendariak galdetu zion:
Dendaria	Zeren bila zabilta, neskato?
Maren	Liburu baten bila. Sorginen liburu magiko bat nahi dut.
	Badaude sorginei buruzko liburu batzuk, baina ez dut uste magikoak direnik.
	Ez du axola. Zuk emadazu horietako bat, eta moldatuko naiz.

2

	Maren poz-pezik itzuli zen etxera bere erratzarekin. Hartu zuen erratza hanken artean, eta terrazara atera zen. Salto txikiak ematen hasi zen, baina ezin zuen hegan egin. Amak galdetu zion:
Ama	Zertan ari zara, Maren?
Maren	Erratza erosi dut eta hegan egin nahi nuke. Baina ezin dut!
Ama	Ondo pentsatu, Maren. Ez al zaizu beste zerbait falta?

7. Galtza berriak

Helburu didaktikoak: I.1(H), III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 6. CDa, 14. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Gure ipuineko Marenek erratza eta kapela erosi ditu bere itxulapikoko diruarekin. Beste egun batean, amarekin dendara joan eta galtza berria erosi dute. Entzun zer gertatu zaion...

GALTZA BERRIAK

Galtza berriak, galtza berriak,
gaur goizean estrenatuak.
Ipurdiaren pare-parean
orain dauzkat urratuak.

La lara lala...

Galtza berriak, galtza berriak,
gaur goizean estrenatuak.
Belaun parean lokatzez dauzkat
futbolean zikinduak.

La lara lala...

Galtza berriak, galtza berriak,
gaur goizean estrenatuak.
Eskulanetan pintura gorritz
uste gabe margotuak.

8. Elkarrizketa-jolasa eguneroko bizitzarekin lotu

Helburu didaktikoak: I.5(H), II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko jardueran egoera bat antzestu dute, ipuinean jasotzen den egoera bat, hain zuzen. Orain, egoera hori bera haurren bizitzari hurbiltzea da jarduera honen helburua. Horretarako, antzeko egoerak bilatuko ditugu, baina gure errealitateko gatazkak sartuz eta gure izenak erabiliz.

9. Pertsonaiak. Memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5-16(MAT)-33(MAT), III.8-9
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Beste unitateetan egin izan dugun bezala, pertsonaien txartel guztiak eta haien izenak erabiliz, hainbat jarduera antola ditzakegu:

- Memoria-jolasa, kokapen espaziala eta memoria lantzeko.
- Pertsonaien txartelak eta izenak erlazionatu.
- Txartelak eta izenak erabiliz, sailkapenak egin: izenean “K” letra duten eta ez dutenen pertsonaia multzoak; animaliak direnak eta ez direnak...

Bestalde, gogoratu kaxetan gordeta dituzuen letrak erabiliz, zenbait jarduera antola ditzakezuela, pertsonaien txartelekin eta beren izenen txartelekin batera.

10. Pertsonaien horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11, III.7(H)-8(H)-9(H)-27(PLAS)-30(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: IPUINAREN PERTSONAIK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Pertsonaien hormairudia egingo dugu, eta hurrek margotu egingo dute argizarizko margoekin, tenperekin, edo nahi den bestelako teknikarekin.

Horma-irudia erraz egin daiteke gidaliburuko marrazkiak hartuz, eta irudiak handitzeko proiektorea erabiliz.

Pertsonaia bakoitzaren azpian haren izena idatziko dugu, eta hura aztertuko dugu:

- *Zenbat letra ditu Maren izenak?*
- *Bost letra dituen beste izenen bat ezagutzen al duzue?*
- *Maren izenean ageri diren letrak banan-banan hartu eta izen berriak asmatu.*

M (Matixa, Miren, Mohamed...)

A (Ainhoa, Ane, Amaia, Aitor, Adur...)

R (Rania, Rosa...)

E (Elene, Eki, Eneritz,...)

N (Nadia, Neide, Naiara, Nabil...)

Jarduera honetaz baliatuz, orain arteko pertsonaien izenak eta (piskanaka) baita hiztegi txartelak ere, alfabetoarekin erlazionatuko ditugu. Nahi izanez gero, fitxategi moduko batean ordena ditzakegu alfabetikoki.

11. Pertsonaien horma-irudia eta izena

Helburu didaktikoak: I.1.1, II.4-5, III.8(H)-9(H)-27(PLAS)-28(PLAS)-.29(PLAS)-30(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK,

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: PERTSONAIEN HORMAIRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren pertsonaia nagusiak diren Maren eta amonaren irudiak marraztu ditugu horma-irudian, eta horien azpian, izenak.

Orain, denon artean amonaren izena asmatuko dugu, antxumeen ipuinean egin genuen bezala.

Horma-irudia amaitutakoan, izenburua idatziko dugu.

12. Haurren ipuin-kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabili behar dira (ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren).

PROZEDURA

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Isiltasuna lortu. Horretarako, material osagarrietan dauden txartelez, edo hurrek beraiek egindakoez, balia gaitzke.
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuinaren pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren “arauak”.

Lehenengo lamina erakustean, tartetxo bat utzi, hurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *“Gogoratzen duzue ipuina?”*, *“Lagunduko al didazue ipuina kontatzen?”*.

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta hurrek parte hartzen badute, eurek egin lezakete narratzailearena.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu hurrei; gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Hurrek euren erara kontatu dezaten bultzatuko dugu. Esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez badira ere, onartuko ditugu, osatu eta ipuinean txertatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontakteta egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaktetaren hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzaile-lana egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzeppen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur zuzendu...

13. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Bi hanka baditut, baina oinik ez;
gerrikoa badut, baina gorputzik ez.
(galtzak)

Txiliku

Zer ote da beti lotuta ibiltzen dena?

(zapata)

14. Sekuentziekin jolasean

Helburu didaktikoak: II.268MAT), III.2(H)-3(H)-4(H)-5(H)-7(H)-8(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko unitate batean egin genuen bezala, ipuinaren sekuentzia bat aurkezten dugun bakoitzean, talde-antzerkian ikasi dituzten esaldiak errepikatzeko eska diezazkiekegu. Irakasleak narratzaileari dagokiona esango du, eta gainerako esaldiak hurrek.

Laminekin egiteko aukera batzuk:

- Bakoitzak gustukoen duen sekuentzia aukeratu eta aukeraketa horren zergatia adierazi.
- Sekuentziak desordenaturik eman, eta ipuina desordenaturik kontatu.
- Sekuentziak desordenaturik eman eta ikasleak ordenatu.
- Hasiera, korapiloa eta bukaera bereizi.
- Bukaerako lamina kendu eta bakoitzak bukaera berri bat asmatu.
- ...

15. Pertsonaiekin jolasten. Memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5, III.8(H)-9(H)-34(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetako pertsonaiekin batera, beste ipuinetako pertsonaien txartelak aterako ditugu, eta, letra mugikorrek erabiliz, horien izenak idatziko ditugu, letra kopurua zenbatu, eta gelakoen izenak eraiki ditzakegu.

Horrez gain, txartel horiekin egin ohi ditugun memoria-jolasak egin ditzakegu:

- Pertsonaien bikoteak aurkitu.
- Pertsonaia eta izena erlazionatu.
- Pertsonaia ezkutuaren jolasa egin.
- ...

16. Komikia

Helburu didaktikoak: I.11-12, III.8(H)-9(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 2. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Idazten hasi aurretik. Aurrezagutzak aktibatu. Talde handian, Ipuinaren pasartea gogoratu. Haurren bizitzarekin erlazionatu ditugun pasarteak gogora ekarriko ditugu.

Testua planifikatu. Talde handian, Maren eta amonaren arteko elkarrizketa gogoratuko dugu elkarrizketa-jolasaren bitartez; horrekin batera beste elkarrizketa batzuk sortuko balira, kontuan hartuko ditugu. Talde handian egindako ekarpenak arbelean jasoko dira. Ondoren, binaka jarrita, aukera horien artean bat aukeratu beharko dute. Bikote bakoitzak aukera bat idatziko du.

Testualizazioa. Aukeratutako mezua idatziko dute banaka. Ondoren, atsedean hartuko dute.

Berrikusi. Talde handian elkartuko gara egindako lana taldekoekin partekatzeko. Lana berrikusteko, fitxa handitu dezakegu, eta denen artean osatzeko ahalegina egin. Amaitzeko, bakoitzari bere lana erakusteko esango diogu, eta denen artean egindakoarekin alderatuko dugu.

17. Marenen aireratzea. Kokapena espazioan

Helburu didaktikoak: I.6, I.9, I.12, I.13, I.14, I.15, I.16-II.24(MAT), II.33(MAT)- III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Zenbakiak lantzean, normalean batetik gora hasten gara kontaktzen. Halere, bi norabideetan lantzea komenigarria dela iruditzen zaigu, zenbakiak era egoki batean buruz ikasi ahal izateko. Hori dela eta, denok buruan barneratuta daukagun aireratzearen *atzerako kontua* erabiliz, goitik beherako norabidea landuko dugu.

Marenen jolasa egiteko, klarionaz bi edo hiru marra egingo ditugu gelako zoruan. Haurrak ilaran jarriko dira batetik bestera tarte bat utziz, eta gu haien aurrean jarriko gara. Hurrei begira jartzen bagara, gure aginduak alderantziz bete beharko ditugu haurrak nahas ez daitezen; *eskuinera* esaten badugu *ezkerrera* salto egingo dugu, eta alderantziz. Beste aukera bat hurrei bizkarra emanda jartzea da, gure aginduak gure pausuei jarraituz betetzeko. Bigarren aukera hori izando da egokiena.

–*Maren eta amona hegan ikusi ditugu ipuinean. Maren amonaren txikitako erratzarekin eta kapelarekin, eta amona betiko erratzarekin. Baina, ba al dakizue zer egiten duten hegan hasteko? Ba, hamarretik zerora kontatu! Bai, alderantziz kontatu behar da hegan hasteko. Nahi duzuen zenbakitik hasi eta, zerora iristean... fiuuuuu, hegan denak! Probatuko al dugu?*

–*Espaziontzietan kontatzen duten bezala egingo dugu: bat bi hiru... esan beharrian, atzetik aurrera zenbatuko dugu. Guazen, ba, denek batera: Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei, bost, lau, hiru, bi, bat, zero!*

Aireratzeko keinua egin eta, besoak zabaldua, hegan joango bagina bezala egingo dugu, baina gure lekutik mugitu gabe.

–*Hara, zein polita den hegan egitea! Kontuz, hodei handi bat dago parean... Eskuinera! (Denek eskuinera salto egingo dute) Susto galanta hartu dugu!*

–*Kontuz, parean hegazkin bat dator! Ezkerrera!*

Eskema horri jarraituz, nahi adina luza daiteke jolasa. Nahi izanez gero, luzera adierazleak erabil ditzakezue: *tarte estua daukagu hegazkinen artetik pasatzeko, orain zabala, begira urrutira..., gertu txori bat...*

18. Marenen eta amonaren magia

Helburu didaktikoak: I.11, II.16(MAT), III.27(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxaren erdialdean ageri den kodea denon aurrean landuko dugu eta Txirritzek esaten duena azpimarratuko diegu: *Behatu ondo-ondo eta agindutakoaren arabera margotu!*

19. Artelana

Helburu didaktikoak: III.4(H)-16(H)-22(PLAS)-23(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 3. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Andy Warhol. Pintore eta zine-zuzendari estatubatuarra (Pittsburgh, 1929 – New York, 1987). Pop artearen ordezkari nagusietako bat izan zen. Irudi bera errepikatuz eta koloreak trukatzuz osatutako koadroak egin zituen. Gizarte estatubatuarren bizimoduaren ezaugarriarik alienagarrienak islatu nahi izan zituen bere obretan (*Marilyn*, 1962; *Musua*, 1963; *Elvis*, 1965...)

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Oraingo honetan, bi lan ekarri nahi izan ditugu, **Andy Warholen** *Recherche du Shoe perdu* (Galdutako zapataren bila) (1955) eta *Del Monte kaxa* (1964).

Artelan horietan, saldu eta eros daitezkeen objektuak dauzkagu. Haurrekin behatuko ditugu, eta zer gogorarazten dieten galdetuko diegu. Orain arte ikusi dituzten artelanekin alderatuz, zer desberdintasun aurkitzen dituzten, zein ote den bakoitzean erabilitako teknika, artelana denik iruditzen al zaien... Beti bezala, biografia irakurriko diegu (egokituta) eta artelanaren atzealdean itsatsiko dugu, artistaren argazkiarekin batera.

Zapata galduaren bila koadroa dela eta, hurrek soinean daramaten zapatilen antzik ba ote duten galdetuko diegu, noren zapatak diren, gizonezkoenak ala emakumezkoenak, bikoterik ba ote duten... Eta ondorengo jarduerara pasako gara.

Aurrerago, 42. jardueran, berriro aztertuko ditugu obra horiek, eta, aukera badugu, Andy Warholen lana ikusgai duen liburu eskuratuko dugu. Ondoren, hurrek iragarkiekin eta aldizkarietako irudiekin beren artelana edo iragarkia sortuko dute *collage* teknika erabiliz.

20. Zapaten jolasa

Helburu didaktikoak: 1.5-7-9-10-12-13-15-16, II.5
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: HAURREN ZAPATAK
Jarduera egiteko espazioa: PSIKOMOTRIZITATE GELA, JOLAS LEKUA

PROZEDURA

Txirritzek eskutitz bat utzi digu arbelean itsatsita:

KAIXO, LAGUNOK:

ZER MODUZ ZABILTZATE?

IKUSI DUGUN ARTELANEAN ZAPATA MOTA ASKO ZEUDEN, EZTA?
ORAIN JOLASTUKO DUGUN JOLASEAN ERE ZAPATA MOTA ASKOREKIN
IBILIKO GARA. ZUEN ZAPATEKIN!

BAI, BAI! ZAPATAK KENDU ETA IRAKASLEAK DUEN ZAKUAN SARTUKO
DITUZUE. ONDOREN, IRAKASLEAK URRUTI JARRIKO DITU, PILO BATEAN.
IRTEERA EMANDAKOAN, KORRIKA JOANGO ZARETE PILO HORRETARA,
ETA BAKOITZAK BERE ZAPATAK AURKITU BEHARKO DITU. GERO, JANTZI,
ETA KORRIKA IRTEERARA ITZULI BEHAR DUZUE.

ZAPATAK KENDU BAINO LEHEN, BEGIRATU ONDO-ONDO NOLAKOAK
DIREN!

ONDO PASA ETA EZ HARTU BESTE INOREN ZAPATARIKI!

TXIRRITX

Jolasaren dinamika barneratzeko, lehenik talde txikitetan egiten has daiteke, eta ondoren, talde guztiak batera.



Proiektua: supermerkatua

Unitate hohonetan proposatzen dugun proiektua egiteko, bi sekunetzia didaktiko proposatzen ditugu. Lehenik, supermerkatua zer den eta nola dagoen osatuta ikusiko dugu (produktuen sailkapena eta antolakuntza); bigarrenik, atal edo sail bakoitzean dauden produktuen azterketa egingo dugu: markak, motak...

21. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: I.2, III.1(H)-5(H)-6(H)-8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gutun bat idatziko diegu gurasoei, unitate honetan antolatu behar dugun supermerkatuak gauzak eskatuz. Haurrei banatuko diegu gutuna, eta, guztion artean, zer identifikatu edo ezagutzen duten galdetuko diegu (Txirritxen izenpea, esaterako), zertarako ote den, norentzat, noiz eraman behar duten... Eta irakurri egingo diegu, jakina.

Denboraz bidaltzeko gomendatzen dugu, gauzak biltzeko eta ekartzeko denbora emateko.

GURASO AGURGARRIAK:

DAGOENEN BADAKIT GEHIENAK POZEZ HARTZEN DITUZUELA NIRE GUTUNAK ETXERAKO LANAK PROPOSATUZ. EZ NUEN GUTXIAGORIK ESPERO! AZKEN FINEAN, ZUEN SEME-ALABEKIN LORTZEN DUZUEN ERLAZIO BEREZI HONEN BIDEZ, IKASTOLAN EGITEN DUGUN HAINBAT GAUZEN BERRI IZATEN DUZUE, ETA HORI BETI DA DENONTZAT ABERATSA.

GEHIAGO LUZATU GABE, ORAINGO HONETAN ZER ENKARGU EGIN BEHAR DIDAZUEN ARGITUKO DIZUET.

HONEZ GERO JAKINGO DUZUENEZ, AZKEN EGUN HAUETAN DENDAK, EROSKETAK ETA DIRUA LANTZEN ARI GARA. HORREKIN LOTURIK, SUPERMERTATU BAT ANTOLATU NAHI DUGU GELAN. HORRETARAKO, ETXEAN DAUZKAZUEN JANTZI ZAHARRAK ETA ONTZIAK BEHAR GENITUZKE: ZAPATA ETA JANTZI ZAHARRAK, POLTSAK, JANARIEN ETA PRODUKTUEN ONTZIAK ETA KAXAK (ESNE,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

ATUN, XABOI, BETUN, ARRAUTZA KAXAK...), PLASTIKOZKO BOTILAK
(EDARIAK, XABOIA...)

ZUEN LAGUNTZAREKIN, HIPERMERKATU EDER BAT ANTOLATUKO
DUGU!

ALDEZ AURRETIK ESKERRAK EMANEZ, JASO EZAZUE NIRE
AGURRIK BEROENA.

TXIRRITX

22. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA
Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Betiko moduan, Txoko txurian bilduko ditugu hurrek etxetik ekarritako materialak. Oraingo honetan, oso baliagarriak izango dira etxeko ekarpenak, eta lortzeko errezak ere bai: jogurt-potoak, galleta-kutxak, janari eta edarien edukiontziak (gurina, kakaoa, esnea...), jostailuzko fruituak eta barazkiak...



Gure auzoko/herriko dendak

HASIERA

23. Olerkia: *Denda*

Helburu didaktikoak: I.11, III.7(H)-8(H)-9(H)
 Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
 Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
 Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
 Taldekatzea: TH
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Denda oso bat
 Erosiko nuke nik
 Nire lagun guztientzat
 Den-dena goxokiz betea
 Amak dirua emango balit.

Joxan Ormazabal

Arbelean idatziko dugu hitzekin osatutako jolas hau, eta lerro bakoitzeko lehen letra lodiagoa egingo dugu, edo beste kolore batez. Lehen lerroko *Denda* hitza ere horrelaxe idatz dezakegu. Testua irakurriko dugu eta ea haurrak konturatzen diren hitz bera dela lehen lerroan horizontalki dagoen hitza eta lerro guztietako hasierako letrekin (bertikalki) osatzen duguna.

GARAPENA

24. Denden errotertuak

Helburu didaktikoak: I.11, III.7(H)-8(H)-9(H)
 Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
 Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
 Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
 Taldekatzea: TH
 Materiala: DENDAK (MATERIAL OSAGARRIA)
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Denda mota desberdinak daude: fruta saltzen dutenak, haragia saltzen dutenak, arraina saltzen dutenak... Nola dute izena aipatu ditugun horiek?*
 –*Zer denda gehiago bururatzen zaizkizue?*
 –*Non gustatzen zaizue gehien erosketak egitea?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Gidan ematen dizkizuegun ereduak fotokopiagailuan handituko ditugu, eta hurrei emango dizkiegu margo ditzaten. Aurretik, bakoitzean zer jartzen duen landuko dugu.

–*Zer uste duzue jartzen duela hemen? Zergatik uste duzue hori?*

–*Errotulu honen letraren bat ezagutzen al duzue?*

–*Bi errotulu hauen artean ba al dago berdintasunik edo ezberdintasunik?*

Errotulu horiek *Auzoko dendariak* jolaserako eta gelako supermerkatua antolatzeko erabiliko ditugu. Aukera baldin baduzue, behin hurrek margotu dituztenean, plastifika itzazu..

25. Jolas-kanta: *Auzoko dendariak*

Helburu didaktikoak: I.9, I.12, I.13, I.15- II.6, II.8- III.1(H), III.8(H), III.9(H), III.15(H), III.30(MUS), III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 15. ABESTIA, ERROTULUAK, TXARTELTZOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jolas hau egiteko, aurretik egin ditugun denden errotuluak hurren artean banatuko ditugu. Haur guztiak korroan jarriko dira, haur bat izan ezik, *erosketa egin* behar duena. Irakasleak paper bat emango dio haur horri, zer erosi behar duen adierazten duena; musika jarriko du, eta haurra korroaren inguruan saltoka hasiko da abestiaren erritmorara. Abestia bukatzean, irakasleak emandako mandatua zer dendatan erosi behar duen asmatu behar du.

Hurrei zer erosi behar duten jakiteko, erosketen txarteltxo batzuk proposatzen ditugu material osagarrietan. Plastifikatzen badituzue gehiago iraugo dute.

AUZOKO DENDARIAK

Auzoko kaleetatik
dendaz denda nabil,
zer erosi behar dudan
amak idatzi dit.

Ogia okindegian,
azokan sagarrak,
xerrak harategian,
eta botikan tiritak.

Legatza arrandegian,
jantzi-dendan galtzak,
loreak loradendan,
liburu-dendan arkatzak.

Kanta hau bukatzean,
oharra irakurri,

dendara joan lasterka
eta ongi erosi.

26. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-7(H)-8(H)-9(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

24. jardueran egin dugun gauza bera egingo dugu, igarkizunaren erakargarritasunaz baliatuz.

Don Ebaristoren
lanbidEa
zeiN
Den
Asmatu
nik eRosi
nik ordaIndu
eta berak sAldu.

27. Nora joan behar dute erosketak egitera?

Helburu didaktikoak: I.11-15-16, II.8-33(MAT)-34(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxaren ezker aldean ageri diren haurrak zer erosi pentsatzen ari dira: batek sagarra erosi nahi du eta besteak arraina.

–Zer ikusten duzue irudi honetan? Zer dago irudiaren ezker aldean? Zertan ari dira haurrak? Zer pentsatzen ari da bakoitza? Eta zer dago irudiaren eskuin aldean? Zer jartzen du errotuluetan? Zenbat haur daude? Eta zenbat denda?

–Lagunduko al diozue bakoitzari dagokion dendara joaten?

–Nola jakingo dugu nora joan nahi duten?

–Zergatik dira desberdinak haurren eta txiritxeren bokadiloak?

–Pentsatzen ari garenean, besteek entzuten al ditgute?

3. ZEHAZTAPEN MAILA

*–Ba al dakizue zer esaten ari zaigun Txirritx? Zer uste duzue esaten ari zaigula?
“Ooo, zuk ere badakizula ziur nago!” esaten ari zaigu. Beraz, har ezazue denok
fitxa, eta lanera!*

Fitxa osatu ondoren, denon artean saiatuko gara haur bakoitzak egin duen bidea hitzez adierazten (eskuinera, gora, ezkerrera, behera...).

28. Behin joan nintzen azokara

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 16. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txakur bat.
Txakurrak uau-uau.
Nik xaxa berari.
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen katu bat.
Katuak miau-miau,
txakurrak uau-uau.
Nik xaxa berari.
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
erosi nuen txerria.
Txerriak kurrin-kurrin,
katuak miau-miau,
txakurrak uau-uau.
Nik xaxa berari.
Eraman nion amari.

29. Erritmo-eskema. Orkestrazioa

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)-27(MUS)-28(MUS)-29(MUS)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)-53(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: KLABEAK, PANDEROA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Behin joan nintzen azokara abestiarekin orkestrazio simple bat egingo dugu, hasieran gorputza, eta ondoren klabeak eta panderoa erabiliz. Ezertan hasi aurretik, musika-tresnak aurkeztuko dizkiegu haurrei. Hasieran, nahiko zaila egiten zaie klabeak behar den bezala hartzea, eta gehienek bi makila balira

bezala hartzeko joera izan ohi dute. Hori dela eta, oso garrantzitsua da hasiera-hasieratik barneratzea nola hartu behar diren.

Hasiera-hasieratik, beste ideia garrantzitsu bat barneratu behar dute: musika-tresnak, bakar-bakarrik **zuzendariak** esaten duenean jo daitezke.

Bi taldetan banatuko ditugu haurrak. Klabeak jo behar dituztenek txaloka eskuz markatuko dute erritmoa, eta panderoa jo behar dutenek, izterretan txaloka joz.

dan **dan** **dan** **dan**
Behin joan nin-tzen a-zoka- ra

dan **dan** **dan** **dan**
e-rosi nu-en txa-ku- rra

doon

txa-ku-rrak...

(animaliaren onomatopeia denok ahoskatuko dugu: uau! - uau!)

doon

nik xaxa berari

dan **dan** **dan** **dan**
e-ra-man ni-on a-ma- ri.

30. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Azokan erosi nituen
ederrak nire ustez,
etxera etorri
eta jarri ninduten negarrez.

(tipulak)

31. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-4(H)-8(H)-9(H)-15(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Ba al dakizue, lehen, herrietan denda gutxi zeudenean, non erosten zituzten gauza gehienak? Ea asmatzen duzuen, a-zo-kan! Azokan, ia denetik eros zitekeen...

–Entzun ondo Igerabideren olerki hau. Ondoren eztabaidatuko dugu berak aipatzen dituen gauzak azoka batean erosi ote daitezkeen.

Azokara, azokara:
erosiko dut itsas usaina
eta belardien mingaina.

Azokara, azokara:
erosiko dut ilargiaren zotina
eta izarren kriskitina.

Azokara, azokara:
erosiko dut errekaaren antoisina
eta mendiaren lepo fina.

Azokara, azokara.

J.K. Igerabide

–Gustatu al zaizue? Asmatuko al dugu denon artean erosi ezin diren gauzen olerki bat?

Haurrek botatzen dituzten ideiak arbelean idatziko ditugu, ea zer sortzen dugun. Gorde nahi badugu, gure olerki eta igarkizunekin batera jasoko dugu, edota fotokopia bana eman etxera eraman dezaten.

32. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: kontsumorako hezkuntza

Helburu didaktikoak: II.4-15, III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Olerkian bezala, zuek ere gauza asko erosteko eskatzen al diezue amari eta aitari? Bai, ezta? Eta, batzuetan ez al zaizue gertatzen behar ez dituzuen gauzak erosi nahi dituzuela?

Hezitzaileak, bere txikitako oroitzapenak astintzen arituko balitz bezala egin eta...

–Ni txikia nintzenean, kaletik aitarekin eta amarekin nindoanean, askotan erakusleiho edo eskaparate bat ikusi eta behar ez nituen gauzak eskatzen nizkien:

-Ama, ama, erosiko al didazu hori?

-Hori? Zertarako nahi duzu? —esaten zidan amak.

-Erosi, erosi. Nik nahi dut! —esaten nion.

–Eta, ba al dakizue zer erantzuten zidan berak?

-Nik ere ilargia nahi dut, baina ezin dut erosi!

Ondoren, kontsumismoari buruzko elkarrizketa txiki bat izango dugu haurrekin: zenbat gauza erosten ditugun beharrik gabe, beste askok premiazko gauzak ere ez dituztela, haur askok jostailu bat bera ere ez dutela eta guk, berriz, jostailu pila ditugula soberan...

–Jostailu-denda bat ikusiko bazenute, zenbat gauza erosi nahiko zenukete? Gero, jostailu guztiekin jolas egiten al duzue?

–Zenbat jostailu dituzue etxean, erabiltzen ez dituzuenak?

–Begiratuko al zenukete, biharko, etxeko zenbat jostailu ez dituzuen erabiltzen?

Elkarrizketa bi egunetan planteatu dezakegu, begiratu aurretik eta ondoren. Interesgarria izango da ikusaraztea, zenbat jostailu eta gauza pilatzen dugun ezertarako.

33. Aitak bizikleta erosiko

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 6. CDa, 17. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

AITAK BIZIKLETA EROSIKO

Aitak bizikleta erosiko. Erosiko.
Bizikleta nolako? Nolako?
Bost gurpil biribileko.

Lehenengoa zertarako? Zertarako?
Aurrean ibiltzeko,
guapoena delako.

Bigarrena zertarako? Zertarako?
Guapoari laguntzeko,
langile ona delako.

Hirugarrena zertarako? Zertarako?
Erdi-erdian egoteko,
alferrena delako.

Laugarrena zertarako? Zertarako?
Hirugarrena bultzatzeko,
presa handia duelako.

Bosgarrena zertarako? Zertarako?
Azken gurpila izateko,
eta abestia bukatzeko.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Eta bostak zertarako? Zertarako?
Bizi-bizi ibiltzeko
eta alai kantatzeko.

–Ezagutzen al duzue bost gurpileko bizikletarik? Eta hirukorik? Nola deitzen diegu?

34. Kioskoko bitxikeriak

Helburu didaktikoak: I.7-11, II.8, III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 6. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

–Fitxa honetan egunkariak saltzen dituen kiosko bat ageri da, baina bitxikeriaz beteta dago. Aurkitu bitxikeria horiek eta esan zein diren (ahoz eta grafikoki).

Bitxikeriak topatzeko, talde txikitan (lau-bosteko taldeak) banatuko dugu gela. Haur bakoitzak bitxikeria baten berri eman beharko die taldekidei.

Marrazkian hainbat egunkari azaltzen direnez, horiei buruzko elkarrizketatxo bat egin dezakegu. Zein ezagutzen dituzten, etxean irakurtzen al dituzten, eurek ere begiratzen dituzten...

BUKAERA

35. Herriko azoka eta dendak ikusteko irtenaldia

Helburu didaktikoak: I.11, II.5-7-8-33-34, III.13(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZKEOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOAESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, AUZOA, HERRIA

PROZEDURA

Zeuen herrian azoka egiten bada, egun hori balia dezakezue irtenaldia egiteko, beti aberasgarriago izango baita.

Irtenaldiaren helburua izango da dendak ezagutzea, bakoitzean zer saltzen den ikustea..., eta beste helburu baterako ere aprobeztatuko dugu: herriko/auzoko planoak lantzeko.

Beti bezala, gogora ekarriko dugu nola ibili behar dugun kalean, aurreikusiko ditugu bidean topa ditzakegun arriskuak, semaforoak, zebrabideak...

36. Planoa eraiki

Helburu didaktikoak: I.11, II.5-8-33(MAT)-34(MAT), III.13(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: DENDEN IRUDIAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Santa Ageda bezperan egin genuen bezala, irtenaldia egin aurretik, plano baten bidez, nondik nora ibiliko garen adieraziko diegu hurrei.

Horretarako, paper zuri handi batean gure ibilbidearen plano marraztuko dugu hurrekin batera. Adibidez:

–Ea, ikastolatik atera eta ... kaletik enparantzarantz abiatuko gara, eta kale horetan zer denda dauden ohartuko gara.

–Enparantzan, azoka ikusi ondoren, elizarantz abiatuko gara ... kaletik barrena, eskuinera Kale horretan ere zer denda dauden ikusiko dugu.

–Eta bukatzeko, elizatik, ... kalea hartu eta ikastolara itzuliko gara.

Irtenalditik bueltan, plano osatuko dugu material osagarrian dauden denden irudiak erabiliz.

37. Auzoko dendak

Helburu didaktikoak: I.11, II.8-23(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/T1/B
Materiala: 7. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Irtenaldia egin dugu, denda motak ikusi ditugu, eta, orain, plano osatzen hasi aurretik, fitxan ageri diren dendetatik guk zein ikusi dugun zehaztuko dute hurrek. Marrazki bakoitzaren azpialdean utzi dugun espazio zurian, "X" bat marraztu, koloreztatu, edota "BAI" eta "EZ" idatz dezakete. Zeuek aukeratu zein sistema erabili!

–Zenbat denda azaltzen dira fitxan? Horietatik zenbat ikusi ditugu? Zenbat ez ditugu ikusi? Ikusi ez ditugun horiek, non aurki ditzakegu herrian?



Produktuen iragarkien aldizkaria

HASIERA

38. Elkarrizketa: produktuen iragarkiak

Helburu didaktikoak: II.8, III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Ohartu al zarete zenbat paper sartzen dizkiguten etxeko gutunontzian?*
- *Zertarako uste duzue sartzen dizkigutela hainbeste iragarki?*
- *Nola jakinarazten digute dendariak zer duten saltzeko?*
- *Zergatik uste duzue jartzen dituztela iragarkiak aldizkarietan eta egunkarietan?*
- *Begiratu al diezue inoiz iragarki horiei?*
- *Zer jartzen dute?...*

GARAPENA

39. Iragarkiak ezagutzen

Helburu didaktikoak: I.4-5-8, III.1(H)-4(H)-8(H)-9(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Etxeko gutunontzian sartzen dituzten iragarkiak ikastolara ekartzeko eskatuko diegu, eta ekartzen dituztenak aztertu eta txoko txurian bilduko ditugu.

Egunkariak eta aldizkariak eramango ditugu gelara; haurrek behatuko dituzte, eta ikusten dituzten iragarkiak moztuko dituzte. Lan hori talde txikietan egitea komeni da, elkarren artean eztabaida dezaten zein den eta zein ez den iragarkia, zergatik...

Ondoren, moztu dituztenen artean bat aukeratuko dute, beraiei gehien gustatzen zaiena (bakoitzak bat edota taldeak bat edo bi). Aukeratu dutenean, korroan eseriko gara eta aukeratutako iragarkia erakutsiko digute. Une hori baliatuko dugu aukeratu dituzten iragarkiak egokiak diren ala ez aztertzeko, zergatiak galdetzeko eta beraien iritziak jasotzeko:

- *Ba al dakizue zer jartzen duen hor?*

–Zer iragartzen du iragarki honek?

Bukatzeko, aukeratutako iragarkia arbelean zintzilikatuko dugu, eta moztutako besteak kaxa batean gordeko ditugu.

Interesgarria litzateke produktuak balioaren arabera, motaren arabera arabera... sailka ditzakegula azaltzea. Izan ere, iragarkien eskuorritan horrela agertu ohi dira.

Bestalde, telebistaz ikusten eta entzuten ditugun iragarkiei buruz ere hitz egingo dugu: zein gustatzen zaizkien, zergatik... Animatzen bagara, binaka edo hirunaka, telebista iragarki bat prestatzen jarriko ditugu, ondoren guztion aurrean antzez dezaten.

40. Zubiondo herrian

Helburu didaktikoak: III.1(H)- 15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENEA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea:Tt
Materiala: 6. CDa, 18. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

ZUBIONDO HERRIAN

Zubiondo herrian, xaguen kalean,
 denda bat ireki nuen nire etxepean;
 nahi nuena saltzeko, gogo nuenean,
 nahi nuena erosteko, asmo nuenean.
 Txokolate, galletak, edari goxoak.
 Dendan nuen fandangoa nire gustukoa.

Nire denda aurrean, espaloi erdian,
 xagutxoak bildu ziren igande gauean,
 nahi zutena jateko, gogo zutenean,
 nahi zutena edateko, asmo zutenean.
 Txokolate, galletak, edari goxoak.
 Dendan zuten fandangoa beren gustukoa.

Astelehen goizean, dendara sartzean,
 mermelada ikusi nuen botata lurrean,
 nahi zutena jateko, gogo zutenean,
 nahi zutena edateko, asmo zutenean.
 Txokolate, galletak, edari goxoak.
 Dendan zuten fandangoa beren gustukoa.

41. Iragarkietako irudien kollagea

Helburu didaktikoak: I.11, III.7(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)-21(PLAS)-22(PLAS)-23(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Unitatearen hasieran Andy Warholen bi lan behatu genituen. Orain, berriro ere, adierazpen mota horri so egingo diogu. Andy Warholi buruzko liburu bat eramango dugu gelara eta, aztertu ondoren, gure artelana egingo dugu.

Publizitate-diseinuarekin harreman handia eduki duen beste artista bat da Tom Wesselmann. Aukera izanez gero, eskuratu haren lana islatzen duen libururen bat ere, eta haurren eskura jarri, beha dezaten.

Haurrak taldekatuko ditugu egingo duten lanaren formatuaren edo neurriaren arabera. Gogoratu lanak planoan eta bolumenean ere eraiki ditzaketela.

Animatzen bazarete, argazki-kamera bat eskuratu, eta, produktuak nahi den moduan antolatuz, hurrek beren iragarki-artelana eraiki dezakete. Nahiz eta argazki batzuk gaizki enkoadratuta edo nolana aterako diren, lan ederra egin dezakezue; gaizki aterako diren argazkiak elkartuz, collageak eginez...

Argazkiak errebelatu ondoren, bakoitzak bereari testua jar diezaioke. Lan horiekin bilduma bat edo horma-irudi batzuk antola ditzakezue eta, ondoren, erakusketa bat eratu, edo, besterik gabe, pasilloetan ikusgai jarri.

42. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-2(H)-5(H)-12(H)-13(H)-14(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Zapata, liburu, izozki,
arropa, janari, argazki,
bideo, jostailu, goxoki,
lore, paper, altzari.
Begira nolako zerrenda!
Baina guztiei falta zaien izena
zein da?
(denda)

Hiru letraz osaturik dago
nire auzoko dendariaren izena.
Bi aldetatik berdin irakurtzen dela

esaten badizut
esan dizut dena.
(Ana)

Joxan Ormazabal

Beti bezala, hiztegi-txartelak erabiliz (edo gabe), haurrak igarkizunak asmatzera gonbidatuko ditugu, ahoz eta gorputz adierazpenez.

BUKAERA

43. Iragarkien aldizkaria

Helburu didaktikoak: I.4-5-8, III.1(H)-4(H)-8(H)-9(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: Tt

Materiala: 8. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Lan-koadernoan duzuen fitxa hau osatzeko era desberdinak egon daitezke, bai taldekatzeari dagokionean eta bai betetzeko erari dagokionean.

Fitxa osatzeko erabil ditzakezue moztutako iragarkiak, haurrek egindako marrazkiak edo baita produktu batzuen etiketak ere.

Talde txiki bakoitza supermerkatu edo hipermerkatu baten sail batez arduratu daitezke: etxetresnak, arrandegia, harategia, altzariak, jantziak... Bakoitzari dagokion saileko produktuak itsatsi edo margotu ondoren, horien salneurria idatziko dute izar horietan. Salneurriari dagokionez, kopurua eztabaidatu eta adostu dezakezue hurrekin, prezioaren inguruko hipotesiak eta beste landuz, edota, besterik gabe, eurek nahi dutena jarriz. (Nahi duten prezioa jartzen badute, ondoren, prezio errealekin konpara daitezke. Konparaketaren ondoren, diferentziei buruzko hausnarketa bat egin genezake. Zer gerta liteke prezio altuegia bada, zer baxuegia bada...

Nolanahi ere, erabakiak hartzen hasi aurretik, egokia litzateke gure gutunontzietara iristen diren mota horretako aldizkariak aztertzea. Argitu aldizkari horien funtzioa: nork ateratzen dituen, nor diren hartzaileak, nola iristen diren guregana...

Fitxa guztiak elkartuta, gure hipermerkatuko eskaintzen aldizkariak osatuko ditugu. Guztion artean eztabaidatu nola egin azala, aukeratu hipermerkatuaren izena, erabaki eskaintza noiz hasiko den eta noiz bukatu, helbidea eta telefonoa jarri...

Guk egindako supermerkatuan jarriko ditugu, benetako supermerkatuetan egiten duten modura.

44. Iragarkiak osatu

Helburu didaktikoak: I.11, III.1(H)-7(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTZIOA
Taldekatzea: binaka
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Aldizkaria osatu ondoren, soberan ditugun eta hurrek gehien ezagutzen dituzten iragarkiak aukeratuko ditugu, eta, ahal denean, testua eta irudia banatu egingo ditugu.

Segidan, haurrak binaka jarrita, prestatutako bi edo hiru iragarkiren testuak eta irudiak bereizita emango dizkiegu puzzlea osa dezaten; irudi bakoitzari dagokion testua jarri beharko diote.

45. Etiketen konparazioa

Helburu didaktikoak: I.5-12, II.3-5-6, III.5(H)-8(H)-9-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 9. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Gurasoei gure supermerkatua osatzeko gaiak eskatu dizkiegu. Horien artean etiketak aurkituko ditugunez, informazioaren azterketa txiki bat egingo dugu: zertarako diren (produktua identifikatzeko), zer informazio ematen diguten (edukia, izena/marka... letra mota, koloreak, marrazkiak, tamaina)...

Hiru jogurten etiketak ditugu fitxa honetan, eta etiketok informazio desberdina eskaintzen digute. Hirurei behatu eta jartzen duena irakurri (jar dezakeenari buruzko hipotesiak egin). Hiruren arteko konparazioa egin (berdintasunak/desberdintasunak) eta, ondoren, haur bakoitzari zein aukeratuko/erosiko lukeen eta zergatik galdetuko diogu. Zer irizpide erabili dituen kontuan hartuko dugu: marrubizkoa delako, handiagoa delako, naturala delako, asko balio duelako, gehiago dagoelako, merkeena delako, etiketa politena daukalako...



Proiektua: Supermerkatua

HASIERA

46. Elkarrizketa

PROZEDURA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Galderen proposamena

–Ba al dakizue zer diren supermerkatuak?

–Zer saltzen da supermerkatuetan?

–Zerrendatu dituzuen produktu guztiak supermerkatuko toki berean saltzen al dituzte?

–Arraina eta haragia batera?

–Zer izena du fruta saltzen den tokiak?

–Zer behar dugu gauzak erosteko?...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Lanbideen unitatean egin genuen bezala, hurrek erantzun ahala, esandako supermerkatuko atalak arbelean goitik behera idatziz joango gara, zerrendan; hurrek esandakoak zerrendatu ondoren, goitik hasita, banan-banan izendatuko ditugu eta bakoitzari buruz zer dakiten kontaraziko diegu.

47. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

“Erosi hori, ama, erosi,
bai, mesedez,
txintxo portatuko naiz.”
Dendara sartu, dirua atera
eta behar ez ditugun gauza asko
ez al ditugu erosten maiz?

Joxan Ormazabal

Hezitzaileak olerki labur hau irakurtzen duenean, komeni da dramatizazio handiz esatea hurraren hitzak (intonazioa, ahotsa...), haren ulermena errazteko.

GARAPENA

48. Erosteke dirua behar

Helburu didaktikoak: II.4-5-14, III.1(H)-8(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Elkarrizketan aipatu dugun bezala, edozein gauza erosteko dirua behar dugu. Hausnarketa txiki bat egin dezakegu, hurrekin batera, diruaren jatorriaz eta diruaren erabilpen arduratsuari buruz.

–Ba al daki norbaitek zer behar dugun gauzak erosteko? Zer egingo genuke dirurik gabe?

–Ba al dakizue, antzina, dirurik ez zegoenean, nola eskuratzen zituzten behar zituzten gauzak? (Trukeaz hitz egin dezakezue. Egun ere badira trukeaz baliatzen diren hainbat talde eta zerbitzu).

49. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Eskuz esku, dendaz denda,
Gure poltsikotik azkar joaten da.
Zer da?

(dirua)

Joxan Ormazabal

50. Gure supermerkatuako dirua

Helburu didaktikoak: II.3-8-16)(MAT)-17(MAT)-19(MAT)-25(MAT)-27(MAT)-28(MAT), III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: EUROKO TXANPONAK ETA BILLETEAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ezagutzen al dituzue txanponak?

–Eta billeteak?

Euroak aurkeztuko ditugu, txanpon bakoitzaren balioa adieraziz. Interneten eskura ditzakegu txanponen eta billeteen irudiak, eta horien kopiak egin eta plastifikatu.

Baina hori baino errealagoa eta egokiagoa izan liteke plastikozko txanponak erostea, material didaktikoa saltzen duten ohiko saltokietan salgai izaten direnak.

Nahi izanez gero, billeteak eta txanponak sailkatzea eskatuko diegu haurrei. Euro horiek haurren eskura utziko ditugu, gure dendan erabil ditzaten.

Tarteka, txanpon eta billete horien balioari buruzko hipotesiak landuko ditugu.

Balioak konparatu, ordenatu, arrazoiek hitzez adierazi, balio bat osatzeko txanpon txikiagoak erabili (10 euro osatzeko, 5 euroko bat, gehi 2 euroko bi, gehi euro bat...), erosketak egin, zer eros daitekeen kalkulatu..

3. ZEHAZTAPEN MAILA

51. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Diruari buruz hitz egiten bukatzeko, hona hemen Joxan Ormazabalek idatzitako olerki laburra pezeta desagertu eta euroa agertu zenean:

Agur pezeta
Agur libera
Agur duroa.
Zoazte, zoazte!
Badator, hemen da
Badator euroa

Joxan Ormazabal

52. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Diruari buruz esaera zahar pila aurki ditzakezue Gotzon Garateren *Atsotitzak* liburuan. Guk honako hiru hauek aukeratu ditugu:

Dirua baduzu, danak lagun.
Dirua irabaztea baino, gastatzea errazago.
Diruak kaka artean ere usain ona.

Esaera zahar horien esanahiari buruz hitz egiteko eskatuko diegu haurrei, ea ulertzen duten zer esan nahi ote diguten.

53. Zer ari da gertatzen hemen?

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-16(MAT)-18(MAT)-21(MAT)-23(MAT)-25(MAT)-27(MAT)-28(MAT), III.4(H)-5(H),16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZECOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 10. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egoera komunikatibo honek hainbat emaitza izan ditzake. Haur batzuk txanponik gabe dagoen haurren egoeraz jabetuko dira, auziari erantzun afektiboa edo elkartasunekoa emanez. Beste haur batzuk, alderdi afektiboaz gain, alderdi matematikoan ere murgilduko dira eta, matematikari dagokionez ere, erantzun posible asko jaso ditzakegu. Beti bezala, irudiaren behaketa sistematikoa bultzatuz, arrastoak interpretatuz, hipotesiak eginez, elkarrizketa garatuko dugu, elkarrengandik urrutira egongo diren erantzunak onartuz eta haurren buru-jarduera bultzatuz.

Egoera hau oso egokia zaigu beste testuinguru batzuetara orokortzeko ere: gehienetan (ingurua baloratu), gure artean bizitzeko adina diru eta baliabide izaten dugu, baina badira beste herri eta giza talde batzuk oso bestelako egoera batean bizi direnak. Oso urrutira joan gabe ere, gure inguruan gabeziak dituzten pertsonak aurki ditzakegu. Zergatik ote da hori? Zer egin dezakegu guk?...

Problemen ebazpenerako, IDEAL prozeduraren pausoak aplika ditzakezue kasu honetan: identifikatu, definitu, estrategiak aukeratu, aritu/ekin eta lorpenak ebaluatu.

Fitxan ageri diren haurrek duten diruarekin, eta jostailuen salneurriak kontuan hartuz, zer eros dezaketen eta zer konbinazio egin daitezkeen sakonduko dugu. Hitz egitean erabil itzazue lotura logikoak (*ez, eta, edo, ala*) eta zenbatzaileak (*bat, baten bat, batzuk, denak, guztiak*).

Erabakitzen d(it)uzuen soluzioa(k), fitxan grafikoki nola adieraziko l(it)u(z)keten galdetu haurrei, eta azkenik, taldeak erabakitzen duena, edota bakoitzak berea (zuek baloratu zer egokitzen den), irudikatuko dute paperean.

54. Txanponekin jolastuz

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-16(MAT)-18(MAT)-21(MAT)-23(MAT)-25(MAT)-27(MAT)-28(MAT), III.4(H)-5(H),-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA, PROBLEMEN EBAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lan-koadernoko proposamena egin ondoren, txanponak banatuko ditugu. Txanpon guztien balioa euro 1ekoa izango da. Gelako hainbat materialari ere prezioa jarriko diogu, 1/2/3/4 kopuruekin jolastuz. Modu horretan, zenbakien deskonpozizioa eta banan banako erlazioak landuko ditugu.

Adibidez: bi euroko gauza bat erosi nahi baduzu, zenbat txanpon beharko dituzu?

55. Aho-korapiloa

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-7(H),-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Kutxi-kutxi Mari Lutxi
zorra franko, diru gutxi,
diru franko, zorra gutxi,
Mari Lutxi, kutxi-kutxi.
Trukatruk, musutruk
trukatruk, musutruk
triki traka, kuku praka
barbara, barbara, pum!

56. Sekuentziak

Helburu didaktikoak: I.11, II.4-20(MAT)-26(MAT), III.3(H)-5(H)-7(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 11 eta 12. FITXAK
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

11. fitxa aurkeztean, zer adierazi nahi diguten galdetuko dugu, eta ea ordena egokia ote den adieraz dezatela. Sekuentzia aurkeztu zaigun ordenan kontatzeko eskatuko diegu ikasleei, denborazko lokailuak edota zenbaki ordinalak erabiliz.

–Zenbat bineta daude? Zer ikus dezakegu lehenengoan? Eta bigarrenean?... Ordena horretan egiten al dira erosketak? Nola izan beharko luke?...

Ondoren, sekuentziak moztuko dituzte, eta ordena egokian itsatsiko dituzte 12. fitxan. Horrela, istorioa ordena egokian kontatuko dute. Bigarren fitxa horretan ageri diren ordinalak eta lokailuak irakurri, eta nahi izanez gero, aditza eta hitz bakar bat erabiliz, irudi bakoitzaren azpialdean ekintza idatziko dugu. Hona adibide bat:

HASIERAN	ONDOREN	GEROXEAGO	BUKAERAN
otarrea hartu	galletak hartu	ordaindu	etxera joan

57. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Xelebrea da gure aita
erosketak egiten.
Joan da dendara
eta hasi da eskatzen:
bi litro porru, lau metro jogurt,
galleta erdi bat eta bi intxaur,
esne gorria, kafe txuria
eta bost kiloko baratxuria.
Hori entzun eta
barrez lehertu zen ia
Ebaristo dendaria.

Joxan Ormazabal

–Zergatik pentsatzen duzue barrez lehertu zela ia Ebaristo dendaria?

58. Supermerkatuako produktuak sailkatzen

Helburu didaktikoak: II.4-5-8-16(MAT), III.9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: TXOKO TXURIAN BILDUTAKO MATERIALA
Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Haurrek etxetik ekarri dituzten gauza guztiak supermerkatu batean egon ohi diren sailetan sailkatuko ditugu: esnekiak, drogeria, jantziak, oinetakoak, fruta-denda, kontserbak... Horretarako, taldeak antolatu ditzakegu. Talde bakoitzak sail baten ardura har dezake.

Dirua banatuko duen banku bat ere antolatuko dugu; horren ardura ere hartu beharko du beste talde batek.

Sailkapen-irizpidea guztion artean erabakiko dugu eta, horretarako, errealitatean ezagutzen dituzten denden antolaketari egingo diogu so.

59. Supermerkatuako produktuak asmatzen

Helburu didaktikoak: III.7(H)-8(H)-9(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honen bitartez, hitzekin jolas bat egitea proposatuko diegu haurrei. Supermerkatuan produktu errealak saltzeaz aparte, aukera izango dugu gustatuko litzazkigukeen produktuak asmatzeko. Hona hemen adibide batzuk: **matxokorron** (txokolatzeko makarroiak), **muxugoxo** (amaren muxuen mermelada-potoa), **zorritururu** (zorriak beldurtzeko turuta).

Asmakuntza horiek egiteko, haurrak talde txikietan jarriko ditugu. Produktuak asmatu, eta idatzi egingo dituzte horien izenak; horretarako, hezitzailearen laguntza izango dute. Bukatzeko, produktu horien marrazkia egitea proposatuko diegu, horrela, gure supermerkatuako produktu berrien aleak izango ditugu.

Hitz batzuk silabaka banatuta prestatuko ditugu. Haurrak taldeetan banatu, eta anima itzazue hitz berriak sortzera. Oso gauza xebreak sortuko dituzue.

60. Asmatutako produktuen salneurriak

Helburu didaktikoak: II.4-5-25(MAT)-29(MAT), III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: Tt

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Taldea asmatu dituzten produktuei salneurria jarri behar diegu. Izan ere, supermerkatuan dauden produktu guztiek bezala, salneurri bat behar dute.

Taldeak mantenduz, salneurri bat proposatuko dute, eta, ondoren, talde handian, konparazioak egingo ditugu: zein den garestiagoa, zein merkeagoa, zergatik...

61. Supermerkatua antolatu

Helburu didaktikoak: I.9, II.4-5, II.8, III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: TXOKO TXURIKO MATERIALA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurretik prestatu ditugun errotuluak erabiliz, gelako supermerkatua antolatuko dugu.

Txokoetan gauden bitartean, haurrek era librean jolas dezaten bi arduradun izendatuko ditugu, sail bakoitzean eta gelako *bankuan* (zerrendaren arabera txandak antola ditzakegu).

Arduradun horiek salgaiak prestatu eta ordenatu beharko dituzte. Kontuak eta erosketa-zerrendak egiteko, presta itzazue txartel batzuk eta, lokarriz lotuta, jar itzazue toki jakinetan arkatzak, boligrafoak...

62. Supermerkatuako salneurri-txartela

Helburu didaktikoak: II.4-5-8-25(MAT), III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Gelako supermerkatua antolatu ondoren, salneurri-txartelak prestatzeari ekingo diogu. Era askotara egin daitezke:

- Guk prestatutako kartulinetan haurrek salneurriak errotulagailuz idatzi.
- Irakaslearen karpetako zenbaki mugikorak fotokopiatu, eta haurrek nahi dituzten zenbakiak moztu eta itsatsiko dituzte collage moduan.
- Kartulina edo orri handi batzuetan, sailez sail, bertan dauden produktuen zerrenda idatzi eta alboan prezioak jarri.

Nolanahi eginda ere, prezioei buruzko eztabaida piztuko dugu, haurrek kopuruen arteko konparaketak egin ditzaten. Taldekatzeari dagokionez, denen artean erabaki daitezke prezio guztiak, edota talde txiki bakoitzari sail baten ardura eman.

–Zer salduko dugu garestiago? Eta zer merkeago? Zergatik?

–Posible al da arroz pakete batek galtza batzuk baino gehiago balio izatea?

63. Denetik saltzen dugu

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 6. CDa, 19. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

DENETIK SALTZEN DUGU

Denetik saltzen dugu:
 porruak eta tipulak, sagarrak,
 marrubiak, udareak, gereziak.
 Onenak eta merkeenak.
 Lorategiko loreak:
 arrosak, krabelinak,
 liliak eta jasminak.
 Lorerik politenak.
 Onenak eta merkeenak.

64. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kilo
metro
litro
saldu
erosi
ordaindu
eta kito!

Joxan Ormazabal

65. Elkarrizketa: kilo/gramo, metro, litro

Helburu didaktikoak: II.29(MAT)-30(MAT), III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Nahiz eta lau urteko haurrentzat kontzeptu zailak izan, neurri hauei buruz dituzten ideiak kanporatzen saiatuko gara. Bestetik, oso egokia litzateke, denda dela eta, neurtzeko tresnak haurren eskuetan jartzea: balantza, beste mota bateko pisuren bat, likidoak neurtzeko potoak eta metro bat, nahiz eta luzera neurtzeko gai gutxi izango dituzuen (oihalak, egur zatiak, aroztegia jartzen baduzue...). Bestalde, etiketetan edukiera-neurria azaltzen denez (esne-kaxak, mermelada-potoak, jogurtak...), horien behaketa eta konparaketak egin ditzakezue.

- Ba al daki norbaitek zer diren kiloak? Eta litroak?*
- Aitak eta amak sagarrak eroatera doazenean, nola eskatzen dute: “Emadazu “litro” bat sagar” ala “Emadazu “kilo” bat sagar”?*
- Eta esnea eroatera doazenean, “kilo” bat esne ala “litro” bat esne eskatzen dute?*
- Eta ba al dakizue zertarako diren metroak? Eta litroak? Eta kiloak?*
- Gogoratzen al duzue etxeko guztien pisua eta neurria idatzi zenutela fitxa batean? Pisua nola adierazten genuen, litrotan?*
- Gurasoekin erosketak egitera joaten zaretenean, zer egiten duzue edo zer egiten du dendariak frutarekin? Balantzan/pisuan pisatzen dugu, eta balantzak zenbat kilo*

*dauden adierazten digu. Eta esnea erosten dugunean, balantzan jartzen al digu?
Ala metroarekin neurtzen digu?*

66. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: I.6-7-15, III.14(H)-26(MUS)-27(MUS)-28(MUS)-30(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 6. CDa, 20. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

HAYDN, Koarteto op 3, 5. Serenata.

Haydn, Franz Joseph. Konpositore austriarra (Rohrau, Austria Beherea, 1732 – Viena, 1809). Barrokoaren amaiera eta erromantizismoaren hasiera ezagutu zituen. Sinfoniak, koartetoak, operak eta oratorioak idatzi zituen. Koarteto eta sinfonien egitura klasikoa finkatzen lan egin zuen (*Kreazioa*, 1795-97; *Urtaroak*, 1801; *Erlojuaren sinfonia*).

Musika honekin eszenifikazio txiki bat antola dezakezue. Zuek edo haurrek asmatua izan daiteke, bestela, hona hemen ideia bat:

Haur bat azokara erosketak egitera doa bere otarrearekin (musikaren erritmoan mugitu), alai eta lasai. Bidean eta azokan jendea agurtzen du burua mugituz. Sagarrak erosi nahi ditu. Eta ez daki zer erosi. Postuz postu dabil sagarrak begiratzen... Halako batean, urruti samarreko postu batean, sagar handi, gorri ederrak ikusten ditu; gerturatzen ari dela, haien usaina sentitzen du, aurpegia gehiago alaitu zaio. Iritsi da postura eta sagarrak banan-banan hartuz eta usainduz otarrean sartzen ditu. Azkenik, ordaindu eta badoa poz-pezik etxera.

67. Bakoitzetik zenbat?

Helburu didaktikoak: II.23(MAT)-25(MAT), III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 13. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

–Fitxako bi haurrek hainbat gauza daramate beren karroan. Zenbatu erositakoak, eta asma ezazue zer idatzi dien amak erosketetako zerrendan.

–Zer erosteko eskatu die amak? Eta zenbat bakoitzetik? Zenbatu, eta idatzi kopurua marrazki bakoitzaren aurretik.

–Zail samarra da, bai, baina ziur lortuko duzuela!

BUKAERA

68.Jolastera: rolen banaketa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5-21(MAT)-23(MAT)-24(MAT)-25(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: DENAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: argazki kamera: 14. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Dena prest daukagunean, jolasten hastea besterik ez zaigu gelditzen. Proposamen honetan ez dizuegu gonbidapenerako prozedura azaltzen, baina animatzen bazarete, senideak gonbida ditzakezue.

Interesgarria litzateke jolasaren arauak adostea hurrekin.

Amaitzeko, gure supermerkatuaren izena asmatuko dugu, eta argazkia egingo dugu, lan-koadernoko fitxan itsasteko.

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Okindegia	Maren
Arraindegia	Amona
Frutategia	Ama
Harategia	Dirua
Jantzi-denda	Erosi
Botika	Itsulapikoa
Loradenda	Erratza
Kioskoa	Kapela
Dirua	Liburua
Erosketen zerrenda	Supermerkatua
Argazki-denda	Saltzailea
Aurrezki kutxa	Liburu-denda
Kutxazaina	Ganbara
Liburu-denda	Kutxa
Supermerkatua	Kobazuloa

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

- *Kokoriko*, Marisa Nuñez, OQO
- *Gose handiko beldarra*, Eric Carlé, Kalandraka
- *Beldar gositya*, Eric Carlé, IKAS
- *Katalin erosketak egiten*, Liesbet Slegers, Ibaizabal
- *Marilitzar eta hiru hartzak*, Gedra Muller, Ttartalo
- *Garbancito*, Olalla González, Kalandraka

10. URAREKIN JOLASEAN

Gaia: Urarekin jolasean
Iraupena: Ekaineko 4 asteak

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: uraren tailerra

Proiektu honen helburua bikoitza izango litzateke, alde batetik uraren ezaugarriak ezagututa zer animaliak bizi daitekeen uretan ezagutzea eta bestetik, 5 urteko gelarako gure arrainontzia prestatu, modu honetan bi kurtsoen arteko lotura egingo genuke.



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Urari buruz
2. Ibai eta itsasoko uretan bizi diren arrainak, ARRAINONTZIA

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.

Ipuinaren hasierak eta bukaerak

Hasiera:

“Munduan asko bezala...” edo “Gauza guztiek hizketan zekiten denboran gertatu omen zen...”

Bukaera:

“Haiek ondo bizi izan baziren gu ondo bizi izan gaitezten.” Edo “Aditzeko belarririk duenak aditu eta ikas dezala.”



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.9, II.1(I)-10(I)-11(I)-12(I)-15(I), III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: Horma-irudia

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dugu. Jolasa honen bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortu nahi dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

OHARRA: Planifikatuko dugun jarduera ez da egun bakar batean aurrera eramateko, unitatean zehar lantzeko baizik.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?

- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

OHARRA: Elkarrizketa egitean, hainbat hurrek zaila izaten dute erantzuna ematea hizkuntzaren muga edo garapen-maila dela eta. Arazo hori ekiditeko estrategia izan daiteke galdera bati bi erantzun posible ematea.

-Zuek non bainatzen zarete udan?

-Herriko piszinan bainatzen al zarete? Ala hondartzan?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Ikasnorabidea: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: guztiak

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: 1. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

TXIRRITX kilkerraren azalpenak:

Kaixo, lagunak!

Dagoeneko oporrak usaintzen hasiak izango zarete, ezta? Alde batetik pozik nago, baina, beste alde batetik, triste samar. Pozik nago berehala opor luzeak izango ditugulako. Baina ba al dakizue zergatik nagoen triste? Bada, oporretatik bueltan ez zaretelako nirekin egongo! Oso handiak egiten ari zarete eta!

Orain azalduko dizuet zer asmo ditugun ikasturteko azken egun hauek ikastolan igarotzeko.

- 1. Lehenik eta behin, ura atsegin ez zuen eta narrats samarra zen haur baten ipuina entzungo duzue. Eta ipuinaren ondoren, beti bezala, olerkiak, igarkizunak, fitxa batzuk...*
- 2. Segidan, urari buruz hainbat kontu ikasiko ditugu, nondik datorren, non egoten den, nolakoa den, ur motak, etab.. Ba al dakizue nondik datorren ura? Eta zer ezberdintasun ote dagoen itsasoko uraren eta ibaiko uraren artean? Nolakoa da erreka? Eta ibaia? Eta itsasoa? Eta zer da ur geza? Eta gazia? Lasai, lasai, URAREN TAILLERREAN dena ikasiko dugu eta!*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

3. Ondoren, hainbat arrain mota ikusiko ditugu. Arrainak bakarrik ez, uretan bizi diren beste izaki batzuk ere bai!
4. Eta, bukatzeko, 5 URTEKO GELARAKO ARRAINONTZIA prestatuko dugu, urari buruz eta uretan bizi diren animaliei buruz ikasi ditugun gauza guztiak kontuan hartuta. Oporrei buruz hitz egingo dugu eta... datorren urtean izango duzuen lagun berria ezagutuko duzue! Nor izango den? Bai, nire ondoan dagoena da. Laster ezagutuko duzue!

Ikusi duzuen bezala, oraingo honetan ez dut lauki txuri bat utzi zuek nahi duzuen lantzeko. Zergatik? Bada, oporrak gainean ditugulako eta denbora gutxi gelditzen zaigulako.

Oporretara joan aurretik berriro zuekin izango naiz! Asko ikasi!

Txirritx

3. Antzezen kolektiboa: Jon Zikinen anaia

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu eta hauek istorioan zehar izango duten ibilbideari buruzko hipotesiak formulatu galderen bitartez. Bestetik, antzezen kolektiboan dauden arauak gogoratu... (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu.)

Ikusi jarduera konstanteak: antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

JON ZIKINEN ANAIA

	<i>Behin batean, bazen Jon izeneko mutil narras bat. Beti zikin-zikin ibiltzen zen eta horregatik Jon Zikin deitzen zioten guztiak. Bazkaltzean ere zikinkeriak egiten zituen.</i>
Ama	Faborez, Jon! Ez itzazu makarroiak hatzekin jan!
Jon Zikin	Jo, ama! Hatzekin janda goxoagoak dira makarroiak!
	<i>Kalean ere, topatzen zituen putzu guztietan sartzen zen..</i>
<i>Benetan gozatuz.</i>	Hara, putzua! Plisti-plasta, plisti-plasta! Eta beste

<i>Abestia abestuz.</i>	<p>putzu bat! Plisti-plasta, plisti-plasta! Hau gozamena!</p> <p><i>Zikin, zikin, zikin, lokatzetan. Plisti eta plasta putzuetan.</i></p> <p>Hara, nire zapatak! Eta nire galtzak! Zer zikinak!!!! Eta amatxok, zer esango du orain amatxok?</p>
	<i>Eta etxera itzuli zenean, amatxok esan zion:</i>
Ama	Baina, Jon! Zein zikina zatozen! Non ibili zara?
Jon Zikin	Putzuetan jolasean!
	<p>Putzuetan, putzuetan! Emango dizut nik zuri putzua!</p> <p>Ea, erantzi arropa hori eta sartu bainuontzian! Agudo, demonio!</p>
	Ama, mesedez! Bainurik ez! Urak busti egiten nau! Ez zait gustatzen!
	Nola ezetz! Oraintxe bertan bainuontzira!!!
	<i>Horrela ibiltzen zen beti Jon Zikin, zikin-zikina. Bere gela ere narras-narrasa izaten zuen. Baina, egun batean, Maitagarri etorri zitzaion:</i>
Maitagarri	Baina, baina, zer da hau?? Hau gela narratsa!! Tira, tira, nik txukunduko dut gela, eta zu zoaz lorategira zure anaiarekin jolastera.
Jon Zikin	Nire anaiarekin? Ez da posible, nik ez dut anaiarik eta...
	Bai, baduzu, lorategian aurkituko duzu. Zuk nor den ez badakizu ere, berak ezagutuko zaitu. Tira, zoaz!!
	<i>Jon Zikin lorategira joan zen eta lokatzetan jolasean hasi zen. Handik pixka batera, katagorri bat azaldu zen.</i>
Jon Zikin	Kaixo, katagorria. Zu al zara nire anaia?
Katagorria	Ni zure anaia? Ezta pentsatu ere! Nik ilea garbi-garbia dut eta zuk zikin-zikina. Nola izango naiz ba zure anaia? Esatea ere! Agur!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	Tira ba, katagorria ez da nire anaia. Lokatzetan jolasean jarraituko dut.
	<i>Geroxeago, txori txiki bat etorri zen hegan.</i>
Jon Zokin	Kaixo, txoria! Zu al zara nire anaia?
Txoria	Txio-txio-txio. Ni zure anaia? Ezta pentsatu ere! Nik lumak txukun-txukun ditut eta zu, berriz, zikin-zikina zaude. Nola izango naiz ba zure anaia? Esatea ere! Agur!
	Tira ba, txoria ere ez da nire anaia. Lokatzetan jolasean jarraituko dut.
	<i>Handik pixka batera, katu dotore bat azaldu zen.</i>
Jon Zikin	Kaixo, katua! Zu al zara nire anaia?
Katua	Miau! Miau! Ni zure anaia? Ezta pentsatu ere! Nik egunero garbitzen dut nire ilea; zu, berriz, ez zara inoiz bainatzen. Zorritsu halakoa! Nola izango naiz ba zure anaia? Esatea ere! Agur!
	Tira ba, katua ere ez da nire anaia. Lokatzetan jolasean jarraituko dut.
	<i>Geroxeago txerri bat azaldu zen kurrinka.</i>
Txerria	Kurrin- kurrin. Egun on, anaia!
Jon Zikin <i>Buruari jira eginez norbaiten bila.</i>	Anaia? Non dago zure anaia? Hemen ez dago inor. Nori diozu hori? Niri? Ni ez naiz zure anaia!
	Kurrin-kurrin. Bai horixe! Txerrioi asko gustatzen zaigu lokatzetan jolasean ibiltzea, eta zu ere lokatzetan zikin-zikin eginda ari zara.
	Gezurra, gezurra! Ni ez naiz zure anaia!!!
	Bai horixe! Ni txerria banaiz zu ere txerria zara. Egin kurrin-kurrin nik bezala.
	Ez dut nahi! Nik ez dut txerria izan nahi! Niiii, ñiiii!
	<i>Jon Zikin etxera itzuli zen korrika. Bere gelan sartu zenean Maitagarrik txukun-txukun utzi zuela ikusi zuen.</i>

Maitagarri	Begira zein txukun eta garbi utzi dizudan gela, Jon.
Jon Zikin	Ñiiii, ñiiii!
	Zergatik egiten duzu negar, Jon? Ez al zaizu gustatu gela txukuna, ala ez al zaizu gustatu zure anaia?
	Nik ez dut anaiarik! Ni ez naiz txerria! Ni ez naiz txerria!
	Beno, beno, hori zure esku dago, Jon. Zeuk aukeratu zer nahi duzun, zikina izan eta lorategian txerriarekin jolastu, ala etxean gelditu eta garbia izaten ikasi.
	Garbia izaten ikasi! Dударik gabe! Nik ez dut txerriaren anaia izan nahi!
	<i>Eta handik aurrera garbi eta txukun-txukun ibili zen Jon. Eta inork ez zion gehiago Jon Zikin deitu Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan....</i>

IPUINA AITZAKIA

4. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENEA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 21. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

JON ZIKIN

Maitagarri batek behin esan zion:
 “Txukundu nahi nuke zure gela.
 Faborez, jolastu anaiarekin,
 eta zoaz kanpora, Jon Zikin”.

*Zikin, zikin, zikin
 lokatzetan.
 Plisti eta plasta
 putzuetan.*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Katgorri batek,
“Ez”, esan zion,
“Jon Zikin, ez naiz zure anaia”.
Berdin esan zion
txantxangorriak:
“Gu beti izan gara garbiak”.

Zikin, zikin, zikin...

Teilatu gainean,
miau-miauka,
katua begira geratu zen.
“Ni zure anaia?
A zer gezurra!
Garbi daukat muturra”.

Zikin, zikin, zikin...

Txerriak Jon Zikin
agurtu zuen:
“Kurrin, kurrin, anaitxo maitea”.
Etxera sartu zen
Jontxu negarrez,
“Ni ez naiz, ez, txerria”, esanez.

5. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: osasunerako hezkuntza, garbitasuna (higienea)

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-7-III.4(H), III.5(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: IPUINAREN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Gustatu al zaizue ipuina? Zuen ustez, zer mezu ematen digu?

–Zuek ere jatean hain narratsak al zarete?

–Eta kalean putzuz putzu zikintzen ibiltzen al zarete? Batzuetan bai, ezta? Baina ziur gero ez duzuela protestatzen baineran sartzerakoan, ala bai?

–Jostailuekin jolastu ondoren, txukuntzen al duzue gela, ala Jon Zikin bezalakoak zarete?

–Aitak eta amak gauzak jasotzeko esaten dizuetenean, kasu egiten al diezue?

–Gogoratzen al duzue Jonek zenbat animaliei galdetzen dien bere anaiak ote diren? Zein dira animalia horiek?

6. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txerri bat badaukagu
zikina benetan,
baineran sartu dugu
gaur ur epeletan.
Baina txerria beti
txerrikerietan,
pixa eta kaka ere
egin ditu bertan.

Joxan Ormazabal

7. Zikina / garbia

Helburu didaktikoak: I.7, II.7-16(MAT)-17(MAT), III.16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 2. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan, beste marrazkien artean Jon ageri da. Alde batean, zikin-zikina, eta beste aldean, garbi-garbia. Ikusten al duzue? Fitxan dauden marrazkiak nola daude? Zikinak, garbiak? Begira ondo marrazkiei eta ea nola erlazionatzen dituzuen. Zein elkartuko zenituzkete Jon zikinekin? Eta zein Jon txukuna eta garbiarekin? Zer dute komunean xaboiak, zapata garbiek, hortzetako eskuilak eta oreak? Eta txerriak, ibai zikinak, kamiseta zikinak...?

8. Olerkia. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-7(H)-8(H)-9(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Joxan Ormazabalen olerki honi “ura” hitzaren bi letra kendu egingo dizkiogu arbelean idaztean. Hurrei, olerkia irakurri ondoren, falta den hitza zein izan daitekeen galdetuko diegu eta, asmatzen dutenean, hitz hori nola idatziko luketen.

... (Ura), zuri
eskerrik asko,
gu garbitzeko
zeu zikintzen zarelako.

Joxan Ormazabal

–Ea zeinek asmatzen duen olerki honetan falta den hasierako hitza! Erraza da, ezta?

9. Sekuentziekin jolasean

Helburu didaktikoak: II.26(MAT), III.2(H)-3(H)-4(H)-.5(H)-7(H)-8(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurretik egin izan dugun bezala, talde-antzerkian errepikatu dituzten esaldiak eskatuko dizkiegu sekuentzia bat aurkezten dugun bakoitzean. Irakasleak narratzaileari dagokiona esango du, eta beste esaldiak hurrei eskatu. Laminekin egiteko aukera batzuk:

- Bakoitzak gustuko duen sekuentzia aukeratu eta aukeraketa horren zergatia adierazi.
- Sekuentziak desordenaturik eman, eta ipuina desordenaturik kontatu.
- Sekuentziak desordenaturik eman eta ikasleak ordenatu.
- Hasiera, korapiloa eta bukaera bereizi.
- Bukaerako lamina kendu eta bakoitzak bukaera berri bat asmatu.
- ...

10. Pertsonaiaren horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11- III.7(H), III.8(H), III.9(H), III.17(PLAS), III.20(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: MATERIAL OSAGARRIA
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Gidaliburuan agertzen zaizuen Jonen marrazkia handitu ondoren, hurrek argizarizko margoekin, tenperekin, edota nahi duzuen teknikaz margo dezakete. Margotu ondoren, galdetu hurrei nola zikin dezaketen Jon, ea zer bururatzen zaien.

Azpian bere izena idatziko dugunez, bestetan egin izan dugun bezala, pertsonaiaren izena aztertuko dugu.

- *Horma-irudiaren azpialdean “Jon” idatzi dugu. Gelako norbaitek ba al du Jon izenak dituen bezalako letrarik? Zeinek?*
- *“Jon” hitzari letra bat aldatzen badiogu (o = a. Jan)... zer uste duzue jartzen duela orain?*
- *Eta “a” letra jarri beharrean, “u” jartzen badugu? (Jun)*
- *Eta atzean “e” bat eransten badiogu?*
- ...

11. Pertsonaiekin jolasten. Memoria-jokoa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5, III.8(H)-9(H)-34(H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: PERTSONAIEN HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetako pertsonaiaren txartelean Jon Zikin aterako da. Beste pertsonaien txartelak atera eta, letra mugikorrek erabiliz, horien izenak idatzi, letra kopurua kontatu eta gelakoen izenak eraiki ditzakegu.

Honez gain, txartel hauekin beti egiten ditugun memoria-jolasak egin ditzakegu:

-Pertsonaien bikoteak aurkitu.

-Pertsonaia eta izena erlazionatu.

-Pertsonaia ezkutuaren jolasa egin.

Nahi izanez gero, bikoteak osatzeko jolasaren aldaera bat lan dezakezue.

Pertsonaien txartelak lurrian buelta emanda utzi beharrean, hurrei kartak balira bezala banatuko dizkiegu. Hurrek, txartelak ikusi gabe eta txandaka, banan-banan ateratzen joango dira, eta norbaitek bere txartela ateratzean, mahai gainean dauden beste txartelen artean bikotea osatzen badu, bikotea berarentzat izango da. Txartelak bukatzean, bikote gehien osatu duenak irabaziko du.

12. Zer ari da gertatzen hemen? Zehar-lerroa: osasunerako hezkuntza

Helburu didaktikoak: I.1-2-4-12, II.5-7- III.4(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Materiala: 3. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Ezkerraldean ikusten den marrazkian, haur zikin bat ageri da, eta bere lagunak ez dute berarekin egon nahi, usain txarra duelako. Eskuinekoan, berriz, haurra garbi-garbi dago, eta hiru lagunak besotik helduta eta pozik ageri dira. Tartean gelditzen den hutsunea bete beharko dute hurrek, sekuentzia logiko bat planteatuz.

Hitzez adierazi

- Ikusten dena deskribatuz, arazoa identifikatuz, norberaren sentipenak kanporatuz, hipotesiak formulatuz.
- Egoerari buruzko galderak egin.
- Zer gertatu ote da bigarren binetan, hirugarrenean halako aldaketa gertatzeko?

Idazketa

- Izenburua proposatu. (Ahal dela ideia nagusira hurbildu.)
- Elkarrizketa asmatu eta dramatizatu.
- Taldean egin daitezkeen zenbait galdera:
 - Zer ikusten dugu irudi hauetan?
 - Istoria osatuta al dago?
 - Zer gertatzen da lehen irudian?
 - Zer gertatzen da hirugarren irudian?
 - Zer gertatu ote da tartean?

Irudi hauek aitzakia, gorputzaren atalak nola garbitu behar ditugun, zer maiztasunarekin... aipatuko dugu. Bestalde, inguruan eduki ditzakegu higie arazoak dituzten haurrak edo pertsona helduak, eta horien egoerarekiko begirunea lan dezakegu. Zenbaitetan, familiaren egoeraren ondorioz gerta daitezke horrelakoak, eta erru gutxien duena haurra izan ohi da; bestetan, bizitokiaren ondorioz sor daitezke usain txarrak... Azkenik, giza gorputzaren usainen inguruan ere osagai kulturala aurki dezakegu. Zenbait tokitan gorputzaren usainak gurean baino onartuagoak dira; arraza zurikoak omen gara usainik gabeko gizaki bakarrak. Gorputz guztiek ez dute iraizketa sistema berdina. Batzuk, nahiz eta sarri garbitu, besteak baino gehiago izerditzen dute... Jakina, gai horiek guztiak aipamen erraz bat eginez aipatuko ditugu, egoki baderitzogu.

13. Gu ere idazle. Ipuina idatzi

Helburu didaktikoak: I.11, III.6(H)-III.7(H)-8(H)-9(H)-11(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/ B

Materiala: 4. eta 5.FITXA

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Proposamen honetan, *Mari Kanela* (5. unitatean) eta *Ni ere handia naiz* (7. unitatean) ipuinekin egin genuen bezala, haurrek ipuinaren zati baten berridazketa egingo dute.

Fitxak banaka eman beharrea, komeni da liburuxkaren muntaia hezitzaileak egitea aldeztu aurretik.

Jarduera egiteko, ondo neurtu beharko dugu denbora. Horrelako lanek haur txikiei eskatzen dieten esfortzua kontuan hartuta, amaren zatia beteta eman dizkizuegu.

Idazten hasi aurretik

Aurrezagutzak aktibatu. Talde handian, ipuinaren pasarteak gogoratu.

Maitagarriak Jon Zikin lorategira bidaltzen du anaiaren bila, gela oso zikina duelako. Haurren bizitzarekin erlazionatu ditugun pasarteak gogora ekar ditzakegu, idatzi aurretik.

Testua planifikatu

Talde handian, elkarrizketa-jolasaren bitartez, gogoratuko dugu zer erantzuten dion Jon Zikinek Maitagarriari. Beste elkarrizketa batzuk sortuko balira, kontuan hartuko genituzke. Talde handian egindako ekarpenak jasoko dira arbelean. Ondoren, binaka jarrita, aukera horien artean zein aukeratu erabakiko dute. Bikote bakoitzak aukera bat idatziko du.

Testualizazioa

Bakarka lan egin aurretik, kolektiboki egingo dugu lana. Horretarako, fitxa handituko dugu eta denen artean osatuz joango gara, beti bezala taldeari laguntza eta osatzeko ahaleginak eskatuz. Denen artean osatu ondoren, bakoitzak berea idatziko du. Modu honetan egingo dugu lehenengo fitxa, eta ondoren bestea.

Atsedena hartu ondoren...

Berrikusi

Denek bukatu ondoren, talde handian elkartuko dira egindako lana taldekoekin partekatzeko.

Egindako ipuinaren pasarteak etxera eramango dute, gurasoei “irakurtzeko”.



Proiektua: uraren tailerra

Unitate honetako proiektua ez dugu produktu batekin lotu baizik eta esperimentazio gunearekin. Ondoren topatuko dituzue zientzietara hurbiltzeko

3. ZEHAZTAPEN MAILA

hainbat proposamen baina ez da horretara mugatu behar; denbora eta espazioa eman beharko diegu hurrei esperimendazio espontaneoak egiteko.



Urari buruz zenbait kontu ikasten

HASIERA

14. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-7(H)-8(H)-9(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/ B

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Sekuentzia didaktikoari sarrera emateko, olerki labur hau arbelean idatziko dugu, eta *Ura* hitza osatzen duten letrak lodiago edo kolore batez markatuko ditugu, ea haurrak konturatzen diren. Unitatean zehar horrelako gehiago sartuta daude modu berean lantzeko.

Gorp**U**tzarentzat
Eda**R**irik
Onen**A**

Joxan Ormazabal

15. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-8(H)-9(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/ B

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Igarkizunak esaten zuen bezala, ura edateko oso ona da. Baina zer gehiagotarako erabiltzen dugu? Garbitzeko, landareak ureztatzeko, bainatzeko...

- *Ba al dakizue zer lekutan egoten den ura? (itsasoan, ibaian, aintziran...)*
- *Zapore bera al dute itsasoko urak eta ibaikoak? Inoiz probatu al duzue?*
- *Nolakoa da itsasoko ura? (gazia) Eta, ibaikoak? (geza)*

- *Zergatik uste duzue itsasoko ura gazia dela?*
- *Zer kolore du urak? Eta zer usain?*
- *Ba al daki norbaitek nolako forma duen urak?*
- *Eta zergatik erortzen da zerutik?*
- *Zertarako erabiltzen dugu? Zeinek behar du?*
- *Ba al dago bizitzerik urik gabe? Zer gertatzen zaio landare bati urik ez badu? Eta animalia bati? Eta guri?...*

Hori guztia deskubritzen joateko, uraren tailerra sortzea proposatzen dizuegu.

16. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Zer dela eta zer dela,
hanka gabea
eta korrika egiten duena?
(Ura)

Xabier Etxaniz

GARAPENA

Uraren tailerra antolatzeke, tamaina desberdinetako ontzi gardenak eta ura beharko ditugu oinarrizko elementu gisa. Bestetik, beherago deskribatzen ditugun jardueretarako, beste elementu batzuk beharko dira. Aukeratu duzuen materialaren kopurua ondo neurtu behar da, hau da, gelako ume guztiek manipulatzeko nahiko elementu egon behar dira. Izan ere, oso tailerra erakargarria izango denez, gerta daiteke une batean haur guztiak batera urarekin esperimentatzen aritzea.

Espazioa zabala izatea komeni da; eguraldiak laguntzen badu kalera atera dezakegu uraren tailerra. Jakinda haurrak bustitzeko arriskua dagoela, ohar baten bitartez gurasoei azalduko diegu zer egingo dugun eta aldatzeko arropa jartzeko eskatuko diegu.

Iaz egindako uraren azterketari buruzko jarduera bat ekarriko dugu berriz ere gure uraren tailerrera.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

17. Uraren zaporea

Helburu didaktikoak: I.7, II.3-II.11-16(MAT), III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: URAREN TAILERRA

PROZEDURA

Ur gezari eta gaziari buruz hitz egin dugu. Aukera izanez gero, itsasoko eta iturriko ura gelara eramango dugu eta bien arteko desberdintasunak aztertuko ditugu, geza eta gazia zein den bereiziz. Itsasoko ura eramateko aukera ez duzuenok, badakizue... gatza erabili!

Nahi izanez gero, itsasoko ura eraman beharrean, iturriko ura hartu eta hainbat gai disolba ditzakegu bertan: azukrea, gatza, irina, ezer ez, limoi tantak... Saia daitezela disoluzioen arteko konparaketak egiten eta aukerak egiten. Ez ahaztu, gazia, geza, gozoa, garratza... hitzak erabili beharko dituztela.

18. Olerkia. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.5, II.3-11-16(MAT), III.1(H)-7(H),-8(H)-9(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

GATZIK
GABEKOA
IZATEN
DA

Joxan Ormazabal

19. Uraren kolorea

Helburu didaktikoak: I.7, II.3-11-16(MAT), III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: URAREN TAILERRA

PROZEDURA

Jarri ura ontzietan eta haurrek uraren kolorea behatuko dute. Azterketa horretan hezitzaileak galderen bidez lagunduko die:

–*Zer kolore ikusten duzue?*

–*Txuria al da ura? Eta ura Txuria bada, zer koloretakoa da papera (zuria)?*

Ondoren, barruan harritxoak, jostailuak edo kanikak sartuko ditugu, eta hurrei azalduko diegu urak kolorerik ez duelako ikus daitezkeela objektu horiek. Kolorerik gabeko gauzak **gardenak** direla adieraziko diegu, aurretik horretara ez badira iritsi.

Beren kabuz urarekin eta gainerako elementuekin esperimentatzen utziko diegu. Gelako leihoetako kristalak adibide bezala erabil ditzakegu (alde batetik bestera ikus daitezkeela), eta edozein objektu opako hartu (liburu handi bat, adibidez) aurrean jarri eta beste aldean dagoena ikus al dezaketen galdetu.

Azkenik, ur horretan kolore bateko tenpera botako dugu, eta urak kolore hori nola hartzen duen deskubrituko dugu.

20. Uraren forma eta mugimendua

Helburu didaktikoak: I.7, II.3-11-16(MAT), III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ---
Jarduera egiteko espazioa: URAREN TAILERRA

PROZEDURA

Esperimentuekin jarraitzeko, urak bere forma ontziaren ezaugarrietara egokitzen duela ikusiko dugu; hori gorputz solido batekin aldera dezakegu, harri batekin, adibidez.

Forma desberdinetako ontziak prestatu (zabalak, estuak, sakonak...) eta bota ura batetik bestera; ura ontzi bakoitzaren formari nola egokitzen zaion ikusiko dugu. Hartu, bestalde, harri handi samar bat eta ea zer gertatzen den (forma aldagaitza da).

Moldakortasun horretaz baliatuz, haurrak ur-tantak balira bezala mugitu beharko dute; hainbat egoera eskainiko dizkiegu gorputzaren bidez adierazteko:

- Ur-tanta aldapa batetik behera jaisten da (koltxoneta bat jarri plano inklinatu edo txirrista txiki baten modura eta goitik behera jaitsiko dira).
- Ur-tanta zerutik putzura erori da (putzuan “ur-tanta” gehiago daude eta, tanta berriak salto egiten duenean, besteek zipriztinak botako dituzte).
- Ur-tanta bide estu-estu batetik barrena doa lur azpian.
- Ur-tanta ontzi zilindriko/esferiko batean sartu da.
- Ur-tanta ontzi altu eta estu batean sartu da.
- Ur-tanta itsasora heldu da eta olatu izugarri artean murgildu da.
- ...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

21. Urarekin musika egiten

Helburu didaktikoak: I.6, III.27(MUS)-28 (MUS),-31(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: URAREN TAILERRA

PROZEDURA

Jarduera hau egiteko, beirazko edalontziak (ahal bada, berdinak) eta metalezko goilara txikiak beharko ditugu.

Hezitzaileak uraren tailerrean prestatuko ditu edalontziak eta goilara txikiak. Pitxar batean ura izango du, banan banan edalontziak betetzen joateko. Edalontzien ur kopurua desberdina izango da edalontzi guztietan; modu horretan, soinu desberdinak lortuko ditugu. Behin edalontziak prest dauzkagula, probak egiten has gaitzke. Lehenik hezitzaileak eman dezake eredu, hurrek ondoren sortzen hasteko.

22. Uraren transformazioa. Izotza

Helburu didaktikoak: II.3
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: URA, IZOZKAILUA
Jarduera egiteko espazioa: IKASTOLAKO SUKALDEA, ETXEA

PROZEDURA

Oraingo honetan, ura hotzaren eraginez nola transformatzen den aztertuko dugu. Horretarako, ura izozkailuan sartzearekin nahikoa daukagu. Baina jarduera ikusgarriagoa egin nahi badugu, uretan belar zati bat lore bat edo marrazki txiki bat sar dezakegu; izozkailuan sartu, eta, ordu batzuk beranduago, zer gertatu den ikusiko dugu.

Esperimentazio hau gurasoekin etxean egin dezaten proposa dezakegu.

23. Uraren zikloa. Elkarrizketa eta horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11, II.3-10-11-13, III.19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Uraren zikloari buruzko elkarrizketa bideratuko dugu: euria, erreka, ibaia, itsasoa, lainoak... Haurren iritziak errespetatuko ditugu, nahiz eta errealak ez izan. Kasu horretan, gatazkak sortzen ahaleginduko gara, iritziak zuzentzen joan daitezten. Uraren zikloari buruz hitz egin ondoren, eta arbelean edo paper handi batean eskema marraztu ondoren, hainbat material erabiliz (kotoia, pinotxo papera, zetazko papera, zelofana, hondarra, harri-koskorak...) uraren zikloaren horma-irudia edo maketa handi bat egingo dugu. Aurrerago, arrainak ezagutuko ditugu eta horiei buruzko informazioa bilatu ondoren, gure horma-irudian koka ditzakegu. Bestalde, izokinaren bidea agertzen deneko fitxa (7. fitxa) ere baliagarria izan daiteke uraren zikloaren ideia txiki bat lantzeko. Goiko mendietan hodei baten zatia margo dezakete haurrek eta bertatik euria ari duela adierazi.

24. Euriarekin jolastuz. Erritmoa

Helburu didaktikoak: I.7-9-11-14-15, III.17(PLAS)-18(PLAS)-25(PLAS-MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hiru urterekin ikasitako euriaren abestia gogoratuko dugu (nahi izanez gero, beste bat erabili), *“klin klan, klin klan, euri tantak euri tantak...”*. Abestiaren erritmoari jarraituz, haurrek, txandaka, argizarizko margoekin margotuko dute euria, horma-irudian bertan edo beste paper handi batean.

Jarduera honek, erritmo aldetik, haur bakoitzaren ebaluazio txiki bat egiteko aukera emango digu.

25. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ea asmatzen duzuen Txiliku idazleak idatzi zuen igarkizun hau:

Minik gabe negar egin
eta gu bustitzen gaituena.

–*Ba al dakizue zer den? Horixe, euria!*

26. Lurruntzearekin esperimentatzen

Helburu didaktikoak: II.3
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: KANPINGASA, LAPIKOA, TAPA
Jarduera egiteko espazioa: URAREN TXOKOA, LABORATEGIA

PROZEDURA

Haurrek beroarekin ura nola lurruntzen den ikus dezaten, laborategiko probeta batean ura jarri eta eguzkitan ipiniko dugu. Tarteka begiratuko dugu, ea ura “desagertu” den eta zenbat “desagertu” den ikusteko.

Emitzak azkarrago eta garbiago ikusi nahi baditugu, lapiko batean ura jarri, estali, sutan jarri eta, irakiten hasten denean, lurruna nola ateratzen den ikusiko dugu. Estali berriro, eta ikusi lurruna tapan nola kondentsatzen den. Azkenik, tapa kendu eta utzi irakiten ur guztia lurrundu arte.

Urtxintxa 3 urte gidaliburuan ura hozteari buruzko hainbat jarduera dituzue. lazkoa gogoratzeko erabil ditzakezue.

27. Istorioak asmatzen

Helburu didaktikoak: III.1(H)-5(H)-6(H)-12(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haur guztiak biribilean eseriko dira, eta, taldeari ideia bat eman ondoren, bakoitzak esaldi bat asmatuz, emandako ideiaren inguruan istorio bat asmatuko dugu. Adibidez, zer gertatuko litzateke euririk egingo ez balu?

–Behin batean, herri txiki batean, biztanle guztiak kezkatuta zeuden. Ba al dakizue zergatik? Euririk egin ez eta urik gabe gelditzen ari zirelako...

28. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-1(H)-8(H)-9(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/ B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Urari buruz hainbat gauza ikasi ditugu, zer kolore duen, zer zapore, nola mugitzen den, hotza eta beroarekin nola transformatzen den... Oraingoan ikusiko dugu non topatzen dugun ura gure inguruan: errekek, Ibaiak, itsasoa, urtegiak...

29. Errekaren eta ibaiaren arteko ezberdintasunak

Helburu didaktikoak: II.2-10, III.4(H)-8(H)-10(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/ B
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Ba al dakizue zer ezberdintasun dagoen errekekaren eta ibaiaren artean?*

Haurren erantzunak entzun ondoren, hiztegian zer jartzen duen irakurriko dugu.

–*Ba al dago errekarik zuen herrian?*

– *Ba al daki norbaitek zer izen duen/duten? Eta non jaiotzen den? Eta non itsasoratzen den?*

Nahi izanez gero, eskualdeko mapa bat aztertuko dugu, gure herritik pasatzen den errekekaren/ibaiaren nondik norakoak ikusteko (ea beste ibai batera isurtzen den, itsasoratzen den, zer herritatik pasatzen den...).

Hiztegia erabil dezakegu herriko errekarri/ibaiari buruz zerbait dakarren begiratzeko. Hiztegiko azalpenak kartulina batean idatz ditzakegu, eta, argazki batekin batera, horman itsatsi. Modu horretan, gure urarari buruzko tailerrak gero eta informazioa gehiago izando du.

30. Abestia: *Errekatik pasa nahi dut*

Helburu didaktikoak: I.9-13-14-15, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 23. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

ERREKATIK PASA NAHI DUT

Errekatik pasa nahi dut.

Ez dut erori nahi.

Harri gainetik saltoka hasiko naiz orain.

Harri gorrietatik. Doon! Raup!

Harri horietatik. Dan-dan! Raup!

Harri urdinetatik. Dilin-dilin! Raup!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Abestia ikasi ondoren, jolas txiki bat egingo dugu. Gelako zoruan kartulinazko biribil gorriak, horiak eta urdinak itsatsiko ditugu aerofixekin, erreka harriak balira bezala. Abestiak esaten digun koloreetan zanpatuz, txandaka, erreka alde batetik bestera pasako dira haurrak.

31. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-5(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Jaio eta hiltzen ari naiz etengabe,
halere bizirik dihardut orain arte
eta nire ohiko bidetik irten gabe
korrika noa gelditzeke.
(ibaia)

X. Etxaniz

Mendian sortu, bidean hazi,
itsasora joan eta bertan bizi.
(ibaia)

Txiliku

32. Olerkia. Erreka gozozalea

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Nire herriko erreka
zeharo gozozalea eta bihurria da.
Bero handia egiten duenean
irten bere bidetik, kaleetan zehar joan
eta izozki-dendara sartzen da
bainilazko eta txokolatzeko
izozki baten eske.

J.K. Igerabide

33. Olerkia. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-7(H)-8(H)-9(H)15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Bide
Busti
LuzeA
Itsasora
doAna

34. Tradizio-kantuak: *Itsasoa laino dago, Joxe Migelen batela*

Helburu didaktikoak: II.9- III.1(H), III.15(H), III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 22. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

ITSASOA LAÑO DAGO

Itsasoa laño dago,
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maiteago
txoriek beren umeak baino.

Gure oroiz aita dago,
lainopean gaueraino.
Nik zu zaitut maiteago
arraintxoek ura baino.

Joxe Mielen batela
txitxarroa eta berdela.
Joxe Mielen batela
txitxarroa eta berdela.

Joxe Miel, Miel Joxe,
Joxe Miel, Miel Joxeren batela.

35. Itsasoa. Hondartza

Helburu didaktikoak: II.2-10, III.4(H)-8(H)-10(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

Erreka/ibaia lantzean egin dugun gauza bera egin dezakegu itsasoarekin. Lehenik eta behin, haurrekin elkarrizketa bat planteatuko dugu, itsasoaren eta ibaiaren arteko ezberdintasunak ikusteko: olatuak, gazia/geza, hondarra, mareak, arrain motak, zabalera...

Elkarrizketa bideratu ondoren, hiztegian itsasoari buruz zer jartzen duen begiratuko dugu, eta munduko mapa edo bola batean, itsasoak, lurrarekin alderatuta, zer hedadura duen ikusi.

Inguruan dauzkagun hondartzak landuko ditugu:

–Ezagutzen al duzue hondartzaren bat?

–Zer izen du zuek gurasoekin joaten zaretenak? Beste hondartzaren bat ezagutzen al duzue?

–Zer egiten dugu hondartzetan? Noiz joaten gara?

–Ibaietan hondartzak egoten al dira?...

36. Abestia. Itsaso aldera

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 24. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

ITSASO ALDERA

Itsaso aldera aitak atzo
eraman ninduen goizo.
Arrantzan egiteko asmoz
eta eguerdian bueltatzeko.
Baina itsasoa
jarri zitzaigun oso gogor.

Olatuak gora eta behera,
beldurtu ginen biok batera.
Hantxe utziz sare eta kordelak
abiatu ginen etxe aldera.
A, zer estuasuna
atzo goizean pasa genuena!

37. Olerkia. “Itsasoa mahai-zapi zabala da”

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Olerkia ulertzeko, mahai-zapi batekin eta ogi-apurrekin irudika dezakegu eta parekotasunak bilatu.

Itsasoa mahai-zapi zabala da
eta zerumuga baino harantzagotik
norbaitek astintzen du etengabe,
kaioak gainera ken daitezen
mahai-zapitik ogi apurrak bezala.

J.K. Igerabide

38. Abestia: *Ai, ai, ama!*

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 26. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Ai, Ai, AMA!

Baloi bat besapean
hondartzara noa.
Ai, ai, ama!
Hondartzara noa.

Lehenengo ostikadan
joan zait uretara.
Ai, ai, ama!
Joan zait uretara.

Gero eta barrurago
badoa, badoa.
Negarrez arrantzaka
banator etxera.
Ai, ai, ama!
Banator etxera.

Pala bat besapean
hondartzara noa.
Ai, ai, ama!
Hondartzara noa.

Egin dut gaztelu bat
hiru dorrekoa
Ai, ai, ama!
Hiru dorrekoa.

Olatu zakar batek

3. ZEHAZTAPEN MAILA

hondatu dit dena.
Negarrez arrantzaka
banator etxera.
Ai, ai, ama!
Banator etxera.

BUKAERA

39. Urari buruzko marrazkia

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-18(PLAS)-21(PLAS)-23(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. FITXA, AKUARELAK
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Urari buruz ikasitakoa gogoratzeko, laburpen bat egitea proposatuko diegu hurrei; horrela, aukera izango dute erabakitze urari buruzko zer marrazki egin.

–Urari buruzko gauzak ikasteko, uraren tailerra antolatu genuen. Hasieran, urarekin eta ontziekin jolastu zenuten; zer “ikasi” zenuten?

Hurrei ez bazaie ezer bururatzen, ideiak sortzen lagunduko diegu. Adibidez:

– Urarekin jolastean busti egin zineten, edalontzi desberdinetan sartu zenuten ura... Koladorean ura gelditzen al zen?...

Uraren Tailerrean egindako jarduerak ere gogoratuko ditugu. Eta, bukatzeko, kanta bat edo olerki bat ekar dezakegu gogora.

Aipatutako guztia paper handi batean edo arbelean idatz dezakegu denen bistan; ondoren, hurrek erabakiko dute zer marraztuko duten fitxan.

Marrazteko unean, hurren eskura akuarelak jartzea proposatzen dizuegu; izan ere, akuarela oso teknika interesgarria da, eta oso aproposatzat daukagu uraren gaia irudikatze.

40. Ipuina gogoratz. Hurren ipuin-kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezpen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabili behar dira (ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren).

Ondoren zehazten ditugun puntuen artean, isiltasuna lortzearena dago. Hainbat estrategia erabili ditzakegu isiltasuna lortzeko:

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.
- Isiltasuna lortu. Horretarako, material osagarrietan dauden txartelez, edo hurrek beraiek egindakoez, balia gaitzke.
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuinaren pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute hurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren “arauak”.

Lehenengo lamina erakustean, tartetxo bat utzi, hurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *“Gogoratzten duzue ipuina?”*, *“Lagunduko al didazue ipuina kontatzen?”*.

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta hurrek parte hartzen badute, eurek egin lezakete narratzailearena.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu hurrei; gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Hurrek euren erara kontatu dezaten bultzatuko dugu. Esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez badira ere, onartuko ditugu, osatu eta ipuinean txertatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontakteta egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaktaren hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzaile-lana egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzeppen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur bati zuzendu...



Ibaiko eta itsasoko uretan bizi diren arrainak

HASIERA

41. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-1(H)-8(H)-9(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/ B

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Azken unitate honetan uraren tailerra antolatu dugu. Urarekin esperimentatu ondoren, uretan bizi diren arrainei buruzko azterketa bat egitea proposatu nahi diegu haurrei. Kurtsoa bukatzen denez, memento egokia da Xango ezagutzeko eta harekin harremanetan jartzen hasteko. Arrainontzia prestatzea proposatuko diegu.

–Zer arrain ezagutzen dituzue?

Haurrek esaten dituztenak paper zuri handian idatziko ditugu eta bertan utziko ditugu. Kontuz balearekin eta izurdearekin, ez dira arrainak, ugaztunak baizik!

–Ba al dakizue zein bizi diren itsasoan eta zein aintziretan eta ibaietan? (Paperean idatzitakoak sailkatuko ditugu).

–Zer uste duzue gertatuko litzaiokeela itsasoan bizi den arrain bati ur gezatan (ibaian edo aintziran) sartuko bagenu? Eta alderantzizkoa egingo bagenu?

Paper zurian apuntatu dugun informazioa horma-irudi modura jar dezakegu uraren tailerrean.

–Zer beste animalia bizi da uretan? Igelak? Ba al dakizue igelak txiki-txikiak direnean zer izena duten? Horixe, zapaburua. Hartu al dituzue inoiz zapaburuak?

Uretan bizi diren animaliei buruzko sekuentzia didaktikoari hasteko, aukera izanez gero mendira joan gaitzke zapaburu batzuk harrapatzera. Horretarako, aldeztu aurretik zehaztuta izan behar genuke non aurki ditzakegun zapaburuak. Zapaburuaren garapena ikusteko, tamaina handiko pote garden bat jarriko dugu gelan, eta pazientzia pixkat besterik ez dugu beharko.

GARAPENA

42. Olerkia. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-1(H)-7(H)-8(H)-9(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

uret**A**tik
 kanpo**R**a
 ate**R**atzen
 dutene**A**n
 Ito
 egite**N**
 d**A**

43. Izokinaren bidea

Helburu didaktikoak: I.11, II.24(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 7. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Lehen, itsasoan eta ibaian bizi diren arrainak aipatu ditugu. Baina, ba al dakizue arrain batzuk bietan bizi daitezkeela? Ez al duzue horrelakorik ezagutzen? Izokina, adibidez! Izokina normalean itsasoan bizi da, baina ugaltzera ibaian gora joaten da, eta izugarrizko saltoak ematen ditu ibaietako presak gainditzeko. Ikusi al duzue inoiz, telebistan bada ere?

–Fitxa honetan ageri den izokina itsasotik ibaira igoko da arrautzak uztera. Ba al dakizue nondik igoko den? Zenbakien segidari jarraitzen badiozue, izokinaren ibilbidea ezagutuko duzue!

–Fitxa egin aurretik, zenbakien segida errezitatu, nahi baduzue, hatza dagokion zenbakiaren gainean jarriz. Ondoren, irudika dezatela izokina gora iritsi dela, arrautzak jarri dituela eta berriro itsasora jaitsi nahi duela. Ea, segida alderantziz errezitatzen duten guztien artean.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

44. Abestia: *Nire arrantzak*

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 25. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

NIRE ARRANTZAK

Errekan behera, uraren gain,
igeri datoz bi amuarrain.
Hiru sardina,
zazpi antxo(a).
Arrantzan nabil pantxo-pantxo.

Bisiguak eta legatzak,
itsasoko aberatsak!
Txitxarroak eta berdelak,
ekarri ditugu txanelan.

Bi begiak estali,
ez dakit zein hartu eta.
Azal leunak,
ezkatadunak,
hementxe ditut arantzadunak.

Bisiguak eta legatzak...

45. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: I.12, III.1(H)-5(H)-6(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gurasoei eskatuko diegu etxean beren seme-alabekin arrainei buruzko informazioa biltzeko, eta guri eskutitz bat bidaltzeko. Jarduera ez badugu horrela bideratu nahi, azken gutun hau gurasoak agurtzeko (Txirritxek) erabil dezakegu. Hainbeste lan eskatu ondoren, behingoagatik lanik gabeko gutuna jasotzea eskertuko dutelakoan gaude.

KAIXO, ENE LAGUN ZINTZOAK:

OPORRAK HARTZEKO EGUN GUTXI FALTA BADIRA ERE, ORAINDIK ERE ETXERAKO LAN BAT EGITEKO AUKERA BAT EMAN NAHI DIZUET.

OPORRAK GAINEAN DITUGU, ETA EZIN DUT ZUEI ADIO GUTUN BAT
BIDALI GABE PASA. HAIN LAGUNTZAILE LEIAL ETA ZINTZOAK IZAN
ZARETE...

EZ ZAITEZTE KEXATU, ASPALDIAN EZ DIZUET EZER BIDALI ETA!

ZER EGIN BEHAR DUZUEN ORAINGO HONETAN? BADA, OSO ERRAZA
DA! ARRAINEN GAIA LANTZEN ARI GARENEZ, ETXEAN DITUZUEN HIZTEGI,
ENTZIKLOPEDIA ETA LIBURUETAN ARRAIN MOTA EZBERDINEI BURUZKO
INFORMAZIOA BILATU BEHAR DUZUE; ZUEN SEME-ALABEKIN IKUSI,
TESTUA IRAKURRI, ETA ESKUTITZ BATEAN IDATZI. EZ DA ZAILA, EZTA? ETA
ARRAINEN ARGAZKIRIK EDO AFIXARIK LORTZEN BADUZUE, BIDALI HORIEK
ERE. GELAN JARRIKO DITUGU.

BESTALDE, ZUEN HAURRAK LASTER ERAMANGO DIZUE ERREZETA BAT:
“AMUARRAINA URDAIAZPIKOAREKIN”. EA GOXOA ATERATZEN ZAIZUEN!
ERREZETA HAU JASOTZEAN, BIDALIKO AL DIGUZUE ZUEN ETXEAN
GOXOEN ATERATZEN ZAIZUEN ARRAIN BATEN ERREZETA? MILA ESKER!

AI ENE! ZER EGINGO DUT NIK DATORREN URTEAN ZUEK BEZALAKO
GURASO JATOR ETA LANGILERIK GABE? EZINGO DUT JASAN!

BENO, (*negarrez*) AZKEN LANTXO HAU BEREHALA BURUTUKO
DUZUELAKOAN, JASO EZAZUE NIRE AGURRIK BEROENA.

AGUR, BEN-HUR!

TXIRRITX

46. Arrainei buruzko informazioa biltzen

Helburu didaktikoak: I.11, II.10-12-17(MAT), III.8(H)-9(H)-20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ARRAINAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gurasoek bidaltzen dizkiguten eskutizetatik ateratzen dugun informazioa landuko
dugu:

- Gure zerrendan agertzen ez ziren arrainak gehituko ditugu.
- Horma-irudia egingo dugu, etxetik bidalitako informazioa biltzeko.
- Arrainen argazkiak edo afixak lortzen baditugu, gelako liburutegian edo uraren txokoan kokatuko ditugu. (Arrandegi batzuetan arrain motak agertzen direneko liburuxka batzuk banatzen dituzte; lortzen badituzue, fitxak egin ditzakezue). Gidaliburuaren material osagarri gisa, horrelako liburuxka batean agertzen diren arrain batzuk eskaintzen dizkizuegu.
- Ikastolako liburutegian lortzen dituzuen arrainen liburuak gelako liburutegian utziko ditugu gaiak irauten duen bitartean.
- Arrainen izenak idatziko ditugu...

47. Entzunaldia. Zehar-lerroa: ingurumen-heziketa

Helburu didaktikoak: I.5-7, III.1(H)-16(MUS)-17(MUS)-18(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 31. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

PROZEDURA

Musika CDan Franz Schuberten *Amuarraina* kintetoaren laugarren mugimendua (Bariaziodun gaia. Andantino-Allegreto) entzungo dugu.

Schubert, Franz. Konpositore austriarra (Viena, 1797–1828). 1813an Salierirekin ikasi zuen. Lied-ak dira bere konposizio ezagunenak (*Errotari Ederra, 1823; Neguko Bidaia, 1827; Beltxargaren kantua, 1828*) baina beste arlo askotan ere lan egin zuen: 22 sonata (*Ibiltariaren Fantasia*), 6 memento, 11 impromptu, 15 koarteto (*Dontzeila eta Heriotza, 1824*), 9 sinfonia eta 2 obertura konposatu zituen. Musika barnerakoa eta fina egin zuen.

–Orain entzungo dugun musikan amuarrain bat igerian agertuko da. Lasai-lasai etzango zarete, eta, musika entzunez, ea konturatzen zareten musikariak nola eta noiz adierazten duen amuarrainaren mugimendua.

Norbaitek “entzun” al du amuarraina igerian? Berriro jarriko dut musika eta, entzuten duzuenean, eskua altxatu!

IPUIN MUSIKATUA

Hona hemen ipuinaren testua musikarekin batera kontatzeko. Kontatu baino lehen, musika entzun, eta ahalegindu zaitezte zuen bertsioa pertsonalizatzeko. Lagungarria izan daiteke ipuineko pertsonaien irudiak sortzea.

1. Behin batean, amuarrain txiki bat bizi zen ur garbi eta gardenak zituen ibai batean. Bai, bai; bizkarraldea berde-motaduna eta sabelaldea zurixka zuen amuarrain bat! Ba al dakizue nola zuen izena? “Zilartxo” izena zuen. Polita, ezta? Han ibiltzen zen egunero-egunero igerian bere lagunekin: ur-korronte batetik igo, bestetik irristatu...

Bai zoriontsu bizi zela “Zilartxo” amuarraina bere putzuan!

2. (Abestuz)

Amuarrain txiki bat naiz
ibaian nabilena,
ur garbia dut atsegin
“Zilartxo” dut izena. (bis)

Oso zoriontsu bizi naiz ni
urrezko nire etxean,
bertako arrainekin
beti jolasean. (bis)

3. Baina, zorigaitzeko egun batean, amuarrain txikia beste arrainekin harrapaketan jolasten ari zenean, ibaian gora behera, han azaldu ziren piloan amuarrainak eta beste mota bateko arrainak, haserre eta presaka. Kopetilun zetozen guztiak. Kopetilun eta haserre bizian! Eta gure amuarrain txikia kezkatzen hasi zen. Zergatik datoz denak hain haserre?
4. –Kontuz, alde, ibaia zikindu dute! Kontuz, alde, bestela hilko zarete!
–Kontuz, alde, ibaia pozoindu dute! Kontuz, alde, bestela hilko zarete! –garrasika zetozen dozenaka, ehunka, milaka arrain ibaian goitik behera. (ahots ezberdinak erabiliz)
–Kontuz, alde, ibaia zikindu dute! Kontuz, alde, bestela hilko zarete!
–Kontuz, alde, ibaia pozoindu dute! Kontuz, alde, bestela hilko zarete!
5. (Musikaren erritmoari jarraituz.)
–Ai ene, zer egingo dut! Zer e-gin-go dut! –pentsatzen hasi zen gure amuarraina, alde batetik bestera urduri eta kezkatu igeri egiten zuen bitartean.
–Ai ene, zer egingo dut! Zer e-gin-go dut! –errepikatzen zuen.
Eta, pentsatzen ari zela, bat-batean burura etorri zitzaion behin bere lehengusu batek, “Gorritxo” izokinak, kontatu ziona. Gorritxo izokina oso abenturazalea zen eta mundua oso ondo ezagutzen zuen.
–Zer esan zidan, ba, zer esan zidan... a, bai!
6. (Ahots grabea jarritz.)
“Nire lehengusu maitea. Zu beti putzu berean bizi izan zara. Ez duzu inoiz bidaiatu nik bidaiatzen dudana bezala eta, nahiz eta putzu hau ez dagoen gaizki, jakin beharko zenuke munduan zehar beste mila leku zoragarri daudela. Dakizun bezala, nik itsaso zabaletik, ibai sakonetatik eta erreka jostarietatik bidaiatu dut eta, inoiz leku honetatik alde egin nahi baduzu, jakin ezazu ibai honetara bere ura isurtzen duen bigarren errekatxotik gorantz abiatuta, zure begiek inoiz ezagutu ez duten aintzira zoragarriena dagoela. Bertan dago, hemendik bi ordutara! Beraz, nahi duzunean, badakizu”.
–Non ote dago leku zoragarri hori? Aurkituko al dut? –pentsatu zuen “Zilartxok”–. Aurkitzeko gai izango al naiz?
7. “Zilartxo” amuarraina pentsati zegoen bitartean, ur pozoitua bere putzura iristen hasi zen, eta handik alde egitea erabaki zuen.
Hasi zen ibaian behera jaisten, milaka arrainen artean, eta, konturatu orduko, “Gorritxo” lehengusuak esandako erreka parean zegoela konturatu zen.
Indarrak hartu, eta han abiatu zen errekan gora korrante jostariari aurre eginez eta ur saltoetatik igoz.
Nekatzen hasita zegoenean, konturatu zen uraren indarra baretzen zela, mendiak zabaltzen zirela eta eguzki-izpiak zuhaitzen hosto artetik sartzen zirela. Lehengusuak esandako aintziran zegoen! Benetan leku zoragarria zen! Eta badakizue zer? “Zilartxo” amuarraina betiko bertan bizitzen gelditu zen. Bakean eta zoriontsu.

48. Marrazkia

Helburu didaktikoak: I.11, III.8(H),-9(H)-17(PLAS)-19(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: B

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

Ipuina entzun ondoren, liburutegi-txokoan orrialdeak eta margoak banatuko ditugu, eta entzundako ipuinari buruzko marrazki bat egingo dituzte.

49. Elkarrizketa: ekologia. Zehar-lerroa: ingurumen-heziketa

Helburu didaktikoak: II.15, III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinean ibaia zikintzen, pozoitzen dute. Horri buruzko elkarrizketa egingo dugu haurrekin.

–Ipuinean entzun dugu ibaia zikindu eta pozoitu egin zutela. Zer iruditzen zaizue hori?

–Zer gertatu zitzaion “Zilartxori” eta ibaian bizi ziren beste arrainei?

–Entzun al duzue inoiz telebistan ibai bateko arrainak hil direla, ura pozoitu egin delako?

–Zer egin dezakegu guk, hori gerta ez dadin?

–Gure herriko ibaia/erreak garbia al dago? Zergatik zikintzen da? Zer egin beharko litzateke garbitzeko? Zer egin dezakegu ez zikintzeko eta arrainak lasai bizitzeko? Itsasoa nola dago, zikina ala garbia? Zer gertatuko litzateke itsasoa zainduko ez bagenu? Inoiz entzun al duzue itsasontzi bat hondoratu dela eta bertan zeraman petrolio uretara isuri eta animalia piloa hil dela? Zer iruditzen zaizue? Zer egin beharko genuke hori gerta ez dadin?

...

50. Kontsumo arduratsua. Uraren erabilpen egokia

Helburu didaktikoak: II.15, III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honen bitartez, uraren kontsumoari buruzko hausnarketa txiki bat egingo dugu haurrekin batera.

–Munduko haur guztiek ura daukate etxean, guk bezala? (Gogoratu 3. unitatean, “Nire etxe poxpola”, egin genuen herrialde desberdinen azterketa).

–Zertarako erabiltzen dugu ura egunero?

- Zer gerta daiteke ura gastatzen badugu?
 –Bukatu al daiteke ura?...

51. Talde-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5, III.24(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 8. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Itsasoan betidanik hondoratu izan dira itsasontziak. Baina, orain dela urte asko, itsaso zabalean zebiltzan itsasontziak ez ziren petroliontziak eta horrelakoak izaten... Batzuk piraten itsasontziak ziren! Eta, ba al dakizue zer eramaten zuten piratek itsasontzietan? Hori da, altxorra!*

–*Jolas honetan altxorrera iristen den lehenengoak irabaziko du.*

Fitxa honetan hurrek taldeka jolas dezakete, bakoitzak bere fitxarekin, edo etxera eramane gurasoekin jolasteko. Etxekoekin jolasteko, komeniko litzateke jolasaren arauak kopiatzea orri batean, eta haur bakoitzarentzat kopia bat egitea.

JOLAS ARAUAK

- Dadoa botatzean, ateratzen den zenbakiaren arabera, arrainek markatzen duten bidetik aurreratuko da.
- Aurreratzen diren arrainak koloreztatu behar dira.
- Olagarroan eroriz gero, “olagarrotik olagarroa, eta berriro bota” leloa esan behar da.
- Marrazoan erortzen denak berriro hasi beharko du jolasa.
- Sarean erortzen denak tiraldi bat bota gabe geldituko da.

52. Arrainak, ugaztunak, moluskuak, krustazeoak

Helburu didaktikoak: II.12, III.4(H)-10(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Egin duzuen jolasaren fitxan ageri ziren animalia guztiak arrainak al ziren? Ikus dezagun zer animalia agertzen ziren: marrazoa, olagarroa, balea, karramarroa, arrainak, ostra, itsas-izarra...*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Elkarrizketa bidez, itsasoko beste animalia batzuk ezagutzen joango gara eta arrainekin egin genuen bezala, liburutegiko liburuak, posterrak, argazkiak... gelara ekarri eta landu ditzakegu.

- *Arrainez aparte, itsasoan bizi diren zer animalia ezagutzen dituzue?*
- *Izurdeak eta baleak arrainak al dira? Zergatik? (Ez badakite, ez erantzun! Gurasoei galdetzeko agindu eta hurrengo egunean jarraituko duzue elkarrizketarekin).*
- *Ostrak, mejiloiak eta horrelakoak ere arrainak al dira? eta animaliak ba al dira? Beraz itxasoan ez dira arrainak soilik bizi ezta?*
- *Animaliez aparte, beste ezer bizi al da itsasoan? (landareak)*
- ...

53. Balea osatu

Helburu didaktikoak: II.11, I.14
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: Motoreak
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 9. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Balea arraina al da? Ez, ezta? Hori oso ondo ikasi duzue!

–Fitxa honetan bale izugarri handia dago! Balea Itsasotik zebilen lasai eta trankil; halako batean, itsasoan galduta zegoen soka handi batekin topo egin du eta harekin korapilatuta gelditu da.

–Zuen fitxan balea aske dago, baina jostorrazari haria jarriko diozue, eta marrazkian agertzen diren puntuetatik josiko duzue. Horrela ikusiko duzue nola trabatzen diren arrainak itsasora botatzen diren zikinkeriekin.

54. Olerkia. Arrainak

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aingira: urrezkoak balira!

Amuarraina: damuarraina, bai, amuari koska eginda gero!

Antxoa: sokatiran atsoa!

Barbarin: dantzan arin-arin.
Barboa: bihotzean dardoa.
Barrakuda: astazakil hori heldu da.
Bixigu: adarra ederki jo digu!
Berdela: burutik hagoela!
Legatza: hau bizimodu latza!
Izokin: hi bai ipur-zikin!
Lengoradu: ez diat nahi soldadu.
Kabuxa: arkakusoak uxa!
Marrazo: bihotz eroria jaso.
Oilarra: bederatziaren atzetik hamarra.
Perloi: apaizak gaurko mezan lau sermoi.
Piraina: hortz zorrotzen labaina.
Txitxarroa: ongi itzali zigarroa.
Sardina: jatetxeetako printzesa urdina.

Joan Mari Irigoien

55. Arrainak sailkatu

Helburu didaktikoak: I.7-11-16, II.23(MAT), III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 10. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan norabidea landuko dugu. Alde batera begiratzen dutenak, gorritz inguratuko ditugu, eta beste aldera begiratzen dutenak, berdez. Nahi izanez gero, “eskuina”/“ezkerra” kontzeptuak lan ditzakezue.

56. Irtenaldia

Helburu didaktikoak: I.11, II.4-5-7-10, III.8(H)-9(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa:

PROZEDURA

Ikasturtea bukatzen ari dela eta, egun pasa egiteko aukera aparta daukagu. Bakoitzak dituzuen ohiturak errespetatuz, kostalderako irtenaldi bat proposatzen dugu. Hona zenbait aukera:

- Aquariuma ikusi, Miarritzekoa eta Donostiakoa dituzue aukeran.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Arrain-lonja bat ikusi. Kostaldeko herri gehienetan aurki dezakezue.
- Hondartzara joan.
- ...

Beti bezala, gurasoei irtenaldiaren berri nola eman eztabaidatuko duzue: zer gauza eraman behar diren, arauak...

Irtenalditik bueltan, ikusitako arrainak gogoratuko ditugu, eta gure horma-irudian ez badaude, gehituko ditugu.

57. Jolas-kanta: *Ketele ketepillo*

Helburu didaktikoak: I.7-9-10-12-13-14-15, III.15(H)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 27. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Pozik gaude. Laster oporrak datoz eta, gainera, datorren egunerako irtenaldi bat daukagu. Goazen gure barne alaitasun hau adieraztera!

Horretarako aproposa da jolas kanta hau. Haurrek gelan zehar kalejira egingo dute, eta haietako bat, erratza eskuan duela, besteekin batera saltoka ibiliko da. “*Tarrapatatan...*” hasten denean, haur guztiak lurrean etzango dira, eta erratza duen haurrak zutik dagoena astinduko du. Musika berriro hasten denean, denak dantzan!

KETELE KETEPILLO

Tarrapatatan, patan! Tarrapatatan patan!
Tarrapatatan, patan! Tarrapatatan patan!

Jaitxibiri jaitxabillo, ketele ketepillo.
Pao, pao, paoka. Pillo, pillo, pilloka.
Jaitxibiri jaitxabillo, ketele ketepillo.

Jaitxibiri jaitxabillo, ketele ketepillo.
Pillan pillan korapillo, ketele ketepillo.
Jaitxibiri jaitxabillo, ketele ketepillo.
Pillan pillan korapillo, ketele ketepillo.

58. Olerkia. “Bi arrain txiki”

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ontzi kristalezkoan
etorri eta joan
korri eta korri
bi arrain
txiki
gorri.

Urari
hozkaka bizi dira
jira eta bira
sukaldeko txokoan
kartzela kristalezkoan
bi arrain
txiki gorri.

Ibai
urrael
edo aintzira.
Bota itzazu
Arrain gorriak
kristalezko ontzitik
askatasunezko ontzira.
Han zorientsuago biziko dira.

Joxan Ormazabal

59. Akuariumeko animaliak

Helburu didaktikoak: I.11, II.12-25(MAT), III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 11. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Irtenaldian Akuariumera joan zinetenok baduzue fitxa hau nondik bideratu. Joan ez zinetenok, berriz, hurrei galdetuko diegu gurasoekin Akuarium batean izan diren, eta horri buruzko elkarriketa txiki bat bideratuko dugu. Segidan, fitxa landuko

3. ZEHAZTAPEN MAILA

dugu. Lehendabizi, bertan dauden animalien izenak erakutsiko dizkiegu eta, ondoren, kopuruari jarriko diogu arreta.

60. Artelana

Helburu didaktikoak: III.12(PLAS)-13(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 12. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan bi artelan dituzue, eta biek dute urarekin zerikusia. Bata, Frantisek Kupkarena da eta *Ura* du izenburua. Bestea, Paul Signacena da eta *Buia gorria* du izenburua. Egileen argazkiak lortzen badituzue, artelanen atzealdean itsatsi eta haurrei aurkeztu; beste hainbeste egin biografiekin. Dena den, haurrei ez diegu koadroek urarekin zerikusirik dutenik esango; lehenik behaketa bideratuko dugu, eurek ondoriozta dezaten. Ondoren, bi koadroen arteko konparazioa egiteko eskatuko diegu, **antzekotasunak edo berdintasunak** bilatuz hasieran (ezaugarri komunak) eta **desberdintasunak** ondoren.

Haurrek aipatzen ez badute, zuek ikusarazi uraren **mugimendua, kolorea, argia, irudien isla...** nola dauden adierazita koadro batean nahiz bestean. Eta uraren inguruan (olatu, erreka, urjauzi, aintzira, putzu, euri...) aurki ditzakezuen ahalik eta irudi gehienak eskuratu (marrak, eskultura, argazki, bideo...), elementu horiek behatzeko.

Kupka, Frantisek. Pintore, marrazkilari eta grabatzaile txekiarra (Opocno, 1871 – Puteaux, 1957). Parisen arte abstraktuaren aitzindarietako bat izan zen.

Signac, Paul. Pintore frantsesa (Paris, 1863-1935). Seuratekin batera, puntilismoaren sortzaile, jarraitzaile eta teorilaria izan zen eta neoinpresionismoa landu zuen. Akuarelak pintatu zituen eta *Eugène Delacroix tik Neoinpresionismora* liburua argitaratu zuen (1899).

61. Gu ere artista

Helburu didaktikoak: I.9-11, II.10, III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)-24(PLAS)-25(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Polita izan daiteke haurrak taldeka jarri eta talde bakoitzak uraren inguruko plastika lan bat egitea, ikuspegi desberdinetatik, era bateko zein besteko formatu eta materialekin.

Kolorearen estudio txiki bat egin dezakete talde batean, hatzetarako margoak, tenperak edota argizariak erabiliz.

Beste batzuek mugimendua har dezakete oinarri: buztinez, plastilinaz, tenperaz, zeta-paper zati handiak eskuz tolestuz, forma emanaz eta erliebean hondo bat itsatsiz. Trazo batez ondulazioak egin paper luze-luze batean: euria edota ur-jauzia, ura goitik behera alegia, bertikalki jarritako paperetan marraztu, mugimendu sekuentziak (bare, harro, bare...) hiru/lau lamina kontsekutibotan margotuz... Hori guztia musikarekin ere erlaziona dezakezue. Badira merkatuan musika naturako soinuen (itsaso, ur-jauzi...) inguruan sortutako doinu ederrekin osatutako CDak.

Gelan ditugun aldizkari zaharretatik urarekin lotura duten argazkiak bilatu, moztu eta collageak egin.

Uraren inguruan dauden paisaiak (erreka, hondartza, padurak...) irudikatu, naturan bildutako materialak erabiliz (hondarra, erreketako harri biribilak, inguruetako landareak, oskolak...).

Hainbat neurritako kristalezko ontzi gardenak erabili, uraren soinua esperimentatzeko “eskultura” proposamenak eginez.

–Gogoratzen al duzue urari buruz hitz egin genuenean, kolorerik ez zuela esan genuela? Orduan, kolorerik ez badu, nola margotzen da? Nola margotu ote zuten artelanean agertzen ziren artistek? Saiatuko al gara ura irudikatzen?

62. Olatuen gainean

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Uretan hanka hutsik
 Uretan hondartzan...
 Olatuen gainean dantzan.

Eguzkitan bakarrik
 Eguzkitan alai...
 Olatuen gainean blai.

Antton Kazabon

BUKAERA

Arrainei buruz ikasitako guztia hormairudian jarrita daukagu. Hormairudia jadanik uraren tailerrean ipinita daukagunez, bakarrik faltako zaigu hurrengo urterako arrainontzia pestatzea.

5 URTEKO GELARAKO ARRAINONTZIA

Erabaki behar dugu zer nolako arrainontzia prestatuko dugun 5 urteko gelarako. Gure aldetik gomendatzen dizuegu arrainontzi txiki bat prestatuta uztea, horrela, hurrengo ikasturte hasierako egunetan, pare bat arrain erostearekin dena prest izando genuke.

63. Elkarrizketa: arrainontzia gelan

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-1(H)-8(H)-9(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/ B

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Arrainontzi txiki bat eramango dugu gelara. Zer den, zertarako balio duen eta nola zaindu beharko den hitz egingo dugu hurrekin.

–*Zer uste duzue dela hau (arrainontzia aurrean dugula)?*

–*Zer jarri beharko dugu arrainak bizi ahal izateko?*

–*Zuetariko norbaitek ba al dauka horrelakorik etxeran? Nola dute izena zuen arrainak?*

–*Nola zaindu beharko ditugu arrainak osasuntsu eta pozik bizi ahal izateko?*

64. Gure etxeko maskota. Gonbidapena

Helburu didaktikoak: I.1-5, II.12, III.1(H)-3(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haur askok etxean maskota izan ohi dute: dordoka, arrainak, zapaburuak... Gure arrainontzia prestatzen bukatu aurretik, horien ahotsa entzutea komeniko litzateke, zainketa nola antolatu erabaki aurretik.

Halako animaliarik etxean dauzkaten hurrei gelara ekartzea eskatuko diegu; modu honetan, etxeko animalia ezagutuko dugu denok, eta hura zaintzeko egunero egin beharreko zainketei eta ardurari buruz hitz egingo dugu.

65. Olerkia. Plastika

Helburu didaktikoak: I.11-15, II.9, III.1(H)-15(H)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK AFEKTIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 13. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Oporrak hasi bezain pronto, Euskal Herrian, munduko beste leku askotan bezala, udako festa bat ospatzen da, San Joan gaua! Fitxa honetan sua eta izarrak puntzoiaz atera eta atzealdetik zelofana jartzen badiozue oso polita geldituko zaizue. Ikusiko duzue!

Fitxa egiten hasi aurretik, olerkia landu dezakezue.

DONIBANE, SAN JOAN
SUA LURREAN ETA
IZARRAK ZERUAN.
ERRE, ERRE, ERRE
UMORE TXARRA, TRISTURA,
BELDURRAK ETA PENAK.
OPORRAK BADATOZ ETA
ALAITU BARRENAK.

66. Abestia: *San Juan! San Juan!*

Helburu didaktikoak: II.9, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 6. CDa, 30. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

SAN JUAN! SAN JUAN!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

San Juan! San Juan!
Gaez piztu dira suak.
San Juan! San Juan!
Hasi dantzan eta kantuan.

Saltoka, brinkoka,
suaren gainetik beti.
Saltoka, brinkoka,
dantzan eta kantuan segi!

67. Abestia. Oporrak

Helburu didaktikoak: II.14, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 6. CDa, 28. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

OPORRAK

Goi-goian dago eguzkia,
bero-bero eguraldia.
Argi-argi daude zelaiak,
hondartzak eta mendiak.

Maitatzen ikasi duenak
sentitzen ditu bere penak.
Gorde ditzagun malko denak,
abestiak dira onenak.

Handitxoak egin zarete.
Dakizuena ondo bete.
Orain etxera joan zaitetzte.
Agur, eta ikusi arte.

68. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-14, III.4(H)-5(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ene bada! Zein azkar pasa den urtea, ezta? Konturatu orduko oporrak iritsi dira eta laster ikastola itxiko dugu.

–Ba al dakizue zer egin behar duzuen oporretan? Zer da opor garaian gehien gustatzen zaizuena?

–Hondartzara joango al zarete bainatzera? Ala piszinara? Norbaitek ba al daki urrutira joango den edo ez?

–Eta oporrak bukatzen direnean, ez zaizue Kosmeri bezala gertatuko, ezta? Horixe ezetz! Zuek pozik eta kontent bueltatuko zarete ikastolara. Eta gainera...

Txantxatxatxan! Datorren urtean lagun berri bat izango duzue! Oso alaia da, eta batzuetan bihurri samarra, baina jator-jatorra, lagun ona, azkarra, argia, dibertigarria, kirolaria, abeslaria, margolaria... Ikusiko duzue zein ederki pasako duzuen berarekin! Dagoeneko badakizue zein den, lehenengo fitxan Txirritxen ondoan agertu baitzen, baina, ba al dakizue zer izen duen? Ez? Entzun, entzun abestia!

69. Abestia: Xango Matxinsalto

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera motak: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Materiala: 6. CDa, 29. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

XANGO MATXINSALTOA

Txirritxek esan zidan:

“Zatoz gure gelara!”

Baietz erantzun nion,
etorriko nintzela.

Matxinsalto bat naiz ni,
Xango deitzen didate,
pozik nator saltoka,
kantuan ate-joka.

Haizea eta zaparradak,
elurra dator segidan.
Udaberrian sortzen dira
arrosak eta jasminak.
Kantuz eta jolasean
pasako zaigu urtea.

Neurekin ekarri dut
eskolako motxila,
lagunak egin ditut
neskak eta mutilak.
Eskolan ikasiaz,
parkean jolastuaz,
pozik gaude lagunak,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

pozik irakasleak.

Haizea eta zaparradak...

70. Xangoren aurkezpena

Helburu didaktikoak: III.1(H)-7(H)-8(H), III.9(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera motak: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Materiala: 14. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Irudi hauetan datorren urteko bidaia-laguna aurkezten zaie haurrei komiki formatuan: *Xango matxinsaltoa*. Ea asmatzen duten zergatik deitzen ote den Xango. Behatu, elkarrizketatu...

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Zikina	Maitagarria
Garbia	Makarroiak
Itsasoa	Hatzak
Ibaia	Putzua
Igerilekua	Bainuontzia
Aintzira	Lorategia
Balea	Lokatza
Arrainontzia	Katagorria
Sarea	Katua
Marrazoa	Txerria
Marrazoa	Luma
Legatza	Ilea
Txitxarroa	Narratsa
Sardina	
Izokina	
Amuarraina	

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

Txomin ipurdi, Joxe arratibel / Patxi Zubizarreta, Elkar

Pixa belarretan, Magali Bonniol, Hiria

La mosca, Gusti, Ediciones Serres

Martin Zikin, David Roberts, Alberdania

Ortzadar arraina, Marcus Pfister, Alberdania